


Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

	EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO SARRERA · ENTRADA
2009 MAI. 29 MAY. 29	
Nº 797 ZK.	
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL	

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Eusko Legebiltzarreko Erregelamendua jarraituz, **Etxebizitza lege proposamena** aurkezten dio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**.



Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar Legebiltzar taldea

Gasteizen, 2009ko maiatzaren 29an

HERRITARREK ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA BERMATZEN DUEN LEGEA

ZIOEN AZALPENA

ATARIKO IDAZPURUA: XEDAPEN OROKORRAK.

I. KAPITULUA: HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

II. KAPITULUA PRINTZIPIO OROKORRAK

III. KAPITULUA: ETXEBIZITZA ARLOAN ESKUMENA DUTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

1. ATALA. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenak

2. ATALA. Toki Administrazio Publikoen eskumenak

I. IDAZPURUA: ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEA

II. IDAZPURUA: ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOAK

I. KAPITULUA: ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOAK PLANIFIKATZEA ETA PROGRAMATZEA

II. KAPITULUA: EUSKADIKO HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZARAKO TOPAGUNEA

III. KAPITULUA: ETXEBIZITZAREN EUSKAL ZERBITZU PUBLIKOA

IV. KAPITULUA: EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN BALIABIDEAK, ETXEBIZITZAREN ZERBITZU PUBLIKOARI ATXIKIAK

1. ATALA: Printzipio orokorrak

2. ATALA: Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua — Etxebide

3. ATALA: Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa

4. ATALA: Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun

V. ATALA: HIRI ELKARTASUNA ETA GIZARTE KOHESIOA

VI. KAPITULUA: ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA

III. IDAZPURUA. ETXEBIZITZA BABESTUA

I. KAPITULUA: ETXEBIZITZA BABESTUEN ERREGIMENA

1. ATALA. Definizioa eta ezaugarriak

2. ATALA. Motak

II. KAPITULUA: KALIFIKAZIOA

III. KAPITULUA: EDUKITZEKO ETA ESKURATZEKO ERREGIMENA

1. ATALA. Erosteko modalitateak

2. ATALA. Eskuratzeko baldintzak

IV. KAPITULUA: ESLEITZEKO ETA ESKURATZEKO ERREGIMENA

1. ATALA. Esleitzeko erregimena

2. ATALA. Eskuratzeko erregimena lehenengo eskualdatzeetan

3. ATALA Eskuratzeko erregimena bigarren eta hurrengo eskualdatzeetan

V. KAPITULUA. BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA ESKATZEN DUTEN HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

IV. IDAZPURUA: BIRGAITZEA BULTZATZEA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA: BIRGAITZEKO ESKU-HARTZEAK

III. KAPITULUA: FINANTZA NEURRIAK

IV. KAPITULUA: BIRGAITZE AREETAKO ARAUBIDE JURIDIKOA

1. ATALA. Birgaitze Integratuko Areen eta Area Degradatuen Araubide juridikoa

2. ATALA. Birgaitzeko hirigintza sozietateak

V. KAPITULUA: BESTE BIZILEKU BAT EMATEKO ERREGIMENA

V. IDAZPURUA: ETXEBIZITZA MULTZOAREN INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

I. KAPITULUA: ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO ESKA DAITEZKEEN KALITATEA ETA BALDINTZAK

II. KAPITULUA: ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO KONTROL NEURRIAK

III. KAPITULUA: ETXEBIZITZAREN KALITATEARI, IRAUNKORTASUNARI ETA BERRIKUNTZARI BURUZKO KONTSEILUA

VI. IDAZPURUA ETXEBIZITZA MULTZOAREN ERABILPEN ANTISOZIALA

I. KAPITULUA: ETXEBIZITZA HUTSA

II. KAPITULUA: NEURRIZ GAINEKO OKUPAZIOA

VII. IDAZPURUA: ETXEBIZITZA ARLOAN KONTSUMITZAILEEK DITUZTEN BERMEAK

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA: ETXEBIZITZARI LOTUTAKO AGENTEAK

III. KAPITULUA: ETXEBIZITZARI BURUZKO PUBLIZITATEA

IV. ATALA. ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA

V. ATALA: ETXEBIZITZA ESKUALDATZEA ETA ERRENTAN EMATEA

**VI. KAPITULUA: ETXEBIZITZA LIBREA ESKURATZEKO LAGUNTZA PUBLIKOAK
JASOTZEAREN ONDORIOZ, EDUKITZEAK DITUEN MUGAK**

**VIII. IDAZPURUA. ETXEBIZITZA BABESTUEN KOPURUAREN GIZARTE
ERABILERA EGOKIAREN GARANTIA JURIDIKOAK**

I. KAPITULUA: APLIKAZIO EREMUA

II. KAPITULUA: LEHENESPENEZ ESKURATZEKO ESKUBIDEA

II. KAPITULUA: MAIZTER-BOTATZE ADMINISTRATIBOA

III. KAPITULUA: NAHITAEZKO SALMENTA

IV. KAPITULUA: NAHITAEZKO DESJABETZEA

V. KAPITULUA: ETXEBIZITZA BABESTUA IKUSKATZEA

VI. KAPITULUA: ZEHAPEN ERREGIMENA

1. atala. Xedapen orokorrak

2. atala. Arau-haustekak

3. atala. Zehapenak

4. atala. Prozedura, betearaztea, preskripzioa eta iraungitzea

XEDAPEN GEHIGARRIAK

XEDAPEN IRAGANKORRAK

AZKEN XEDAPENA

HERRITARREK ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA BERMATZEN DUEN LEGEA

ZIOEN AZALPENA

I

Lege honen xedea da ondoko gizarte eskubidea bermatzea: herritarrek zentzuzko prezioetan etxebizitza duina eskuratzea. Hartaz, etxebizitzak ez du oztopatu behar gainerako eskubide eta betebeharrak konstituzionalak gozatzea eta betetzea. Izan ere, aipatutako guztiari esker, herritarrek beren bizitza proiektuak garatzeko aukera izan behar dute, etxebizitzak ezar dakiekeen eragozpen horretatik libre.

Euskadiko Autonomia Erkidegoak eskumena du aipatutako gaia legez arautzeko, ondoko bi artikuluekin bat: Konstituzioaren 47. artikulua eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.31 artikulua.

Legeak lan kontzeptu nagusi ditu oinarri. Lehenik eta behin, etxebizitza izateko eskubidea kategorizatzea, Euskadin bizi diren herritar guztien egiazko eskubide subjektibo gisa. Bigarrenik, araua ulertzeko funtsezkoak dira etxebizitza zerbitzu publikotzat jotzen duten nozioak. Halaber, etxebizitzarako politika publikoak Lege honen muinaren zatiak dira. Eta, azkenik, ez dugu inolaz ere ahaztu behar arau honen oinarria dela merkaturan erakunde publikoek esku hartzea. Etxebizitza ezin da soilik merkatuaren esku utzi, horrek ekartzen baitu Euskadiko Autonomia Erkidegoko biztanleriaren zati handi bat babesik gabe uztea. Lehenik eta behin, arlo horretan esku hartzea agindu konstituzionala da. Eta, gainera, giltzarria da, gainerako funtsezko kontzeptuen bermea. Esku hartze publikorik gabe ez da etxebizitzaren zerbitzu publikorik izango, ezta etxebizitzarako politika publikorik ere, eta, garrantzitsuena, urratuko da Euskadiko herritarrek arrazoizko baldintzetan etxebizitza duina eskuratzeko duten egiazko eskubidea, eraginkorra eta benetakoa.

Halabeharrez, indarrean dagoen Konstituzioaren testua hitzez hitz hartuta, lege honen xedea da Gizarte Estatuaren beste adierazpide bat izatea.

II

Krisi ekonomiko sakona bereziki eragin duen alderdia denez (batez ere, Espainiako finantza sistemaren kasuan), higiezinaren aktiboek hartutako jokabideak erakusten du lurzoruaren eta etxebizitzaren politikaren ildo nagusiak erabat zalantzan jarri behar direla. Nabarmendu behar da ildo hauek prezioak igoarazten dituztela dagozkien merkatuetan.

Azken hamarraldiaren ezaugarri nagusia izan da lurzoruaren "desarautze" politika —Euskadiko Autonomia Erkidegoan ere—, eta, ondorioz, etxebizitzarena. Argi eta garbi, Administrazio Publikoen jarduera ez da nahikoa izan aipatutako merkatuak arautzeko eta kontrolatzeko, batez ere, aspalditik zin eginda ere, Etxebizitzaren Legerik ezarri ez baita. Hori dela eta, nahitaezkoa da Etxebizitzaren Legea onartzea, eta bere edukiek ondoko lau esparruak estaltzea:

1.- Etxebizitza eskuratzeko eskubideak izaera unibertsala du.

Ez du diru sarreren arabera ezarritako inolako mugen mende egon behar. Aitzitik, eskuratzeko lehentasunak eta baldintzak zabal eta zorrotz arautu behar dira, babes sistematik onura ateratzen duen biztanleriaren geruzaren arabera.

Eskuratzeko bermea ez da jabegora soilik mugatu behar, alokatzeko bermea ere bultzatu behar da. Etxebizitza duinean bizitzeko eskubidea dugu, ez, ordea, bere jabeak izateko.

Adinduna izanik, eskatzaileen erregistroan izena emateko aukera.

Etxebizitza eskubiderako Babes Judiziala indarrean sartuko da Legea indarrean sartu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean eraginkortasun osoa izango du, lau urteko gehieneko epean (legealdi bat)

Etxebizitza eskatzen duten hiritarren zerrenda bateratuko da, baita etxebizitza babestua emateko zerbitzuarena ere.

Ondoko biak orokortuko dira babes publikoko etxebizitzaren multzoan: kalifikazio iraunkorra eta bigarren eskualdatzeetan nahitaez saltzeko erregimena.

2.- Etxebizitza politikaren izaera integrala.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen laugarren Azken Xedapena, etxebizitza alokatzea bultzatzeko politikei buruzkoa, ezartzea eta garatzea. Administrazio publikoen lurzoru erreserba gehienak erabiliko dira alokatzeko etxebizitzak herritarren eskura jartzeko.

Hirigintza eta Etxebizitzari buruzko Topagunea garatzea. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusita dago, eta bertan EAEko administrazio publikoek parte hartzen dute.

Zerga politika zuzenduko da, gaur egungoak lehentasuna ematen baitio etxebizitza jabetzan izateari, eta ez, ordea, alokairuari.

Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren integrazio funtzionala eta organikoa.

EAEko administrazio publiko guztien erantzukidetasuna, etxebizitza politika garatzeari dagokionez.

EAEko administrazio publiko guztien erantzukidetasuna EAEko Etxebizitza Plan Zuzentzailea egiteko eta aplikatzeko orduan.

3.- Alokatzeko dauden etxebizitzaren multzo publikoaren entitate Gizarte kohesioa bultzatzea. Baliabide publikoen helburu nagusia izan behar da alokairu babestua bultzatzea.

Toki entitateek alokatzeko etxebizitza babesturako programa bat eman behar dute, berariaz egina.

Alokairu babestuari lehentasuna emango zaio, babes publikoko erregimenen batean dauden etxebizitzaren artean, alokatzeko dauden etxebizitzaren multzo publikoak emateak dituen helburu guztiak bete arte.

Udal hirigintzaren plangintzan alokairu babestuko etxebizitzaren kupoak ezarriko dira (etxebizitza babestu guztien %50).

Etxebizitzaren merkatuan hirigintza esku hartzerako lehentasunezko eremuak arautuko dira etxebizitzak okupatuta ez egoteagatik. Alokairu babestuen errentak progresiboki kalkulatuko dira. Errenta kalkulatzeko baztertuko da Oinarrizko Errentaren baliokidea den diru sarreraren kopurua.

Erakunde publikoek modu koordinatuan esku hartuko dute, alokairuko etxebizitza babestuaren eskaintza nahikoa izan dadin.

Alokairuko etxebizitza sustatzeko —erakunde publikoetatik zein pribatuetatik— laguntza publikoak gehitzea.

Hiru herrialde historikoetako foru aldundiek zerga neurriak bizkortuko dituzte alokairuaren alde.

Zuzkidura partzeletan aldi baterako bizitokiak sortzeko ekimenak bultzatuko dira.

4.- Erabiltzen ez diren etxebizitzak nola tratatu.

Behar baino gutxiago erabiltzen diren etxebizitzak dagokienez, zerga tratamendu progresiboa emango zaie (bigarren etxebizitza barne).

Hutsik dagoen etxebizitzari kanon edo ariel ez-fiskala jarriko zaio, lurralde okupazioaren iraunkortasunaren ikuspegitik justifikatuta baitago.

Aipatutako guztia, beharrezkoa izateaz gainera, premiazkoa da: orain arte izan den etxebizitza politika zuzendu behar da, interes tasa baxuek higiezin burbuila puztu baitzuten gizarte mailako eskaerak goranzko joera zuen abagune hartan (biztanleriaren piramidearen geruzarik zabalenak 30 urte bete zituen 2006an). Zabaltzean desintegrazioa eragin duen politika horren funtsak —lurzoruaren balioak etxebizitzaren prezioan zuen eragina, gero eta handiagoa, oinarri zuena— honako hauek izan dira:

Lurralde eta hirigintza antolamendurako ezarri diren irizpideek bultzatu dute askoz lurzoru gehiago sailkatzea, garatzeko benetako beharrak estaltzeko zehazki behar zena baino, hirigintza aldetik aipatutako lurzoruaren helburua aldatzeko xedez.

Foru administrazioek bide gisa erabili duten zerga politikak bultzatu du etxebizitza erostea, alokairuaren kaltean. Horrela, lurzoruaren espekulazio balioak azkar gauzatzea bermatu dute.

Erkidegoko administrazioak ez du etxebizitza babestura sustapen publikoa, ez behintzat merkatuan eragin nabaririk izateko gutxieneko mailan.

Oro har, toki administrazioak zailtasun larriak aurkitzen ditu udalek dituzten lurzoru ondareen funtzio erregulatzailerak praktikan gauzatzeko.

Administrazio integrazioa atzeratu edo baztertu da, lurzoruaren eta etxebizitzaren balioen kontrola koordinatzeko edo sendotzeko helburu zuena.

Argi eta garbi, Administrazio Publikoen jarduketa ez da nahikoa izan merkatu hauek arautzeko eta kontrolatzeko, hainbat aurrerapen izan badira ere.

Hirigintza legedia (2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa) ez da garatu araudien arabera (oraindik ez dira argitara eman araudi sistematikoak). Halaber, ez da egokitu Estatuko oinarritzko legedi berrira (8/2007 Legea, Lurzoruari buruzkoa). Horren guztiaren ondorioz, aipatutako legea aplikatzeko aukerak nabarmen murriztu dira.

Oraindik ere, lurralde antolamendua garatzeko (lurralde arloko plan partzialak) ondoko irizpide jasanezina hartzen da oinarri gisa: lurzoruaren eskaintza errearen beharrak biderkatzea (halako hiru egitea), indarrean dauden Lurralde Antolamendurako Gidalerroek xedatzen duten bezala.

Udal Legea atzeratu denez, nabarmendu da udal administrazioaren eginkizun subsidiarioa, aurrekontuetako diru sarrerak murrizten ari diren egungo testuinguruan. Hartara, edozein aurrerapen galarazten da bere eginkizun legala gauzatzeko, lurzoruaren eta etxebizitzaren merkatuak arautzea xede duena, hain zuzen.

Etxebizitza babestuaren sustapen publikoak ez dio behar den lehentasunik eman alokairuko etxebizitza babestuaren multzo bat osatzeari, etxebizitza eskaera estaltzeko adinako dimentsioak izan behar dituen bati, soziologikoki historian izan den bere zabaltze handieneko garaian.

Lege egitasmoak aitzinatu behar dira, lurzoruaren eta etxebizitzaren esparruan administrazioaren jarduketa integratzea bultzatzeko (etxebizitzaren alokairua sustatzeko politiken bultzada koordinatua; Hirigintza eta Etxebizitzari buruzko Topagunea; Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa).

Epigrafe honen hasieran proposatutako lau jarduera eremuez gainera, etxebizitza politika integrala zehazteko, aipatutako egitura gabeziak konpondu behar dira, ondoko programa ildoetan:

2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, araudiz garatzea, eta Estatuko oinarritzko legedira (8/2007) berehala egokitzea. Egokitze hau ez da mugatu behar bateragarritasun formaleko gaitara, aitzitik, hondoan dagoen arazoari behar bezala ekin behar dio, gainbalioak sortzeko espekulazio bidezko itxaropenak ezabatzeko, hain zuzen. Itxaropen hauek izan dira lurzoruaren sustapenaren oinarriak, zehazki. Horrek ekartzen du lurzoru sailkatzeko teknika erruz aldatzea, baita gaur egun legez lurzoru urbanizagarria zer den aldatzea ere.

Egokitze honek kontuan hartu beharko lituzke udal hirigintzaren plangintzari ondokoak lotzea: etxebizitzaren toki planak eta, hauen ondorioz, alokairu babestuen kupoak.

Indarrean dauden Lurralde Antolamendurako Gidalerroak berraztertu behar dira sakonki. Horretarako, garapen iraunkorraren printzipioak sartzeaz gainera, ezabatu behar da benetako beharren aldean lurzorua eskaintza harrotzeko edo biderkatzeko sortu den faktorea.

Udal Legedian behar diren aurrekontu berme nahikoak arautu behar dira, lurzoruari dagokionez, udalek ondarean duten autonomia bultzatzeko.

Kontuen Euskal Epaitegiak zorrotz eta sakonki kontrolatu behar du udalek duten lurzoru ondareen jarduketa eta dinamizazioa.

Etxebizitza Plan Zuzentzailea berrikusi behar da, legealdi bateko epean alokairuko etxebizitzaren ondare publikoa ematea bermatzeko; benetako beharrak estaltzeaz gainera, kontsumoa eta egiazko ekonomia hertsatzen dituen hipoteken presioa arindu beharko du. Horrek eskatzen du sustapen publikoko baliabide gehienak bideratzea etxebizitza eskuratzeko modu horretara, urtean 10.000 etxebizitza eraikiz, alokairu sozialean emanak

Etxebizitza politika integrala bultzatzeko legezko tresnak garatzea, arlo honetan administrazio publikoen jarduketa batera gauzatzea koordinatu eta bermatzen dutenak.

III

Egiturari dagokionez, legeak Atariko Idazpuru bat du, Xedapen Orokorrak jasotzen dituena. Bertan, honako hauek arautzen dira: helburua eta aplikazio eremua, printzipio orokorrak eta etxebizitza arloan Administrazio Publikoek dituzten eskumenak.

Legearen I. Idazpuruaren xedea da legez egituratzea euskal herritarrek etxebizitza izateko duten eskubidea. Jakina, eskubide hau da Legearen erreferentzia teleologikoa.

II. Idazpuruak agertzen ditu etxebizitzari buruzko politika publikoak, baita hauen planifikatzea eta programatzea ere. Idazpuru berean, ondokoak arautzen dira: Etxebizitzaren Politika Publikoari buruzko Topagunea, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoaren kontzeptua eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren baliabideak, aipatutako Etxebizitzaren Zerbitzu Publikoari atxikiak (Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebide, Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa, Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun). Halaber, II. Idazpuruak arautzen ditu hiri elkartasunaren eta gizarte kohesioaren betebeharrak, eskumena duten Administrazio Publikoei dagozkienak. Argi dago ondokoekin lotuta daudela: etxebizitzaren politika publikoak, etxebizitzaren zerbitzu publikoa eta, garrantzitsuenak, euskal herritarrek etxebizitza izateko duten gizarte eskubidea benetan gauzatzea Azenik, II. Idazpuruak estatistika arloa arautzen du.

Legearen III. Idazpuru osoak lantzen du etxebizitza babestuaren araubide erregimen berariazkoa. Aipatutakoak ondoko hauek hartzen ditu: definizioa, ezaugarriak, motak, edukitzeko eta eskuratzeko erregimenak, esleitzea eta erabiltzea. Halaber, III. Idazpuruak katalogo bat du barne, etxebizitza babestua eskatzen eta erabiltzen duten herritarren eskubide eta betebeharrei buruzkoa.

IV. Idazpuruak arautzen ditu etxebizitzaren birgaitzea bultzatzeko politika publikoak. Ondokoak lantzen ditu bereziki: Birgaitze Areak eta beste bizileku bat emateko erregimena.

V. Idazpuruak agertzen da etxebizitza multzoaren iraunkortasuna, ingurumenari dagokionez, eta arautzen ditu etxebizitzak eraikitzean kalitatea bermatzeko bete behar diren baldintzak eta kontrol neurri publikoak. Halaber, V. Idazpuruak sortu eta arautzen du Etxebizitzaren Kalitateari, Iraunkortasunari eta Berrikuntzari buruzko Kontseilua.

VI. Idazpuruak etxebizitza multzoaren erabilpen antisoziala arautzen du, eta, erabilpen honek dituen bi adierazpen nagusiak arautzeaz gainera, horien aurkako neurriak hartzen ditu: etxebizitza hutsa eta etxebizitzaren neurritz gaineko okupazioa.

VII. Idazpuruak arautzen ditu etxebizitzari dagokionez kontsumitzaileek dituzten bermeak. Etxebizitzari loturik dauden agenteen profesionalizazioan jartzen du arreta berezia. Halaber, etxebizitzari buruzko ondokoak arautzen ditu: publizitatea, eskaintzak, eskualdatzea eta alokairuak.

VIII. Idazpuruak berme juridikoak arautzen ditu, etxebizitza babestuaren multzoaren gizarte erabilpen egokia gauzatzeko ari den ziurtatze aldera. *Inter alia*: Administrazioak lehentasunez eskuratzeko duen eskubidea, maizter-botatze administratiboa alokairu publikoak dauden kasuetan, etxebizitza babestua nahitaez saltzea Administrazioaren alde, nahitaezko desjabetzea, etxebizitza babestuaren multzoa ikuskatzea eta gai berberari buruzko zehapen erregimena.

Beraz, honako hauek ditu Legeak: 8 idazpuru, 184 artikulua, 18 xedapen gehigarri, 3 xedapen iragankor eta azken xedapen bakarra.

ATARIKO IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA Helburua eta aplikazio eremua

1. art. Helburua

Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Estatuaren 10.31 artikulua garatuta, Legearen helburua da Euskadiko Autonomia Erkidegoan ondokoak arautzea:

- a) Herritarrek etxebizitza duina eskuratzeko duten eskubidea bermatzea.
- b) Aipatutako eskubidea gauzatzeko Euskal Administrazio Publikoek bultzatu behar dituzten baldintzak. Administrazioek arreta berezia jarriko dute behar bereziak dituzten giza taldeek eskubide hori gozatu ahal izateko.
- c) Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa zehaztea. Eginkizun aldetik Gizarte Estatuari loturik dago, eta etxebizitza arloan eskumena duten Administrazio Publikoen ardura komuna da.
- d) Ondokoak zehaztea: etxebizitzari buruzko politika publikoak, eta politika hauek garatzeko behar diren programatzeko eta planifikatzeko tresnak.
- e) Babes Publikoko Etxebizitzari buruz Administrazio Publikoek dituzten eskumenak, ahalmenak eta betebeharrak.
- f) Babes Publikoko Etxebizitzari dagokionez, ondoko jarduketei aplikatzen ahal zaien erregimen juridikoa: sustatzea, eskuratzea, eraikitzea, esleitzea, erabiltzea, aprobetxatzea, eskualdatzea eta zaintzea.
- g) Ondokoen antolamendua eta eginkizunak: Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebide, Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun eta Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa.
- h) Etxebizitza birgaitzea bultzatzea.

- i)
- j) Babes Publikoko Etxebizitzen multzoa ikuskatzea, legezkotasuna babestea eta lehengoratzeta eta, etxebizitza arloan izandako arau-hausteak direla eta, zehapen erregimena.
- k) Etxebizitzari dagokionez, patologia antisozialen aurkako borroka.
- l) Etxebizitza mota guztiak kontsumitzen dituzten herritarren eskubideak babestea eta higiezinaren merkatuaren gardentasuna.
- m) Etxebizitza multzoaren iraunkortasuna, ingurumenari dagokionez.
- n) Etxebizitzari buruzko estatistika.

2. artikulua.- Aplikazio eremua.

Legearen xedapenak ondokoei aplikatuko zaizkie:

- a) Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan Babes Publikoko Etxebizitzan eskumena duten Administrazio Publikoen politikak.
- b) Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebide, Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun eta Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa.
- c) Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurraldean dauden Babes Publikoko Etxebizitzak.
- d) Babes Publikoko Etxebizitzak eraikitzeke erabiltzen diren Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurraldeko lurzorua
- e) Eskumena duten Administrazio Publikoek etxebizitzak sustatzeko ezarritako neurriak, baita erakundearen administrazioaren barnean dagoen beste edozein entitate juridikok ezarritakoak ere.
- f) Edozein motatako jarduketak, pertsona fisikoek zein juridikoek eginak, publikoek zein pribatuek, baldin eta Babes Publikoko Etxebizitza arloan Euskadiko Autonomia Erkidegoan gauzatzen badira.
- g) Higiezinaren merkatuko etxebizitza eta agente guztiak.
- h) Etxebizitzari dagokionez, estatistikoki tratatzen den informazioa.

II. IDAZPURUA PRINTZIO OROKORRAK

3. Artikulua. Printzipio zuzentzaileak.

Ondoko printzipioek arautuko dute etxebizitza arloan aritzen diren Administrazio Publikoen jarduketak:

- a) Gizarteari lotuak
 - Herritarrek etxebizitza duina gozatzeko duten eskubidearen unibertsaltasuna, eraginkortasuna eta berme juridikoa, baita etxebizitzari loturik dauden eskubide konstituzionalena ere.
 - Hiru ikuspegi dagokienez —kantitatea, lurraldea eta mota—, Babes Publikoko Etxebizitzaren eskaintza orekatua lortzea, gizarte-bazterketa —egiturazkoa edo egoeraren arabera— pairatzen duten giza taldeen ardura berezia hartuko duena.
 - Hiri eta herrietako auzoetan eta bizitegi sektoreetan aniztasuna eta kohesio soziala sustatzea, ondoko bi alderdietarako beharrezkoa baita: hirigintza integratuz egokia bermatzeko eta, bestalde, segregazio, bazterkeria edo bereizkeria fenomenoei aurrea hartzeko (gizarte, ekonomia, demografia, kultura, erlijio arrazoiak edo beste edozein motatako arrazoi direla eta).
- b) Konstituzio eta ingurumen arloari lotuak
 - Gaur egun dagoen bizitegien multzoa zaintzea, birgaitzea, eraberritzea edo berriztatzea.

- Energia aurreztea.
 - Etxebizitza multzoaren iraunkortasuna, ingurumenari dagokionez.
- c) Administrazioari lotuak
- Herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea, eta objektiboki tutoretza publikoa gehien behar duten giza taldeei lehentasuna eman.
 - Administrazio Publiko guztien arteko lankidetzak eta koordinazioak.
 - Politika publikoen kudeaketaren eta emaitzen programazioa, eraginkortasuna, eragingarritasuna, arintasuna, ardura eta erantzukizuna, eta kontrola.
 - Bitartekoak helburuei egokitzeko ondoko irizpideak kontuan hartzea: ekonomia, nahikortasuna, egokitasuna eta arrazionalizazioa.
 - Administrazio jardura sinplifikatzea eta arrazionalizatzea.
 - Babes Publikoko Etxebizitzak esleitzeko, ondokoak kontuan hartzea: gardentasuna, aukera berdintasuna eta hainbat gizarte talderen bereizte positiboa.
 - Gizarteari dagokionez, Babes Publikoko Etxebizitzaren multzoa arduraz erabiltzea.
 - Babes Publikoko Etxebizitzaren kalitatea.
 - Etxebizitzaren bat erabiltzen duten herritarren eskubideak babestea.
 - Herritarren parte-hartzea Administrazio Publikoaren etxebizitza politikak diseinatu, abiarazi eta ebaluatzerakoan.

III. KAPITULUA ADMINISTRAZIO PUBLIKO ESKUDUNAK

1. ATALA. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenak

4. artikulua. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenak.

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazioari dagokio ondoko eskumenak gauzatzea:

- a) Babes Publikoko Etxebizitzaren arloan arauak emateko ahalmena.
- b) Babes Publikoko Etxebizitzaren modalitateak arautzea, ondoko legeek mugatzen duen lege esparruaren barnean: 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, Lege hau eta, azkenik, Eusko Legebiltzarrak etorkizunean gauzatu ahal duen lege jarduketak.
- c) Autonomia erkidegoko mailako Babes Publikoko Etxebizitzaren tipologia guztien kalifikazioa, behin-behinekoa zein behin betikoa.
- d) Ondoko bi politikak integratzea: Babes Publikoko Etxebizitzarena eta lurraldea, lurzorua eta ingurumena antolatzea.
- e) Bultzatzea eta sustatzea helburu dituzten autonomia erkidegoko politikak diseinatzea, herritarrek etxebizitza duina eskuratzea ahalbidetzen dutenak.
- f) Etxebizitza arloan gastu publikoa programatzea, eta autonomia erkidegoko ekonomia eta aurrekontu politikarekin integratzea.
- g) Etxebizitza arloari dagokionez, interes orokorrak eta udalez gaindiko interesak eraginkortasunez zaintzea.
- h) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailea onartzea, baita etxebizitza programak behin betiko onartzea ere.
- i) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailea eta etxebizitzaren udal planak koordinatzea.
- j) Babes Publikoko Etxebizitzak Antolatzea Lurraldearen Arloko Plana Euskal Autonomia Erkidegoan.
- k) Etxebizitzaren Udalez gaindiko Planak onartzea.
- l) Gainerako Administrazio Publikoekin lankidetzan aritzea, etxebizitza eskuratzea bultzatzen eta sustatzen duten neurriak eta planak garatzeko.

- m) Erkidegoko Babes Publikoko Etxebizitzaren multzo publikoa kudeatzea eta administratzea. Eusko Jaurlaritzaren partaidetzako sozietateei eman ahalko zaie aipatutako eginkizuna.
- n) Lurzoruaren berezko ondarea eratzea, Babes Publikoko Etxebizitzak eraikitzekoa. Hori guztia edo zati bat Eusko Jaurlaritzaren partaidetzako sozietateei eman ahalko zaie.
- o) Etxebizitza Babestuak sustatzea eta kudeatzea, baita alokairuan emandako zuzkidura biziokiak ere, 2/2006 Legearen, Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, babespean eginda.
- p) Ondokoak arautzea eta zuzentzea: Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebide, Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzeko eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun eta Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa.
- q) Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Babestuen tipologia guztien esleitzea arautzea eta kontrolatzea, baita alokairuan emandako zuzkidura biziokiak ere, 2/2006 Legearen, Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 17. artikulua babespean egindak.
- r) Edozein udaletan bizi izanda ere, berdintasun printzipioa bermatzeko, herritarrek etxebizitza izateko eskubidea gauzatzeari dagokionez; Etxebizitza Babestuaren tipologia guztiak esleitzeko oinarritzako eta gutxieneko baldintzak arautzea; baita alokairuan emandako zuzkidura biziokiak ere, azken hauek 2/2006 Legearen 17. artikulua, Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, babespean eginda.
- s) Erkidegoko Etxebizitza Babestuen tipologia guztiak erostea, erabiltzea, gozatzea eta eskuratzea kontrolatzea, baita alokairuan emandako zuzkidura biziokiak ere, azken hauek 2/2006 Legearen, Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 17. artikulua babespean egindak.
- t) Babes Publikoko Etxebizitzari dagokionez, etxebizitzaren polizia izateko eskumena eta zehatzeko ahalmena gauzatzea.
- u) Babes Publikoko Etxebizitzari dagokionez, negozio juridikoen gainean administrazioak esku-hartzeko duen ahalmena gauzatzea. Barne daude, jasotako laguntzen ondorioz, babesa izango duten etxebizitzak eta lotutako eraikuntza elementuak.
- v) Desjabetzeko ahalmena, autonomia erkidegoko edota udaletako etxebizitza planak gauzatzeko aldera, baita etxebizitzaren gizarte funtzioa ez betetzeagatik desjabetzeko legez balioesten diren kasuak ere.
- w) Euskadiko Autonomia Erkidegoari dagokionez, Babes Publikoko Etxebizitzaren gaineko estatistika kudeatzea.
- x) Babes Publikoko Etxebizitzari buruz herritarrei aholkua ematea.
- y) Etxebizitza Libre salerosi, alokatu eta erabiltzeari dagokienez, herritarrei aholkua ematea eta bitartekaritza lana egitea.
- z) Nahitaezko txostena bidaltzea, loteslea ez dena, etxebizitzaren politika publikoari eragiten dieten zerga foru arauak aldatzeko proposamenei buruzkoa. Aipatutako txostena bidaliko zaie foru organo eskudunei eta Zerga-Kideketarako Sailari.
- aa) Etxebizitzari dagokionez, beste Administrazio Publiko batzuei berariaz eman ez zaizkien beste edozein eskumen.

2. ATALA. Toki administrazio publikoen eskumenak

5. artikulua. Udalen eskumenak.

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalek ondokoetarako eskumenak dituzte, beren interesak kudeatzeko autonomiaren printzipioaren mende eta Lege honek ezarritako esparruaren barnean, baita berau garatzea xede duen Eusko Jaurlaritzaren araudiaren barnean ere:
 - a) Babes Publikoko Etxebizitzari buruzko berezko politikak ezartzea, herritarrek etxebizitza duina eskuratzea ahalbidetzen dutenak.
 - b) Etxebizitzaren Udal Planak onartzea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailearen esparruaren barnean.
 - c) Babes Publikoko Etxebizitzari buruzko udal tipologiak arautzea, 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, eta Lege honek ezarritako esparruaren barnean.
 - d) Gainerako Euskal Administrazio Publikoekin lankidetzan aritzea, etxebizitza eskuratzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko.
 - e) Lurzoruaren berezko ondarea eratzea, Babes Publikoko Etxebizitzak eraikitzea. Hori guztia edo zati bat eman ahalko zaie erakunde administrazioaren barnean dauden beste entitate juridiko batzuei, behar den hitzarmena sinatuta.
 - f) Babes Publikoko Etxebizitzak sustatzea eta kudeatzea, baita alokairuan emandako zuzkidura bizitokiak ere, 2/2006 Legearen, Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 17. artikulua babespean eginak.
 - g) Lege honen esparruaren eta Eusko Jaurlaritzak garatzeko duen araudiaren barnean, bere politika gauzatzea, Babes Publikoko Etxebizitzak eta alokairuan emandako zuzkidura bizitokiak esleitzeko, Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 17. artikulua babespean eginak.
 - h) Babes Publikoko Etxebizitzen multzoa, udal titulartasuna duena, kudeatzea, administratzea eta zaintzea, baita alokairuan emandako zuzkidura bizitokiak ere, Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 17. artikulua babespean eginak.
 - i) Babes Publikoko Etxebizitzak bultzatzeko eta sustatzeko finantza neurriak ezartzea beren udal barrutietan.
 - j) Desjabetzeko ahalmena, etxebizitzaren udal planak gauzatzeko.
 - k) Eusko Jaurlaritzan etxebizitza arloan eskumena duen Sailari proposatzea udal barruti bakoitzean egon daitezkeen area degradatuak aitortzeko; birgaitzea bultzatzeko eta sustatzeko neurriak —aipatutako eremuei eta udalerrri bakoitzeko gainerako etxebizitzari onura ekar dakizkiekeenak— eskuratu ahal izateko.
 - l) Udalek erregulatzen dituzten Babes Publikoko Etxebizitzari dagokienez, negozio juridikoen gainean administrazioak esku-hartzeko duen ahalmena gauzatzea. Barne daude, jasotako laguntzen ondorioz, babesa izango duten etxebizitzak eta lotutako eraikuntza elementuak.
 - m) Udalek arautzen dituzten Babes Publikoko Etxebizitzari dagokienez, etxebizitzaren polizia izateko eskumena eta zehatzeko ahalmena gauzatzea.
2. Babes Publikoko Etxebizitzaren arloan, udalek gauzatuko dituzte eraikitzeko jarduerari buruz hirigintza araudiek egokitzen dizkieten eskumenak.
3. Tamainarengatik edo baliabiderik eza direla eta, zailtasunak dituzten udalek, edo etxebizitza arloan beren eskumen guztiak gauzaterik ez duten horiek, administrazioen artean behar den lankidetzara eskatu ahalko diote Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari.

I. IDAZPURUA

ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEA

6. artikulua. Herritarrek etxebizitza duina eskuratzeko duten eskubidea.

1. Euskadiko herritarrek Euskal Administrazio Publikoari exijitzeko eskubidea dute, etxebizitza duina eskuratzeko eskubidea zuzenki asetzeko.
2. EAEn bizi diren herritar adindun edo emantzipatu guztiek beren beharretara egokitzen den etxebizitza duin bat eskuratzeko eskubidea dute. Etxebizitza izateko beharra egiaztatzen badute, behar hori asetzeko eskatu ahal diote Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoari.
3. Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoaren garapenari dagokionez, EAeko Administrazio Publiko guztiak erantzunkideak dira, eta bideratu beharko dituzte etxebizitza duina eskuratzeko eskubidea gozatzea bermatzen duten politikak, eta, horien artean, Lege honek arautzen dituenak bereziki.
4. Aipatutako politikek herritarrek etxebizitza izateko beharrak ase beharko dituzte osorik, 2012ko urtarrilaren bata baino lehen. Hori gauzatzeko, alokairuko etxebizitza bat emanen zaie, ondoko mekanismoetariko baten bitartez, gutxienez:
 - a. Alokairuko zuzkidura bizi bati eskuratuta.
 - b. Babes Publikoko Etxebizitza bat alokairuan eskuratuta.
 - c. Etxebizitza hutsak alokairu babestura bideratzea xede duen etxebizitza programa publiko batean sartuta.
 - d. Etxebizitza libre baten alokairua diruz lagunduta, araudiek zehazten dituzten gizarte eta ekonomia baldintzekin bat, baldin eta, etxebizitza arloko baliabide publikoen multzoa erabilita, etxebizitzaren benetako beharra asetzeko ezinezkoa bada.
5. Aurreko kasu guztietan, herritarrek ordaintzen duen alokairua ezin izango da bere diru sarreraren %30 baino handiagoa izan, aipatu diru sarrerak araudiek xedatzen duten bezala kalkulaturik, eta haiei oinarritzeko errentaren zenbatekoaren kopuru baliokidea kenduta.
6. 2012tik aurrera, herritarrek, ezin badu etxebizitzarik benetan eskuratu arestian aipatutako baldintzetan, epailearen aurrean exijitu ahal du eskubide hau.
7. Ondoko bi kasuetan etxebizitza beharra ase beharko da testu honetako Lege hau indarrean sartzen denetik, aurreko atalean aipatzen den lau urteko epeak eraginik izan gabe: Etxebizitza Emate Osagarriaren Legearen eragina jaso duten herritarren kasuan eta etxebizitza beharra egiaztatzen duten legez eraturiko elkarten kasuan, baldin eta elkarte hauen helburua bada herritar guztiendako edo pobrezia edo gizarte bazterketak jotako gizarte talde zehatzendako etxebizitza eskubidea sustatzea

II. IDAZPURUA

ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOAK

I. KAPITULUA

ETXEBIZITZARI BURUZKO POLITIKA PUBLIKOAK PLANIFIKATZEA ETA PROGRAMATZEA

7. artikulua. Kontzeptua

1. Etxebizitza planifikatzeak eta programatzeak helburua dute Administrazio Publikoek herritarren etxebizitza beharrei eman beharreko erantzuna antolatzea.
2. Herritarren parte-hartzea izango da etxebizitza buruzko politika publikoak planifikatzeko eta programatzeko funtsezko osagarrietariko bat

8. artikulua. Etxebizitza planifikatzeko eta programatzeko tresnak

1. Etxebizitza planifikatzeko eta programatzeko tresnek zehaztu behar dute, dagokien eremuan, Lege honen helburua eta arautzen duten printzipioak nola aplikatu, ondokoen bidez: zuzentarauak, denbora baterako helburuak, proposamen operatiboak, kontrol adierazleak, iraunkortasun atalaseak, aholkuak eta zuzenean aplikatzeko arauak.
2. Etxebizitza planifikatzeko eta programatzeko tresnak, Lege honek xedatuak, honako hauek dira:
 - a) Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailea.
 - b) 4/1990 Legearen, Euskadiko Lurralde Antolamenduari buruzkoaren, 16. artikulua xedatutakoa garatuta, Etxebizitza Sustapenerako Lurzoria Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana Euskal Autonomia Erkidegoan.
 - c) Udalez gaindiko Etxebizitza Programak
 - d) Etxebizitzaren Toki Planak.

9. artikulua. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailea.

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailea da etxebizitza politiken estrategia planifikatzeko tresna. Urteetan zehar garatzen da, eta EAEko Administrazio Publiko guztiendako loteslea da. Etxebizitza politika planifikatzeko tresnak Etxebizitza Plan Zuzentzailean ezarritako estrategia eta helburuen mende daude (etxebizitzaren toki planak, tokiz gaindiko programak, Etxebizitza Sustapenerako Lurzoria Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana EAEn...).
2. Etxebizitza Plan Zuzentzaileak ondokoak izan behar ditu gutxienez:
 - a. Demografiari eta etxebizitza beharrei buruzko aurreikuspenak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak edo etxebizitza egoera kaskarrean dituen biztanleria segmentuak zein diren zehaztuta.
 - b. Gizarte politketara bideratzen den mota guztietako etxebizitzaren eskaintza-gaitasuna aztertzea.
 - c. Babes Publikoko Etxebizitzak eskaintzeko gaitasuna aztertzea, baita alokairuan

- emandako zuzkidura bititokiak eskaintzekoa ere, 2/2006 Legearen, Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 17. artikulua babespain eginak.
- d. Euskadiko Autonomia Erkidegoko etxebizitza politika publikoei buruzko ardatz estrategikoak, honako hauek bereziki nabarmenduta: alokairu publikoko politikak, birgaitzea, hutsik dauden etxebizitzak mugitzea eta hirigintzaren eta bizitegien iraunkortasuna.
 - e. Etxebizitza Plan Zuzentzailearen finantzatze publiko eta pribaturako konpromisoak.
 - f. Planaren zabaltzea zertan den eta hori ebaluatzeko mekanismoak eta kudeaketari buruzko kalitate adierazleak ezartzea.
3. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailea onartuko da Gobernu Kontseiluak Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topaguneari jakinarazi ondoren.
 4. Plana gauzatzean, herritarrek eta toki entitateek parte hartuko dute, horri lotutako interes publiko zein pribatuak ezagutzeko eta neurtzeko xedez.
 5. Etxebizitza Plan Zuzentzaileak koherentea izan beharko du Lege honen helburuarekin eta berau arautzen duten printzipioekin.

10. artikulua. Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana Euskal Autonomia Erkidegoan

1. Euskal Autonomia Erkidegoan Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana da Euskadiko lurralde osoan Lege honek aurreikusten dituen politikak aplikatzeko esparru orientatzailea. Halaber, Lurralde Antolamendurako Gidalerroen eta Lurraldearen Arloko Plan Partzialen aurreikuspenak garatzen ditu, planak bete daitezzen errazteko, eta egokitasun maila justifikatzen du berriaz.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak izan behar du etxebizitza arloan dauden beharren, defizitaren eta desoreken balioespen bat. Ildo horri jarraikiz, Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ondoko analisiak hartuko ditu:
 - a. Sortutako bizitegi-zoruaren kuantifikazioa, garapen berrietan erabil daitekeen horrena.
 - b. Gaur egun dauden Babes Publikoko Etxebizitzen kuantifikazioa, beren tipologia identifikatu, eskuratzeko erregimena eta lurraldean non dauden zehaztu.
 - c. Etxebizitzari buruzko demografia datu oinarritzkoak analizatzea, giza talde ahulei dagozkienak, bereziki.
 - d. Eraiki diren etxebizitzen multzoaren egoerari buruzko datuen analisia, baita multzo hau mantentzeko, hobetzeko edo ordezkatzeko beharrena ere. Infraetxeen egoerak eta prozesuak arreta bereziz aztertuko dira.
 - e. Etxebizitzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako Administrazio Publiko eskudunek politikak eta estrategiak eta beren emaitzak analizatuko dituzte.
3. Aipatutako analisiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak honako aurreikuspen hauek hartuko ditu, besteak beste:
 - a. Babes Publikoko Etxebizitzaren beharra finkatu hurrengo 16 urterako.
 - b. Zuzkidura bititokiaren beharrak zehaztea epe bererako.

- c. Ondokoak finkatzea: alde batetik, aipatutako etxebizitzak eta bizitokiak kokatzeko irizpideak, eta, bestalde, udal plangintzak kontuan hartu behar dituen parametroak eta estrategiak xede horretarako, lurzorua badagoela ziurtatze aldera.
 - d. Behar diren inbertsioak programatzea eta ekonomia-finantza ikerketa bat egitea, proposatutako esku-hartzeen bideragarritasuna adierazi eta aztertzen duena.
 - e. Irizpideak zehaztea, plana aplikatzeko jarraipena egiteko, baita plana aldatzeko eta berrikusteko ere.
4. Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana egiteko prozeduran ondokoek parte hartuko dute, tramitatzeko bere izapidetzetik eratorritako parte hartzeari kalterik egin gabe: planari lotutako eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako gainerako Sailak, herritarrak, toki entitateak eta, zehazkiago, Autonomia Erkidegoko Lurzorurako eta Hirigintzarako Topagunea. Aipatutakoa egingo da lotutako interes publikoak zein pribatuak ezagutzeko eta neurtzeko.

11. artikulua. Udalez gaindiko Etxebizitza Programak

1. Etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak programatu ditzake bizitegi-zoruari eta etxebizitzari dagozkien jarduketak, tokiz gaindiko interesei eragiten dietenak. Programatzea xede duten operazioak aldi jakin baterako aurreikusi behar dira, eta, ahal den guztietan, hitzarmenak sinatuko dira behar diren toki entitateekin.
2. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak, sozietate publikoen eta/edo partaidetzako sozietateen bidez, lursailak eros ditzake edozein lurzoru motatan, lurzoru eta etxebizitza ondare publikorako erreserbak eratzeko xedez, betiere hirigintza legediak arautzen duenarekin bat.
3. Artikulu honek aurreikusten dituen jarduketak gauzatuko dira eragina jasoko duten udalerriekin batera.

12. artikulua. Etxebizitzaren Toki Planak

1. Etxebizitza politikari dagokionez, Etxebizitzaren Toki Planek zehazten dituzte udalen politikak eta konpromisoak.
2. Honako hauek onartu behar dituzte Etxebizitzaren Toki Planak: 2.000 biztanletik gorako udalek eta, hiri lurzoruko gune jarraituak dituzten udalek, baldin eta 2.000 biztanle baino gehiago badituzte.
3. Etxebizitzaren Toki Planek ondokoak izan behar dituzte gutxienez:
 - a) Demografiari eta etxebizitza beharrari buruzko aurreikuspenak udalean. Identifikatu beharko dituzte etxebizitza eskuratzeko edo aldatzeko zailtasunak dituzten biztanleriaren segmentuak.
 - b) Babes Publikoko Etxebizitzak eskaintzeko Udalek duten gaitasuna aztertzea, baita alokairuan emandako zuzkidura bizitokiak ematekoa ere, 2/2006 Legearen, Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 17. artikulua babespean eginda. Halaber, ondokoak zehaztu beharko dira: kantitatea, modalitateak, eskuratzeko erregimena eta ekimen publikoa edo pribatua.
 - c) Etxebizitzaren udal politiken ardatz estrategikoak. Ondokoak kontuan hartuko

dira bereziki: alokairu publikoko politikak, birgaitzea, hutsik dauden etxebizitzak mugitzea eta hirigintzaren eta bizitegien iraunkortasuna.

- d) Alokairu babestuari eta libreari dagokionez, udalean etxebizitzak eskaintzeko betebeharrak nola bete behar diren, Lege honen 23. eta 30. artikuluek araututakoa betetze aldera.
 - e) Etxebizitzaren Toki Planaren finantzatze publiko eta pribaturako konpromisoak.
 - f) Planaren zabaltzea zertan den jakiteko eta hori ebaluatzeko mekanismoak, eta kudeaketari buruzko kalitate erakusleak ezartzea.
4. Etxebizitzaren Toki Planak izapidetzeak eta onartzeak bat egingo dute Toki Korporazioek funtzionatzeko eta ebazteko duten erregimenari buruz Toki Araubidearen gaineko legediak xedatzen duenarekin.
- a) Arestian aipatutakoaz gainera, izapidetzeak honako hauek jaso beharko ditu: jendaurrean jartzeko epe bat; herritarrek parte hartzeko programa bat garatzea; 20.000 biztanletik gorako udalen kasuan, Udal Plangintzarako Kontseilu Aholkulariaren txostena —2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 109. artikulua araututakoa—; eta Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunearen txostena, baldin eta kasu honetan udalek 3.000 biztanle baino gehiago badute.
 - b) Kasu guztietan, Udalaren osoko bilkurak onartu beharko du.
5. Etxebizitzaren Toki Planek bat etorri beharko dute honako hauekin: Lege honen helburuarekin eta printzipio zuzentzaileekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Plan Zuzentzailearen ardatz estrategikoekin (Lege honen 9.2. d) artikulua aipatzen dituenak).

II. KAPITULUA EUSKADIKO HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZARAKO TOPAGUNEA

13. Artikulua. Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea

1. Lege honen ondorioetarako, Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea da ondokoen erakunde aholkularia, etxebizitza arloari dagokionez: Eusko Jaurlaritza, Udalak, Foru Aldundiak eta herritarrak. Topagunea eratu zen 2/2006 Legearen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 11. Xedapen Gehigarriaren bidez.
2. Eusko Jaurlaritzan etxebizitza arloan eskumenak dituen Sailari atxikita dago, eta ondoko eginkizunak dagozkie:
 - a) Eusko Jaurlaritzaren eta udalen etxebizitza planen berri izatea, udal hauek 3.000 biztanle baino gehiago badituzte.
 - b) Eusko Jaurlaritzari eta udalei etxebizitza arloari buruz egoki jotzen dituen proposamenak egitea.
 - c) Txostenak eta irizpenak egitea ondokoek hala eskatzen badiote: etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailburuak, alkateak, udal taldeek —3.000 biztanle baino gehiago badituzte— eta Topaguneko gainerako kideek.
 - d) etxebizitzari buruzko indarreko legediak egokitzen dizkion beste edozein eginkizun.
3. Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunearen osaketa erregelamendu bidez zehaztuko da. Topagunean ondokoek izan behar dute ordezkaritza: etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailak, Foru Aldundiek eta Udalek, gazteek,

kontsumitzaileek, eta etxebizitzaren sektoreari atxikitako hainbat taldek (profesionalak, gizarte taldeak, sindikatuak, ekologistak eta enpresariak).

4. Euskadiko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topaguneko lehendakaria da etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailburua.
5. Gizarte ordezkariaren batek hala eskatuta, hirugarren independenteek egindako txostenak eta azterketak eskatu ahalko dira.
6. Etxebizitza Plan Zuzentzailea zehazteko, Topaguneak hainbat prozesu garatuko ditu, herritarrek informazioa jaso eta parte har dezaten.

III. KAPITULUA ETXEBIZITZAREN EUSKAL ZERBITZU PUBLIKOA

14. artikulua. Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa

1. Ondokoek osatzen dute Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa: alde batetik, Lege honen helburuaren eta printzipio zuzentzaileen mende dauden Euskal Administrazio Publikoen politikak eta, bestalde, funtzionalki hauei lotutako giza eta material baliabideak
2. Besteak beste, ondokoek osatzen dute Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa:
 - a) Etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saila.
 - b) Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebide, Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun eta Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa.
 - c) Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoak zein partaidetzako sozietateak, ondokoetan aritzen direnak: etxebizitza, lurzorua, alokairua, birgaitzea, hutsik dauden etxebizitzak mugitzea edo gai hauetan interes publikoko bestelako xedeak.
 - d) Euskal udaletako etxebizitza, hirigintza edo antzeko zerbitzuak.
 - e) Udal sozietate publikoak zein partaidetzako sozietateak, ondokoetan aritzen direnak: etxebizitza, lurzorua, alokairua, birgaitzea, hutsik dauden etxebizitzak mugitzea edo gai hauetan interes publikoko bestelako xedeak.
 - f) Zerbitzuak edo pertsona juridiko publikoak zein pribatuak, artikulua honetan agertzen diren horien eginkizunak etorkizunean ordezkatu edo aitzinatuko dituztenak.

15. artikulua. Funtzionamendua

Funtzionalki, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoaren baliabide guztiak atxikita daude Lege honen helburuak eta printzipio zuzentzaileak lortzeari.

16. artikulua. Lankidetzak

Eusko Jaurlaritzak eta euskal udalek lankidetzan aritu beharko dute Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoa kudeatzeko lanetan, lege honen helburuak eta printzipio zuzentzaileak gauzatzeko, hiri elkartasunari eta gizarte kohesioari dagozkien gai guztietan bereziki.

IV. KAPITULUA

EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN BALIABIDEAK, ETXEBIZITZAREN ZERBITZU PUBLIKOARI ATXIKIAK

1. atala: PRINTZIO OROKORRAK

17. artikulua.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ondoko baliabideak atxiki dizkio Etxebizitzaren Euskal Zerbitzu Publikoari:

- a) Etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailaren baliabideak.
- b) Etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailari atxikitako sozietate publikoak zein partaidetzako sozietateak.

2. atala:

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO EUSKAL ZERBITZUA – ETXEBIDE

18. artikulua. Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua — Etxebide

1. Zerbitzu honen helburua da euskal herritarrek egiten dituzten eskaerak jasotzea, Babes Publikoko Etxebizitzari dagokionez.
2. Erregelamendu bidez, Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu behar diren arauak Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebide antolatze eta funtzionatzeko.

19. artikulua. Sartzeko baldintzak

1. Pertsona fisikoak edo bizikidetz-unitateak ondoko baldintzak bete beharko ditu Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebiden sartzeko:
 - a) Babes Publikoko Etxebizitzaren esleipena jasoko dutenen batek edo bestek Euskadiko Autonomia Erkidegoko udal batean bizi direla behar bezala egiaztatu beharko dute, Zuzenbidean onartutako baliabideen bidez.
 - b) Izena emateko eskaera aurkeztean, bizikidetz-unitateko kide guzti-guztiek ez dute etxebizitza baten jabetza, jabetza soila, azalera eskubidea edo usufruktua izan behar.
2. Erregelamendu bidez, Eusko Jaurlaritzak garatu ahalko ditu Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebiden sartzeko betebeharrak betetzeko baldintzak.

20. artikulua. Unibertsaltasun printzipioa Babes Publikoko Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan - Etxebiden sartzeko

1. Herritarrak Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebiden eskatzaile gisa izena ematen badu —betiere gainerako baldintzak betetzen baditu—, eskubidea izango du Babes Publikoko Etxebizitzak esleitzeko prozesu guztietan parte hartzeko, baita etxebizitza arloan beste edozein prestazio publiko izateko eskubidea ere. Berdin da, ondorio horietarako, etxebizitzak, zerbitzuak edo prestazioak Eusko Jaurlaritzak, udalek, sustatzaile pribatuek edo beste edozein agentek sustatutakoak badira.
2. Babes Publikoko Etxebizitza esleitzeko prozedura batean inor ezin izango da behartu beste edozein erregistro publiko zein pribatutan izena ematera, baldin eta Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua – Etxebiden izena eman badu.

3. Izen-ematea eskatzen duen herritar orok ondoko biak adierazi beharko dituzte: beren nortasuna eta eskatu dituzten zerbitzu eta prestazio publikoen izaeraren ezaugarriak, ahalik eta osoena, Administrazio Publikoak aipatutako eskakizunez behar bezala ardura daitezen.

3. atala: BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ERREGISTROA

21. artikulua. Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa

1. Ondokoak dira erregistro honen helburuak:
 - a. Bertan sartzea Babes Publikoko Etxebizitza eta zuzkidura bizitoki guztiak, baita beren titularrak eta erregelamendu bidez zehazten diren bestelako gorabehera guztiak ere.
 - b. Babes Publikoko Etxebizitzaren multzoari dagokionez, osorik mantentzeko, erabilpena kontrolatzeko, ikuskatzeko, eta zigortzeko eta besterentzeko duen ahalmena bermatzea.
2. Aurreko paragrafoan aipatutako helburuak bermatze aldera:
 - a. Eusko Jaurlaritzak berak zuzenki edo bere partaidetzako sozietateek eta sustatzaile pribatuek sustatutako Babes Publikoko Etxebizitza eta zuzkidura bizitoki guztiak inskribatuko ditu.
 - b. Nahitaez, udalek Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroan inskribatuko dituzte udalek araututako modalitateen babesean sustatzen dituzten Babes Publikoko Etxebizitza guztiak. Betebehar bera izango dute udalarenak diren zuzkidura bizitokien kasuan.
3. Erregelamendu bidez, Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu Babes Publikoko Etxebizitzen Erregistroa antolatzeko eta funtzionatzeko arauak.

4. atala: JABETZA HORIZONTALAREN ETA HIRI ERRENTAMENDUEN ARLOAN BITARTEKOTZAKO ETA ADISKIDETZEKO ZERBITZU PUBLIKOA – BIZILAGUN

22. artikulua. Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun

1. Ondokoak dira Zerbitzu honen helburuak:
 - a. Etxebizitza Libreko hiri errentamenduaren eta jabetza horizontalaren arloko gatazkak direla eta, bitartekaritza eta partikularren arteko adiskidetzeta.
 - b. Etxebizitza Libreka salerosi, alokatu eta erabiltzeari dagokienez, herritarrei aholkua eta bitartekaritza ematea.
 - c. Birgaitzeari ematen zaizkion laguntza publikoak eta etxebizitzaren arloko Sail eskudunak ematen dituen antzeko laguntzak kudeatzea, baita herritarrei hauen gaineko informazioa ematea ere.
2. Erregelamendu bidez, Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu Jabetza horizontalaren eta hiri errentamenduen arloan bitartekotzako eta adiskidetzeko Zerbitzu Publikoa – Bizilagun zerbitzua antolatzeko arauak eta funtzionamendua.

V. KAPITULUA

HIRI ELKARTASUNA ETA GIZARTE KOHESIOA

23. artikulua. Gizarte kohesioaren helburua

1. Lege honen ondorioetarako, gizarte kohesiotzat hartuko da euskal gizartearen zerbitzuan etengabe dagoen alokairu publikoko etxebizitzaren multzoa, herritar guztiek etxebizitza izateko duten konstituzio eskubidea asetzeko moduko funts nahikoa eta egokia izango duena.
2. Era berean, gizarte kohesiotzat hartuko da Babes Publikoko Etxebizitzak eraikitze eta esleitzeko baldintzen multzoa, espazio bereiztea saihestuko duten horiena. Horrek ekarri behar du, gainera, bizitegitarako erabilera eta bestelako hirigintza erabilerak nahastea, bai hirigintza garapen berrietan, bai hirigintza berriztatze prozesuetan. Halaber, etxebizitza herrigune batean kokatuta baldin badago, gizarte kohesioeko baldintza da ingurune urbanizatua, iritsi-erraza eta hornitua izatea, lurralde eta hirigintza legedian eta plangintzan ezarritako edukiekin eta baldintzekin bat. Ildo beretik, aipatutako inguruneak ahalbidetu behar ditu mugikortasuna, gizarte eta lan harremanak eta oinarritzko zerbitzuak erabili ahal izatea, konstituzio eta estatutuko gainerako eskubideen eraginkortasuna bermatzeko xedez.
3. Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurralde osoan etxebizitza duina eskuratzeko eskubidea gauzatzeko:
 - a. Lau urteko epean, etxebizitza arloan eskumenak dituzten euskal Administrazio Publikoen multzoak izan beharko ditu, gutxienez, 40.000 etxebizitza eta alokairu babestuko erregimeneko bizitoki.
 - b. Zortzi urteko epean, 3.000 biztanletik goitik dituzten udalerriek gutxienezko multzo bat eduki eta mantendu beharko dute etxebizitza babestuak alokatzeko. Multzoak izan beharko du, gutxienez, aipatutako udalerrian dauden etxebizitzaren %10, udal bakoitzaren egoera kontuan hartuta eta erregelamendu bidez ezartzen den egutegiarekin bat.
4. Artikulu honek xedatzen dituen ondorioetarako, alokairu erregimeneko etxebizitza babestutzat jotzen dira ondokoetan daudenak: babesteko edozein modalitatearen mende —Lege honek xedatzen dituenak—, sektorea arautzen duen legedian eta legedi hau garatzeko dauden xedapenetan, baldin eta etxebizitza plangintzetan eta programetan agertzen badira.

24. artikulua. Erakundeen arteko lankidetzaren eta gizarte kohesioa

1. Erakunde publiko guztiak lankidetzan arituko dira beren politikak gauzatzeko, eta behar diren jarduketak adostuko dituzte gizarte kohesioaren helburua lortzeko.
2. Erakunde publiko guztiek elkarrekin dute gizarte kohesiorako helburua betetzeko ardura, udalek Etxebizitzaren Udal Plangintzak egiteko duten betebeharrari eta alokairuko etxebizitzaren gutxienezko eskaintzaren aurreikuspenari kalterik egin gabe.

25. artikulua. Etxebizitzaren Udal Planak eta Gizarte kohesioa

1. Etxebizitzaren Udal Planen helburua da, besteak beste, zehaztea udal bakoitzean alokairu babestuko eta libreko etxebizitzaren eskaintzari dagozkion betebeharrak nola bete behar diren.
2. Etxebizitzaren Udal Planek aurreikusi eta bermatu beharko dute beren udaletan plangintza orokor bakoitzaren babesean eraikitako Babes Publikoko

Etxebizitzen —plangintza orokor bakoitzaren babespean daudenak— %50 eskain daitezten alokairu babestuaren erregimenean eta etengabe. Alokairu etengabeko baldintza adieraziko da kalifikazio ekitaldian, eta Jabetza-erregistroan sartu ahalko da.

3. Halaber, etxebizitzaren Udal Planek aurreikusi eta bermatu beharko dute beren udaletan plangintza orokor bakoitzaren babesean eraikitako Etxebizitza Librean —plangintza orokor bakoitzaren babespean daudenak— %15 eskain daitezten alokairu babestuaren erregimenean eta etengabe. Alokairu etengabeko baldintza adieraziko da lizentzia emateko ekitaldian, eta Jabetza-erregistroan sartu ahalko da.
4. Artikulu honek adierazten dituen betebeharrak gauzatu ahalko dira udal barruti osoan, eta Etxebizitzaren Udal Planetan ezartzen diren moduan eta epeetan, Lege honek xedatutakoari kalterik egin gabe.

26. artikulua. Zuzkidura bizitokiak eta Gizarte Kohesioa

Plangintza orokorrean, zuzkidura bizitokiaren aurreikuspenak ezin izango du konpentsatu artikulu honek xedatzen dituen betebeharrak.

27. artikulua. Etxebizitzaren Udal Planak formulatzea eta izapidetzea

1. Etxebizitzaren Udal Planak egon behar du nahitaez udal plan orokor guztietan, baldin eta hirigintza legediak udal hauek behartzen baditu Babes Publikoko Etxebizitzari buruzko estandarrak eta gutxieneko zenbatekoak aplikatzera.
2. Alde batetik, Etxebizitzaren Udal Planak formulatzeak, izapidetzeak eta onartzeak jarraitu beharreko izapideak eta epeak, eta, bestalde, plangintza orokorraren tresnarenak —barne hartzen dituena— berdinak izango dira.
3. Egitera behartuta dauden udalek egin beharko dute alokairu babestuko eta libreko etxebizitzaren multzoa osatzen duten etxebizitzaren errolda, ezartzen den metodologiari jarraikiz. Errolda honek eguneratuta egon beharko du etengabe, gizarte kohesioaren helburua betetzen ote den egiaztatu ahal izateko.

28. artikulua. Hiri Elkartasunaren helburua

1. Lege honen ondorioetarako, hiri elkartasuna izango da erakunde publiko guztiek elkarri laguntza eta baliabideak ematea, gizarte kohesioaren helburuak lortzeko.
2. Udalek Eusko Jaurlaritzarekin edo bere sozietate publikoekin edo partaidetzako sozietateekin hitzarmenak sinatu ahalko dituzte Babes Publikoko alokairuko Etxebizitzaren udal multzo osoa edo zati bat kudeatzeko. Lege honek zehaztutakoak dira horiek.

29. artikulua. Lurzoruaren Ondare Publikoak eta Hiri Elkartasuna

1. Hiri elkartasuna aplikatzeko betebeharra dela eta, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak beren bizitegi-lurzoru ondarea erabiliko dute beren Etxebizitzaren Udal Planen aurreikuspenak betetzeko, gizarte kohesioaren helburuak betetzeari dagokionez bereziki.
2. Lurzoruaren Udal Ondarearen zati den bizitegi-lurzorua erabiliko da ondoko bi hauek betetzeko: gizarte kohesioaren helburua eta Etxebizitzaren beren Udal Planak.

30. Artikulua. Hiri Elkartasunerako eta Gizarte Kohesiorako Fondoa

1. Eusko Jaurlaritzak Hiri Elkartasunerako ekonomia Fondo bat sortuko du berariaz. Etxebizitza arloan eskumenak dituen Sailak kudeatuko du. Fondoaren helburua izango da udalei laguntzea, baldin eta 23. artikuluan zehaztutako helburuak betetzeko zailtasun bereziak dituztela egiaztatzen badute.
2. Hiri Elkartasunerako Fondoa eratzeko erabiliko diren baliabideak izango dira etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailak bere aurrekontuetatik hornitzea erabakiko dituenak.
3. Halaber, Fondoa eratuko dute Lege honek 168., 169. eta 170. artikuluetan xedatutako zehapenek sortzen dituzten kantitateek.

VI. KAPITULUA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA

31. artikulua. Eskumena

1. Etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sail eskudunaren estatistika organoa da etxebizitzari buruzko bere estatistikak egiteko —Euskal Estatistika Planean eta EUSTATen Urteko Estatistika Programetan ez daudenak—, baita Sailaren Estatistika Plana egiteko ere.
2. 4/1986 Legearen, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoaren, 33. artikuluan xedatutako eskumenen ondorioetarako, eskumenak dituen Sailaren estatistika organoak eskatu ahalko dizkie udalei, sustatzaile pribatuei eta Etxebizitza Babestuaren merkatuko gainerako agenteei egoki jotzen dituen datuak etxebizitzari buruzko estatistikak egiteko.
3. Udalek, sustatzaile pribatuek eta Babes Publikoko Etxebizitzako gainerako agenteek aipatutako informazio estatistikoa nahitaez eman behar diete etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailari.
4. Aipatutako araua urratuz gero, 4/1986 Legearen, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoaren, 24. eta 25. artikuluek xedatutako zehapen erregimena aplikatu ahalko zaie.

32. artikulua. Xedea

1. Etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak egindako estatistiken helburu nagusia izango da Euskadiko Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren multzo babestua nolakoa den zehaztea, baita aipatutako multzoa erabiltzen duten herritarren ezaugarriak ere.
2. Halaber, etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak estatistikak egingo ditu etxebizitza orokorren multzoa eta merkatua nolakoak diren jakiteko, Babes Publikoko Etxebizitzara mugatu gabe.
3. Estatistika informazio hori guztia egongo da Administrazio Publikoen eta etxebizitzaren merkatuko agenteen zerbitzuan, erabakiak har ditzaten laguntzeko, etxebizitzari buruzko politika publikoaren gaitan eta etxebizitzaren merkatuaren gaitan, hurrenez hurren.

II. IDAZPURUA ETXEBIZITZA BABESTUA

I. KAPITULUA ETXEBIZITZA BABESTUEN ERREGIMENA

1. ATALA. Definizioa eta ezaugarriak

33. artikulua. Definizioa.

Babes Publikoko Etxebizitzak izango dira Lege honetan eta bera garatzeko araudian xedatzen diren ondokoei buruzko baldintzak betetzen dituztenak: azalera, biziegokitasuna, helburua, erabilera, kalitatea eta gehieneko prezioa; horrela zehaztuta dituenak etxebizitza arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailak edo udalek, udal erregelamenduek araututako modalitateen kasuan.

34. artikulua. Erabilera eta helburua.

Babes Publikoko Etxebizitzak erabili beharko dira bere titularren ohiko bizileku iraunkorra izateko, eta okupatu beharko dira araudiek xedatzen dituzten epe eta baldintzei jarraikiz.

35. artikulua – Prezioa.

1. Babes Publikoko Etxebizitzek gehieneko prezioa izango dute saltzeko eta alokatzeko.
2. Erregelamendu bidez, aipatutako gehieneko prezioak kalkulatzeko, balioa handitzeko eta balioa galtzeko zehazteko irizpideak finkatuko dira, eta, nolana ere, ondoko printzipioak kontuan hartu ahalko dituzte

a) Saltzeko:

- Babes Publikoko Etxebizitzen bukaerako prezioa zehazteko, Erregimen Orokorreko BOEn oinarritzko prezioa hartuko da oinarri, eta Babes Publikoko Etxebizitzen gainerako modalitateen bukaerako prezioa murriztu edo handitu egingo da.
- Erregimen Orokorreko BOEren oinarritzko prezioak, baita Babes Publikoko Etxebizitzen gainerako modalitateenak ere, etxebizitzaren azalera erabilgarria ez ezik, kontuan hartuko ditu etxebizitzen beste alderdi batzuk ere, ondokoei lotuak: kokapen geografikoa, eraikuntzaren kalitatea, funtzionaltasuna eta ingurumen iraunkortasuna.
- aurrekoari kalterik egin gabe, salgai dauden Babes Publikoko Etxebizitzen bukaerako prezioa zehazteko, lehentasunez kontuan hartu beharko da etxebizitzen erabilera balioa horiek erabiltzen dituzten pertsonentzat.
- **alokairu babestuan dauden Babes Publikoko Etxebizitzen sustapenak saltzen direnean, etorkizunean izango diren salmenta prezioak** handiagoak izan ahalko dira une oro indarrean dagoen moduluarenak baino, baldin eta etxebizitza horiek alokairu erregimen babestuan 15 urte gutxienez irauten badute; erregelamendu bidez garatuko dira xehetasun horiek, alokairuan dauden Babes Publikoko Etxebizitzen salmenta prezioei dagokienez.

b) Alokatzeko

- Babes Publikoko Etxebizitzen modalitateen alokairuen prezioak kontuan hartu ahalko ditu maizterren diru sarrerak —bereizte positiboa izango dute errenta txikienak dituzten maizterrek—, eta, bestalde, etxebizitzen ezaugarriak. Ezin izango dute inolaz ere gainditu 6.5. artikuluan zehazten den kopurua.

36. artikulua. Babes Publikoko Etxebizitzarako lurzorua.

1. Hirigintza antolamenduak Babes Publikoko Etxebizitzarako kalifikatu dituen lurzoruek, hurrengo artikuluan agertzen diren edozein modalitatetakoek, lurzoru urbanizatuaren eragin-kostuaren gehieneko balioak —dagozkien araudi babesleek xedatuak— errespetatu beharko dituzte
2. Halaber, horrela zehaztu den eragin-kostuaren gehieneko balioa izango da prezioaren gehieneko muga bizitegien hirigintza-eraikuntza babestuak dituzten partzelen kostu bidezko eskualdaketetan. Prezio handiena mugatzeko baldintza hau sartu ahalko da aipatutako eskualdaketak islatzen diren eskritura publikoetan, gaiari buruzko indarreko legediak xedatutakoarekin bat.

2. ATALA. Motak

37. artikulua. Babes Publikoko Etxebizitza motak.

- 1) Babes Publikoko Etxebizitzak honako mota honetakoak izan ahalko dira:
 - a) Babes Publikoko Etxebizitzak, Erregimen Berezikoak, edo Gizarte Laguntzako Etxebizitzak
 - b) Babes Publikoko Etxebizitzak, Erregimen Orokorrekoak
 - c) Erregimen Tasatuko Etxebizitzak, bi motatakoak:
 - Autonomia Erkidegokoak
 - Udalekoak. Aldi berean, hauek beste bi motatakoak izan daitezke:
 - Erregimen bereziko Udal Etxebizitza Tasatua
 - Erregimen orokorreko edo erregimen itunduko Udal Etxebizitza Tasatua
- 2) Erregelamendu bidez, Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu Babes Publikoko Etxebizitzen modalitate desberdinen oinarritzko ezaugarriak, eta, bestalde, gutxieneko baldintza komun batzuk, erosteko edo alokatzeko Babes Publikoko Etxebizitzen modalitate guztiek errespetatu beharko dituztenak, betiere 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen, esparruaren barnean.
- 3) Ordenantzen bidez eta 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen, esparruaren barnean, udalek zehaztuko dituzte Babes Publikoko Etxebizitzen modalitateen oinarritzko ezaugarriak, eta, bestalde, bizikidetz-unitateek izan beharko dituzten gutxieneko eta gehieneko diru sarrerak, udalek araututako Babes Publikoko Etxebizitzen modalitate bakoitza eskuratu ahal izateko, bai alokatzeko, bai erosteko.
- 4) Arau zehatzik ezean, babes publikoko erregimena ezarri ahalko da zuzkidura bizitokietan egiten den bezala, horien artean, alokairuko apartamentuak, 2/2006 Legearen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen, legearen babesean eginak.

II. KAPITULUA KALIFIKAZIOA

38. artikulua. Kalifikazioa.

Kalifikazioa administrazio prozedura da, eta, horren bidez, banan-banan edo batera egindako sustapen gisa, xedatzen da etxebizitza bat Babes Publikoko Etxebizitza dela, hortik etortzen diren lege ondorio guztiak kontuan hartuta.

39. artikulua. Kalifikazioa ematea.

1. Etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailsa da behin-behineko edota behin betiko kalifikazioa onartzeko edo uko egiteko organo eskuduna, Lege honen 37. artikuluan agertzen diren autonomia erkidegoko Etxebizitza Babestuko modalitateei dagokienez.
2. Udalek eskumena dute behin-behineko edota behin betiko kalifikazioa onartzeko edo uko egiteko, Lege honen 37. artikuluan agertzen diren Etxebizitza Babestuen udal modalitateei dagokienez. Ondorio hauetarako, sustatzaileari eraikitze oniritzia emango dion udal baimenak izaera eta eduki bikoitza izango du, ondoko lege-betekizun hauek bete behar direlako: hirigintza lizentziarenak eta, bestalde, Babes Publikoko Etxebizitza kalifikatzeko lege-betekizunak, 40. artikuluenak eta hurrengoak, batez ere.
3. Etxebizitza arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailsak eta udalek bi hilabeteko epea izango dute ebazpena emateko, aipatutako epeak izan ditzakeen etenaldiei kalterik egin gabe, baldin eta konpon daitezkeen akatsen jakinarazpenak eragin baditu etenaldi horiek. Hala ere, organo berberak ebatzi ahalko du aipatutako epea bi hilabete luzatzea, baldin eta, zerbitzu arazoak direla eta, hasierako epean eskaera aztertzetik ez bada. Bi hilabeteko epea bukatuta, ebazpenik ematen ez bada, kalifikazioa eman dela ulertuko da.

40. artikulua. Kalifikazioaren gutxieneko edukia.

Kalifikazioan honako hauek agertu beharko dute:

- a) Sustatzailearen nortasuna, ondokoak islatuko dituena: izena edo sozietatearen izena, identifikazio fiskala eta helbidea. Sustatzaileak ondokoetako batean egon beharko du kokatuta:
 - Eusko Jaurlaritzaren, bere sozietateak edo erakunde instrumentalak
 - Udala, bere sozietateak edo erakunde instrumentalak
 - Sustatzaile pribatuak
 - Kooperatibak
 - Eusko Jaurlaritzarekin, bere sozietateekin edo erakunde instrumentalekin hitzarmena duen erakunde pribatua
 - Udalarekin, bere sozietateekin edo erakunde instrumentalekin hitzarmena duen erakunde pribatua
- b) Etxebizitza mota, Lege honen 37. artikulua xedatzen duen sailkapenaren arabera.
- c) Sustapenaren etxebizitzaren kopura eta beren azalera erabilgarria, eta garajeak edo trastelekuak dauden ala ez. Garajeak eta trastelekuak loturik dauden zehaztu beharko da, baita beren azalera erabilgarria ere.
- d) Etxebizitzak eskuratzeko erregimena eta hasierako erabilpena.
- e) Prezioa zehazteko izan diren irizpideak, Lege honen 35. artikulua jasotzen dituen bezala.
- f) Etxebizitzaren eta elementu lotuen salmenta edota errenta prezioa. Prezio hau ezin izango da sustapen bakoitzari aplikatu dakioken gehieneko prezioa baino handiagoa izan, Lege honen 35. artikulua xedatzen duenarekin bat.
- g) Kalifikazioaren epeak mugarik ez duela berariaz esatea, Lege honen 43. artikulua xedatutakoarekin bat.

Aurreko artikulua xedatutakoaren ondorioz, Babes Publikoko Etxebizitza gisako kalifikazioak honako mota honetakoak izan ahalko dira:

a) Sustatzailearen arabera

- Gobernuaren Babes Publikoko Etxebizitza
- Udalaren Babes Publikoko Etxebizitza
- Babes Publikoko Etxebizitza pribatua
- Babes Publikoko Etxebizitza kooperatiboa
- Babes Publikoko Etxebizitza pribatua, Eusko Jaurlaritzarekin itundua
- Babes Publikoko Etxebizitza pribatua, udal batekin itundua
- Bestelako eragileen Babes Publikoko Etxebizitza

b) Babes Publikoko Etxebizitzen modalitatearen arabera:

- Babes Publikoko Etxebizitzak, Erregimen Berezikoak, edo Gizarte Laguntzako Etxebizitzak
- Babes Publikoko Etxebizitzak, Erregimen Orokorrekoak
- Babes Publikoko Etxebizitza, Erregimen Tasatukoa
 - Autonomia Erkidegokoak
 - Udalekoak
 - erregimen berezikoak
 - erregimen orokorrekoak edo itunduak
- Babes Publikoko Etxebizitzaren araudia modu berean aplikatzen bazaie, zuzkidura izaerako bizitokiak.

c) Eskuratzeko erregimenaren arabera:

- Alokairuan
- Azalera-eskubidean
- Jabetzan
- Kolokan
- Eskuratzeko bestelako erregimenak.

42. artikulua. Biziegokitasuna.

3. Babes Publikoko Etxebizitzek bete beharko dituzte eskatzen diren biziegokitasun baldintza guztiak, oro har edozein etxebizitzatarako eskatzen direnak gehi Babes Publikoko Etxebizitzetarako eskatzen direnak.
4. Bi baldintza mota hauek Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu, erregelamendu bidez.

43. artikulua. Babes Publikoko Etxebizitzen erregimenaren iraupena.

1. Lege honek aurreikusitakoarekin bat, kalifikazioaren xede diren etxebizitzek eta sustapena bakoitzeko gainerako elementuek etengabe mantenduko dute Babes Publikoko Etxebizitza gisa duten izaera, eta, beraz, aipatutako erregimenari lotuta egongo dira.
2. Babes Publikoko Etxebizitza gisa kalifikatutako etxebizitzak ezin izango dira geroago deskalifikatu, edozein modalitate, sustatzaile edo edukitza-erregimen izanik ere.

III. KAPITULUA EDUKITZEKO ETA ESKURATZEKO ERREGIMENA

1. ATALA. Eskuratzeko modalitateak

44. artikulua. Modalitateak.

Babes Publikoko Etxebizitzak eskuratu eta gozatu ahalko dira ondoko tituluren baten arabera:

- a) Alokairua.
- b) Titulartasuna azalera-eskubidean.
- c) Jabetza osoa.
- d) Legedi zibilak aurreikusten dituen bestelako edozein titulu.

45. artikulua. Alokairua.

1. Babes Publikoko Etxebizitzak alokairuan emango dira kalifikazioak erabiltzeko eta edukitzeko erregimen hau xedatzen duenean.
2. Administrazio Publikoek alokatzeko dituzten etxebizitzaren multzoen erabilpena esleitu beharko dute Lege honen 23. eta 30. artikuluen bitartekoek jasotzen dituzten betebeharrekin bat.

46. artikulua. Azalera-eskubidea.

1. Azalera-eskubide erregimenean, etxebizitza baten eta honi lotutako eranskinen titularra etxebizitzaren titularra izango da, baita etxebizitzaren sustapena eraiki den lurzorutik bereizitako eranskinena ere. Hala ere, lurzoru honek bere titularrarena izaten jarraituko du.
2. Azalera-eskubide erregimeneko etxebizitzak erosten dira 75 urteko eperako, gehienez. Aipatutako epea agortuta, lurzoruaren jabeak etxebizitzaren jabetza osoa berreskuratuko du, baita sustapenaren gainerako elementuena ere. Azalera-eskubidea berriz eratu ahalko da egoki jotzen den aldi guztietan.
3. Azalera-eskubidearen erregimeneko Babes Publikoko Etxebizitzak eskualdatuko dira dagokion sustapenaren kalifikazioak erregimen hau xedatzen duenean.
4. Erregelamendu bidez, izan daitekeen azalera-eskubidearen epea zabaldu ahalko da, baldin eta estatuko lege esparruan aldaketak badira.
5. Azalera-eskubideari dagokionez, Administrazio Publikoek beren jarduketetan errespetatuko dute 2/2006 Legearen Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen, 128. eta 130. bitarteko artikuluek xedatutakoa.

47. artikulua. Jabetza osoa.

1. Babes Publikoko Etxebizitzak jabetza osoaren erregimenean emango dira behin betiko kalifikazioak erabiltzeko eta edukitzeko erregimen hau xedatzen duenean.
2. Babes Publikoko Etxebizitzak jabetza osoan erosteak erabiltze eta eskuratzeko mugak izango ditu edozein kasutan, Babes Publikoko Etxebizitza erregimenari lotuta izateagatik dituenak, alegia, Lege honek eta garatzeko bere araudiak xedatzen duenarekin bat.

48. Beste titulu batzuk.

1. Salbuespen gisa, Babes Publikoko Etxebizitza bat eta lotutako eranskinak erabiltzea eta gozatzea eskuratu ahalko da aipatutako 45. eta 47. bitarteko artikuluek xedatutako erregimena ez den beste batean, kolokako erregimenean, batez ere.

2. Salbuetsitako erregimen horiek banan-banan soilik aplikatu ahalko zaizkie Babes Publikoko Etxebizitzari, inola ere ez sustapen osoei. Halaber, ezin izango dira sartu sustapen baten kalifikazioan, nahiz eta sustapen hori behin-behinekoa edo behin betikoa izan.
3. Administrazio Publiko batek pertsona fisiko bati ematen badio, aipatutako erregimena behin-behinekoa izango da beti, eta kontuan hartuko ditu etxebizitza alokairuan, azalera-eskubidean edo jabetzan eskuratzea aldi batez eragozten duten gorabehera bereziak, eta, era berean, beren jatorria izango da Euskadiko Administrazio Publikoen gizarte politikak.
4. Administrazio Publiko batek pertsona juridiko bati uzten badio, aipatutako erregimen horiek lotuta egon beharko dute Administrazio Publikoen gizarte politikekin bat egiten duen programa batekin.

49. artikulua

1. Euskal Administrazio Publikoek, baita bere sozietate publikoek edo erakunde instrumentalek ere, Babes Publikoko Etxebizitzak eman ahalko dituzte soilik etxebizitza hauek etortzen badira alokairu edo azalera-eskubide erregimenean dauden beren Lurzoru Ondare Publikoetatik.
2. Tratamendu bera izango du entitate pribatu batek sustatutako Babes Publikoko Etxebizitzak, baldin eta entitate horrek lurzoru erosteko edo eraikitzeko laguntza publikoak jaso baditu. Kasu honetan, diru laguntza eman duen Administrazio Publikoak lurzoruaren jabetza mantenduko du, baita lurzoru horretan eraikitako etxebizitzaren eta gainerako elementuen erabilpena berreskuratzeko eskubidea ere.

50. artikulua. Jabetzen mugak, Babes Publikoko Etxebizitza baten azalera-eskubidea duten jabeenak edo titularrenak.

1. Babes Publikoko Etxebizitza baten titularrek —bai jabetzan, bai azalera-eskubidean— ezin izango dute biziaren artean erosi Estatuko edozein lekutan dagoen Etxebizitza Libre bat, baldin eta lehenago Babes Publikoko Etxebizitza bat eskuratu badute.
2. Aurreko atalean deskribatutako Etxebizitza Libre bat erosten bada, Babes Publikoko Etxebizitza itzuli beharko zaio Euskadiko Administrazio Orokorrari, aipatutako etxebizitza berriz ere esleitzeko Eskatzaileen Erregistroa - Etxebiden izena eman duen beste eskatzaile bati.
3. Erregelamendu bidez garatuko da Babes Publikoko Etxebizitza Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari itzultzeko prozedura. Erregelamendu bidezko garapen horrek zabaldu ahalko du artikuluko honen 1. zenbakiak aipatzen duen geografia esparrua.

2. ATALA. Eskuratzeko baldintzak

51. artikulua. Pertsona onuradunak.

1. Pertsona fisikoek Babes Publikoko Etxebizitza eskuratzeko, Lege honetan ageri diren betebeharrak bete beharko dira. Horiek Legeak eta garatzeko araudiak ezartzen duten moduaren arabera eta behar bezala egiaztatu beharko dira.

2. Pertsona juridikoei Babes Publikoko Etxebizitza eskuratzea soilik izango da posible Lege honen 48. artikulua finkatzen dituen baldintzekin bat.

52. artikulua. Betebeharrak.

1. Babes Publikoko edozein motatako Etxebizitza baten titularrak izateko –esleipen bidez– pertsona fisikoei exijituko zaizkien betebeharrak, ondorengo hauek izango dira:
 - a. adin nagusikoa izatea edo emantzipatua egotea.
 - b. behar bezala egiaztatzea, Zuzenbidean onartutako bitartekoen bidez, bizilekua duela Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean.
 - c. araudiak kasu bakoitzerako ezartzen dituen gutxieneko diru sarrerak gainditzea, eta, aldi berean, gehieneko diru sarrerak ez gainditzea.
 - d. etxebizitza behar izatea, araudiak ezarritako baldintzekin bat.
 - e. aurretik beste Babes Publikoko Etxebizitza baten esleipenduna ez izana, indarrean dagoen araudiak ezarritako aldian.
 - f. ez izatea Etxebizitza Libre baten titularra, ez Babes Publikoko Etxebizitza esleipenduna izan aurretik, ez ondoren, indarrean dagoen araudiak ezarritako aldian eta baldintzetan.
2. Udalek etxebizitzak eskuratzeko baldintza osagarriak ezarri ahal izango dituzte Babes Publikoko Etxebizitzaren udal modalitateetarako, Babes Publikoko Etxebizitzaren modalitate guztietarako Lege honek finkatzen dituen gutxieneko baldintzez gain. Horrek ez dio kalte egingo Lege honetan eta garatzeko araudian ezartzen diren Babes Publikoko Etxebizitzaren modalitate guztietarako gutxieneko baldintzekiko eta betebeharrak orokorreko begiruneari, ezta ordenamendu juridikoarekiko begiruneari ere.

53. artikulua. Etxebizitzaren beharra.

1. Bizikidetzaren unitateko kide guzti-guztiek eta haietako bakoitzak ez dute etxebizitza baten jabetza, jabetza soil, azalera eskubidea edo usufruktua izan behar, jarraian aipatzen diren datak baino bi urte lehenagoko aldian zehar:
 - a) Etxebizitza sailburuaren Agindua argitaratzen den data, esleipen prozedurari hasiera ematekoa.
 - b) Osoko bilkuraren akordioa edo udal administrazio egintza argitaratzen den data, udal esleipen prozedurari hasiera ematekoa.
 - c) Behin-behineko kalifikazioaren data, Babes Publikoko Etxebizitzaren lehen eskualdatzean sustapen pribatuen kasuan.
 - d) Salerosketaren edo errentaren kontratua bisatua emateko aurkezten den data, bigarren edo geroagoko eskualdatzeetan.
2. Horrelako egoeran jarraitu beharko da harik eta salerosketaren eskritura publikoa eman edo errentamendu kontratua formalizatu artean.
3. Hala eta guztiz ere, Babes Publikoko Etxebizitzaren onuradunak izan ahalko dira etxebizitza baten jabetza, azalera eskubidea, usufruktua edo jabetza soil izanik, Eusko Jaurlaritzak araututako salbuespenezko kasuren baten barruan daudenak.
4. Salbuespenezko kasu horietan sartutako etxebizitza baten pertsona titularrak edo titularrek, Babes Publikoko Etxebizitza efektiboki eskuratu ahal izateko, alde aurretik bere etxebizitza Eusko Jaurlaritzaren barnean etxebizitza gaian eskumena duen Sailaren esku jarri beharko du, edo dagokion Udalaren esku.
5. Administrazio Publikoen esku jarritako Etxebizitza Libreak Babes Publikoko Etxebizitzatzat kalifikatuko dira eta Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebiden izen emandako pertsonari esleitu zaie. Administrazioak alokairurako erabiltzen baditu, ez dira Babes Publikoko Etxebizitzatzat kalifikatuko.

6. Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaien eskumena duen sailburuak, Agindu bidez, erabaki ahal izango du, egoera zehatz batzuetan, etxebizitza baten titularrak edo titularrek etxebizitzaren beharraren baldintza betetzen dutela, hain zuzen ere, gizarte inguruabar bereziak direla eta, halaxe egitea komenigarria dela jotzen denean.

54. artikulua. Gehieneko eta gutxieneko diru sarrerak.

1. Gutxieneko diru sarrerak.
 - a) Udalek erregimen bereziko Udal Etxebizitza Tasatuetarako –azalera eta alokairu eskubidean– gutxieneko diru sarrerak zehaztuko dituzte.
 - b) Etxebizitza eskuratzeko pertsonak mugikortasun urri iraunkorra badu, ez zaio gutxieneko diru sarrerarik exijituko, baldin eta Babes Publikoko Etxebizitza errentamendu erregimenean eskuratu nahi badu. Etxebizitza baten jabetzaren edo azalera eskubidearen kasuan, exijituko den gutxieneko zenbatekoa 3.000 €-koa izango da.
 - c) Etxebizitza eskuratzeko pertsona genero indarkeriaren biktima bada, ez zaio gutxieneko diru sarrerarik exijituko, baldin eta Babes Publikoko Etxebizitza bat errentamendu erregimenean eskuratu nahi badu.
2. Gehieneko diru sarrerak. Bizikidetz-unitatearen kide guztien urteko diru sarrera haztatuak ezingo dira ondoren aipatzen diren zenbatekoak baino handiagoak izan:
 - a) 20.000 € Etxebizitza Sozialetarako
 - b) 30.000 € erregimen orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako
 - c) 43.000 € Autonomia mailako erregimen tasatuko Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako eta
 - d) 43.000 € erregimen bereziko Udal Etxebizitza Tasatuetarako.
 - e) Euskal udalek erregimen bereziko edo itunduko Udal Etxebizitza Tasatuetarako libreki zehazten dutena.
3. Aipatu diru sarrerak, bai gutxienekoak, bai gehienekoak, artikulua honetako 2 d) eta e) zenbakietan ezarritakoak izan ezik, eguneratu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaien eskumena duen sailburuak emandako Aginduaren bidez, unean uneko errealitate sozio-ekonomikora egokitzeko, izan gutxitzeko, izan gehitzeko.

55. artikulua. Babes Publikoko Etxebizitzaren multzoko bide neurriak eta kudeaketa integrala. Esklusibotasuna.

Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaien eskumena duen Sailak eta Udalek erraztuko dute Babes Publikoko Etxebizitzaren erabiltzaileak mugitzea Babes Publikoko Etxebizitzaren multzoaren barnean, honako hauek guztiak babestu eta bermatzeko: multzoaren behar bezalako erabilera integrala, interes publikoa, Lege honen printzipio zuzentzaileak eta helburua eta Babes Publikoko Etxebizitzako multzoaren erabiltzaileek une orotan izan dezaketen beharrak.

IV. KAPITULUA ESLEITZEKO ETA ESKURATZEKO ERREGIMENA

1. ATALA. Esleitzeko erregimena

56. artikulua. Esleitzeko modua.

1. Babes Publikoko Etxebizitza guztiak, edozein dela ere beren erregimen juridikoa, sustapen klasea eta erabiltzeko zein edukitzeko erregimena, 2012ko urtarrilaren bata arte, notario aurreko zozketa publiko bidez esleituko dira, eta salbuespen bakarrak izango dira Lege honetan ageri direnak. Data horretatik aurrera, baremoa ezartzeko sistema bat ezarriko da, gardentasunaren eta iritziazen arabera ez ematearen printzipioak bermatzekoa.
2. Zozketa soilik egin ahal izango da esleitu behar den sustapenaren behin-behineko kalifikazioa lortu eta gero. Udalek araututako Babes Publikoko Etxebizitzen kasuan, udal lizentzia lortu eta gero egin ahal izango da zozketa.

57. artikulua. Modalitateak.

1. Jaurlaritzaren zozketak: Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailak esleituko ditu, Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebideren bidez, ondorengo etxebizitza hauek:
 - a) Eusko Jaurlaritzak zuzenean sustatutako Babes Publikoko Etxebizitzak eta zuzkidura izaerako bizitokiak.
 - b) Ekimen pribatuarekin itundutako sustapenen Babes Publikoko Etxebizitzak.
 - c) Eusko Jaurlaritza modu zuzenean edo zeharkakoan partaide den sozietate publikoek sustatutako Babes Publikoko Etxebizitzak.
 - d) Laguntza publikoak lortzeko xedez, sustatzeko hitzarmena sinatu diren Babes Publikoko Etxebizitzak.
 - e) Gainontzeko kasuetan, indarrean dagoen araudiak hala ezartzen duenean edo ondorio horretarako hitzarmena sinatzen denean.
2. Udalen zozketak: udalek beren bitartekoak erabiliz esleituko dituzte edo Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebideren bidez, ondorengo kasu hauetan:
 - a) Udal batek zuzenki sustatutako Babes Publikoko Etxebizitzak eta zuzkidura izaerako bizitokiak direnean.
 - b) Udal sozietate publiko batek edo toki organismo autonomo batek sustatutako Babes Publikoko Etxebizitzak direnean.
 - c) Toki Administrazio batekin hitzarmena sinatu duen enpresa pribatu batek sustatutako Babes Publikoko Etxebizitzak direnean.
3. Sustatzaile pribatuen zozketak: sustatzaile pribatuek haiek titularrak diren Babes Publikoko Etxebizitzak notario aurreko zozketa bidez esleituko dituzte, baldin eta Administrazio Publikoekin itundutako sustapenak ez badira. Notario aurreko zozketa hori parte hartzen duten pertsona guztien artean egingo da –ondorengo artikuluan zehazten dira pertsona horiek–. Salbuespena izan daiteke Eusko Jaurlaritzaren edo udal baten esku uztea esleipena; kasu horretan, Jaurlaritzaren edo udalaren esleipentzat joko dira.

4. Kooperatiben zozketak: Babes Publikoko Etxebizitzak sustatuko dituzten kooperatibak notario aurreko zozketa bidez esleitzeko dituzte, parte hartzen duten pertsona guztien artean –ondorengo artikuluan zehazten dira pertsona horiek–.

58. artikulua. Parte-hartzaileak.

Zozketetan parte har dezaketen pertsonak ondorengo hauek izango dira, prozeduraren modalitate ezberdinen arabera:

1. Eusko Jaurlaritzak zozketatutako etxebizitzak: zozketan parte hartuko dute Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebiden izena eman duten pertsona guztiek, baldin eta sustapena dagoen barrutiko udalerrian etxebizitza eskatu badute.
2. Udalek zozketatutako etxebizitzak: Zozketan parte hartuko dute Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebiden izena eman duten pertsona guztiek, baldin eta sustapena dagoen barrutiko udalerrian etxebizitza eskatu badute eta bertan erroldatuta daudela egiaztatzen badute. Halaber, haiekin batera, udalak bere kasuan egin ditzakeen zerrendak osatzen dituzten pertsonak. Udalek baimena eman dezakete bertakoa ez den beste udalerrri batzuetan erroldatutako eskatzaileak sartzeko, egoki jotzen duten kasuetan. Kasu guztietan, Lege honetako 28. eta 61. artikuluetan sortutako beharrak betetzeko moduko neurrian egingo dute.
3. Sustatzaile pribatuek zozketatutako etxebizitzak: zozketa hauetan parte hartuko dute Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebiden izena eman duten pertsona guztiek, baldin eta sustapena dagoen barrutiko udalerrian etxebizitza eskatu badute, beste udalerrri batean erroldatuta egon arren.
4. Kooperatibek sustatutako etxebizitzak: zozketa hauetan parte hartuko dute kooperatibak berak egindako deialdia baino lehen kide tutako pertsona guztiek, eta, gainera, Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebiden izena eman duten pertsonen eskaini beharko zaie, baldin eta sustapena dagoen barrutiko udalerrian etxebizitza eskatu badute. Sustapen hori da kide izateko eta zozketan parte hartzeko aukera ematen duena, eta araudian zehaztutako baldintzekin, datekin eta moduarekin bat egin beharko da.
5. Autosustapenaren etxebizitzak, elkarteenak: pertsona eskatzaileak esleitzeko etxebizitzak baino gehiago diren guztietan, esleipena notario aurreko zozketa bidez egingo da, autosustapena egiten dutenen edo elkartea osatzen dutenen pertsonen artean. Pertsona autosustatzaileek edo elkarteko kideek ez badituzte betetzen Babeseko Etxebizitza baten onuraduna izateko ezarri diren betebeharrak, ezin esleitu diren etxebizitzak zozketatu beharko dira Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebiden izena eman duten pertsonen artean, baldin eta udalerrri horretan eskatu badute.

59. artikulua. Prozedura.

1. Erregelamendu bidez, zehaztuko da 57.1 artikuluan sartutako Babes Publikoko Etxebizitzak esleitzeko prozedura. Betiere, notario aurreko zozketa publiko bidez egingo da Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua - Etxebiden izena eman duten pertsonen artean, zozketan parte hartzeko onartuak izan badira aipatu garapen araudiarekin bat eta sustapen bakoitzaren esleitzeko prozedura abiatzeko dagokion Aginduaren ezaugarri partikularrekin bat, honako hauei guztiei dagokienez: onartuak izateko epeak, kupoak, kupo bakoitzeko erreserbatutako etxebizitza kopurua, interesduntzat izendatu diren udalerrriak eta beste.

2. Toki Administrazio Publikoek 57.2 artikuluan aurreikusitako Babes Publikoko Etxebizitzak esleituko dituzte notario aurreko zozketa publiko bitartez, ondorengo edozein modalitatetan:
 - a. Udal zozketa: sustapena esleitzeari dagokion Ordenantza Arautzailearen bidez.
 - b. Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua — Etxebiderek inondutako zozketa bidez: aipatu zerbitzu horrekin egindako akordioaren bidez.
3. Sustatzaile pribatuak itundu gabeko beren sustapenen etxebizitzak notario aurreko zozketa publiko bidez esleituko dituzte.
 - a. Zozketaren emaitzak pertsona esleipendunen zerrenda bat zehaztuko du, eta itxaron zerrenda ordenatu bat. Bi-biak bidaliko zaizkio, notarioaren aktarekin bat, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaien eskumena duen Sailari, 10 egun naturaleko epean zozketa egin den egunean kontatzen hasita, eta enpresa sustatzailearen egoitzan jarriko dira ikusgai.
 - b. Halaber, horrek bere hautaketa jakinarazi beharko dio argi eta garbi pertsona esleipendun bakoitzari, eta 15 eguneko epea eman beharko die onartzeko edo uko egiteko, eta, bere kasuan, Babes Publikoko Etxebizitza baten onuraduna izateko betebeharrak betetzen dituela egiaztatuko duen dokumentazioa aurkezteko.
 - c. Uko egiteak edo ez betetzeagatik bajak gertatzen direnean, itxaron zerrenda ordenatua erabiliz esleituko dira.
 - d. Honen guztiaren berri emango zaio Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaien eskumena duen Sailari, arautzen den baldintzekin eta formarekin bat, betiere beste prozedura alderdiekin batera, araudiari jarraiki.
4. Kooperatibek, autosustapenek eta etxe-jabeen elkarteek aipatu berri den 3. atalean ezarritako prozedura bera jarraituko dute zozketa egiteko 58. artikulua 4. eta 5. ataletan, hurrenez hurren, ezartzen diren parte-hartzaileen artean.

60. artikulua. Diskriminazio positiboko politikak

1. Eusko Jaurlaritzak eta Udalek Babes Publikoko Etxebizitzak esleitzeko duten prozedurek diskriminazio positiboko kupoak eduki beharko dituzte. Kupo horiek etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun berezia eta Babes Publikoa bereziki behar duten kolektiboak begira egingo dira.
2. Erregelamendu bidez, finkatuko da zein diren positiboki diskriminatu behar diren kolektibo horiek, baita aipatu diskriminazio horren baldintzak, Lege honen 57.1 artikulua esleitzeko prozedurei dagokienez.

61. artikulua. Mugikortasun geografikoko politikak.

1. Eusko Jaurlaritzak eta Udalek Babes Publikoko Etxebizitzak esleitzeko duten prozedurek euskal herritarren mugikortasuna erraztu beharko dute.
2. Eusko Jaurlaritzak eta Udalek esleitzeko prozeduretan ezin izango dute exijitu urtebeteko baino gehiagoko antzinatasuna erroldatzean Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua — Etxebiden izena emandako pertsonari, edo, bere kasuan, udal etxebizitzaren eskatzaileen erregistroetan.
3. Eusko Jaurlaritzak eta Udalek esleitzeko prozeduretan Babes Publikoko Etxebizitza guztien %20, gutxienez, erreserbatu beharko dituzte sustapena kokatua dagoen, gutxienez, eremu funtzionaleko eskatzaileentzat.

4. Erregelamendu bidez, mugikortasun geografikoa erraztuko duten neurriak garatuko dira.

62. artikulua. Zozketatik kanpo geratzea.

1. Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen sailburuaren Agindu bidez, Lege honen 57.1 artikuluaaren esleipenaren prozeduratik kanpo utz daitezke etxebizitzaren, gizarte politikaren edo beste bizileku bat ematearen behar espezifiko batzuk asetzeraz bideratuko diren etxebizitzak.
2. Lege honen 57.2 artikulua aipatzen duen Ordenantza Arautzailearen bidez, udal batek aipatu artikuluaaren esleipen prozeduratik kanpo utz ditzake etxebizitzaren, gizarte politikaren edo beste bizileku bat ematearen behar espezifiko batzuk asetzeraz bideratuko diren etxebizitzak.
3. Bi kasuetan, 57.1 eta 57.2 artikuluetan jasotako esleipen prozeduretatik kanpo utzitako Babestutako Etxebizitzak soilik laga ahal izango dira alokairuan edo prekarioan Babes Publikoa bereziki behar duten gizabanakoei edo lege honen 48. artikuluaaren edukiekin bat zehazten diren pertsona juridikoei.

2. ATALA. Eskuratzeko erregimena lehenengo eskualdatzeetan

Babes Publikoko Etxebizitzen kontratuak bisatzea

63. artikulua. Babes Publikoko Etxebizitzen kontratuak bisatzea

1. Autonomia erregulazioko Babes Publikoko Etxebizitza eta beren erantsien jabetza eskualdatzeko edo haien gaineko benetako eskubideak eratzeko edozein eskritura publiko eman baino lehen, hipotekaren kasuan izan ezik, dagokion dokumentu pribatua aurkeztu beharko da, bisatzeko, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Saileko Lurralde Ordezkaritzetan. Etxebizitzaren eskualdatzaileak aurkeztu beharko du.
2. Sustapen bereko Babestutako Etxebizitzen titularrei lotuta ez dauden garajeak edo trastelekuak eskualdatzeak, edozein tituluren bidez izanik ere, alde zuzeneko bisatua beharko du.
3. Lege honen ondorioetarako, udal lizentziak udalak arautu beharreko Babes Publikoko Etxebizitzak kalifikatzeko izaera ere izango du.
4. Interes orokorrerako bermeak eta Lege honen 68. eta 69. artikuluetan dauden Babes Publikoko Etxebizitzak eskuratzen dituztenen eskubideen eskubideak udalek behatu beharko dituzte. Bereziki, notarioek eta erregistratzaileek baieztatuko dute udal erregimeneko Babes Publikoko Etxebizitzen sustapenentarako udal lizentzia ote dagoen, baita etxebizitza jakin bat esleipendun jakin bati esleitu zaiolako fedea ematen duen udal dokumentu publikoa ere.
5. Babes Publikoko Etxebizitza izateko xedez, kalifikazio urbanistikoa duen lur-sail, partzela edo orube bat kostu bidezko eskualdatzeak, edozein tituluren bidez egiten dela ere, alde zuzeneko bisatua beharko du. Bisatu hori Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailaren Lurralde Ordezkaritzak emango du autonomia erregulazioko babeseko etxebizitzak badira, edo dagokion udalak, beste edozein kasutan. Azkeneko baimen hau ez da beharrezkoa izango udala eskualdatzailea denean.
6. Aurreko ataletan aipatutako baimenak eta dokumentuak egon ezean, notarioek ez dute eskritura publikorik emanen eta erregistratzaileek ezezkoa emango diote inskripzioari. Biek dagokion udalari eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailaren Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko diete.

64. artikulua. Epea.

Bisatuaren aldeko edo kontrako ebazpena emateko epea 4 hilabetekoa izango da pertsona interesdunak aurkeztu duen eskaria jaso den egunetik kontatzen hasita. Aipatu epean ebazpenik ez bada ematen, aldeko efektua izango du.

65. artikulua. Prozedura.

1. Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailak erregelamendu bidez arautuko du lurzorua eskualdatzeko kontratuen bisatuaren prozedura, bai Babes Publikoko Etxebizitzetarako, bai Babes Publikoko Etxebizitzena.
2. Udalek beren udal ordenantzetan arautuko dute udal erregulazioko Babes Publikoko Etxebizitzak eskualdatzeko kontratuen bisatuaren prozedura,

66. artikulua. Beharrezko klausulak.

Lurzoru bat –edozein tituluren bidez– Babes Publikoko Etxebizitzak sortzeko eskualdatzea helburu duten kontratu guztiek Lege hau garatzeko araudian biltzen diren bete beharrezko klausulak izan beharko dituzte barne.

67. artikulua. Notarioek eta Jabetza Erregistratzaileek egiaztatzea.

1. Babes Publikoko Etxebizitzaren eta bere erantsien salerosketaren, errentamenduaren edo benetako eskubideak eratzearen notario eskritura publikoa emateko, notarioek aldez aurretik egiaztatuko dute dagokion bisatua edo udal lizentzia lortu dela. Halakorik ezean, ez dute sinatuko eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko diote. Modu berean, jabetza erregistratzaileek uko egingo diote Babes Publikoko Etxebizitzari edo erantsiei buruzko edozein titulartasunen inskripzioari, egiaztatzen badute Administrazio bisaturik edo udal lizentziarik ez dagoela.
2. Salerosketaren edo Babes Publikoko Etxebizitza izateko xede duen lur-sail, partzela edo orube baten gaineko eskubide errealak kostu bidezko eratzearen notario eskritura publikoa emateko, notarioek aldez aurretik egiaztatuko dute dagokion bisatua edo udal baimena lortu dela. Halakorik ezean, ez dute sinatuko eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Saileko Lurralde Ordezkaritzari jakinaraziko diote. Modu berean, jabetza erregistratzaileek uko egingo diote Babes Publikoko Etxebizitza izatea xede duen lurzoruari buruzko edozein titulartasunen inskripzioari, egiaztatzen badute Administrazio bisaturik edo udal baimenik ez dagoela.

3. ATALA Eskuratzeko erregimena bigarren eta hurrengo eskualdatzeetan

68. artikulua. Baimena.

1. Lege hau indarrean hasi eta gero esleitutako Babes Publikoko Etxebizitzak nahitaez saldu beharko zaizkio Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailari bigarren eta hurrengo eskualdatzeetan. Horrela lortutako etxebizitzek alokairurako bideratutako etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa izango dute eta Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuaren esku jarriko dira, berriz ere esleitzeko.
2. Gainerako kasuetan ezin izango dira Babes Publikoko Etxebizitzaren bigarren eta hurrengo eskualdatzerik egin, edozein dela ere bere erregimen juridikoa, sustatzailea, erabiltzeko eta edukitzeko erregimena edo beste edozein inguruabar, inongo tituluren

bidez, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaiari eskumena duen Sailaren alde aurreko baimen zehatza ez badago.

3. Hiru hilabeteko epean, pertsona interesdunak aurkeztutako eskaria jaso den egunetik zenbatzen hasita, ebazpenik ez bada ematen, aldeko efektua izango du.

V. KAPITULUA

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZA ESKATZEN DUTEN HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. atala: Babes Publikoko Etxebizitza eskatzen duten pertsonen eskubideak

69. artikulua

Administrazio legeria orokorrak ezartzen dituen eskubideez gain, Babes Publikoko Etxebizitza eskatzen duten pertsonak honako eskubide hauek dituzte:

- a) Etxebizitzaren eskatzaile diren aldiak: etxebizitza kontuetan euskal Administrazio Publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuen eta onuren gaineko informazioa jasotzekoa, modu horretan Administrazio horiexei beren ezaugarriei hobekien egokitzen direnak eskatu ahal izateko.
- b) Esleitzeko orduan, bai oro har Babes Publikoko Etxebizitzari, bai etxebizitza zehatzari dagokienez: esleitzeko prozedura bertatik bertara ikustekoa, baita bitarteko telematikoen bidez jarraitzekoa ere.
- c) Babes Publikoko Etxebizitzak eskuratu dituzten kasuan, esleitzeko prozeduraren eta erabilera efektiboaren arteko aldiak: lanak zertan diren jakitekoa eta etxebizitzak emateko aurreikusitako datari buruzko informazioa jasotzekoa.
- d) Alokairuko edo erosketako kontratuak sinatu baino lehen: beren eskubideei zein betebeharrei buruzko informazioa jasotzekoa, Babes Publikoko Etxebizitzaren legeko erregimen bereziari dagokienez.
- e) Une orotan, etxebizitza kontuetan eskumena duten Administrazio Publikoekin modu telematiko bidez harremanak izatekoa.

2. atala: Babes Publikoko Etxebizitza eskatzen duten pertsonen betebeharrak

70. artikulua

Administrazio legeria orokorrak ezartzen dituen betebeharrez gain, Babes Publikoko Etxebizitza eskatzen duten pertsonak honako betebehar hauek dituzte:

- a) Etxebizitzaren eskatzaile diren aldiak: datu pertsonalak eguneratuta mantentzekoa, Administrazioaren eta eskatzailearen arteko komunikazioa ahalbidetzeko, baita etxebizitzaren eskaera espezifikoa ezagutzeko ere.
- b) Behin esleipendun suertatuta, alokairuko edo erosketako kontratua sinatu baino lehen: esleipena onartu edo uko egitekoa, Administrazioak jakinarazi eta 15 eguneko epean. Epean onarpen zehatzik ez bada gertatzen, Administrazioak Babes Publikoko Etxebizitza Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Euskal Zerbitzua — Etxebiden izena emandako beste pertsona bati esleitu dio.
- c) Babes Publikoko Etxebizitza baten erabiltzaile izan eta gero, alokairu zein erosketaren erregimenean

Kasu orotan:

- datu pertsonalak eguneratuta mantentzekoa, Administrazioaren eta eskatzailearen arteko komunikazioa ahalbidetzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Publikoko Etxebizitzen ikuskatzaileak etxebizitzara sartzen uztekoa.
- eskatutako dokumentazioa Administrazioak zehaztutako epeen barruan ematekoa.

Alokairuaren kasuan:

- betetzea modu zorrotzean auzokideekiko elkarbizitza arauak eta udal araudia
- eguneratuta mantentzea bizikidetzaren unitatearen osaketan gertatutako aldaketei buruzko datuak, eta bizikidetzaren kideen kopuruari buruzkoa.
- etxebizitza behar bezala erabiltzeko eta bizitzeko moduan mantentzea.
- ordainketak eguneratuta mantentzea.

IV. IDAZPURUA BIRGAITZEA BULTZATZEA

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

71. art. Helburua.

Idazpuru honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzea bultzatzeko jarduketaren erregimen juridikoa arautzea, bai hiri ingurunean, bai landa ingurunean, une bakoitzean dagoen etxebizitza multzoaren biziegokitasuna sustatzeko xedez.

72. artikulua. Sustatzeko jarduketaren esparrua.

Birgaitzea sustatzeko neurriak honako ekintza hauetara zabalduko dira:

- Gehienbat egoitza erabilera izango duten eraikinak egiturazko eta/edo eraikuntzazko erreforma eta hirigintzara moldatzea
- Etxebizitzak egokitzea biziegokitasuna hobetzeko.
- Gehienbat egoitza erabilera izango duten eraikinetako elementu komunak eta pribatiboen akaberako lan orokorrak eraikuntza onaren printzipioetara egokitzea.
- Gehienbat egoitza erabilera izango duten eraikinetako eta etxebizitzetako elementu komunak egokitzea ahalmen urriko pertsonen erabilera edota gozamenaren tratatzen duten oztopo guztiak desagerrarazteko.

73. artikulua. Egoerak.

Soilik Idazpuru honetan ezarritakoaren ondorioetarako, erregelamendu bidez zehaztuko dira:

- Hirigintzara moldatzea eta egitura zein eraikuntza erreforma zehazten duten jarduketak.
- Gehienbat egoitza erabilera duten eraikinen kontzeptua
- Etxebizitzen biziegokitasunaren baldintzak
- Eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko jarduketak
- Ahalmen urriko pertsonen etxebizitzak erabiltzeko egiten diren egokitze jarduketak.

II. KAPITULUA BIRGAITZEA SUSTATZEKO ESKU-HARTZEAK

74. Birgaitzeko jarduketa babestuak.

1. Birgaitzeko jarduketa babestuaren izaera izango dute dagokion Administrazio organoak halakotzat zehaztutakoek.
2. Eraikinen birgaitzea sustatzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriei kalte egin gabe, Lege honetan eta hau garatzeko araudian ezartzen diren sustapen finantza neurriak lehentasunez bideratuko dira nagusiki etxebizitza bezala erabiliko diren eraikinen birgaitze jarduketetara.
3. Babestuko diren birgaitze jarduketak zabalduko dira nagusiki etxebizitza bezala erabiliko diren higiezinetakoko elementu komunetara eta etxebizitzatzat jotzen diren elementu pribatiboetara, edota, bizi-gokitasun baldintzen inguruan ezarritakoaren mende eta aplikatu behar zaien hirigintza araudiarekin bat, aipatu jarduketaren ondorioz etxebizitzatzat joko direnetara.

75. artikulua. Jarduketa motak.

1. Birgaitzeko jarduketa babestuak joko ahal izango dira, sustapeneko finantza neurriak zehazte aldera, birgaitze integratutzat edo birgaitze isolatutzat.
2. Birgaitze integratutzat joko dira Birgaitze Integratuko Area bezala deklaraturako hiri-multzoetan egiten duten jarduketak Lege honetan zehaztutakoarekin bat eta Birgaitzeko Plan Berezian edo dagokion Babesteko eta Zaintzeko Plan Berezian ezarritakoari jarraiki.
3. Halaber, birgaitze integratutzat joko dira area degradatutzat deklaraturako hiri-multzoetan egiten diren jarduketak, Lege honetan zehaztutakoarekin bat eta hirigintza plangintzan ezarritakoari jarraiki.
4. Birgaitze isolatutzat joko dira birgaitze integratuko areetatik kanpo egiten diren jarduketak. Halaber, halakotzat joko dira birgaitze integratuko areetan egiten diren jarduketak, hirigintza plangintzak birgaitzeko edo erreformatzeko bazter utzitako eraikin haietan.

76. artikulua. Babestutako jarduketaren titularrak.

1. Birgaitzeko jarduketa babestuak pertsona fisikoek edo juridikoek egin ahalko dituzte, pribatuek zein publikoek, zaharberritu beharreko higiezinaren jabe, errentari edo gozamen-dun titulua edota erabiltzeko edo gozatzeko beste edozein titulu badute. Horiek birgaitzearen titular bihurtuko dira, administrazio prozedurari dagokionez. Higiezin bateko elementu komunetan egin beharreko esku-hartzeak direnean, laguntzen izapideak Jabeen Elkartearen ordezkariak egin beharko ditu, Jabetza Horizontalari buruzko Legeak ezarritako baldintzekin bat.
2. Birgaitzeko jarduketa ondasunaren jabea ez den pertsona batek egiten badu, ezinbestekoa izango da jabearen baimena aurkeztea, baita birgaitzeko obren kostuen ordainketaren inguruan haien artean lortutako akordioa aurkeztea ere.
3. Gehienbat egoitza bezala erabiltzeko diren eraikinen eta etxebizitzaren hirigintza legedian ezarritako nahitaezko birgaitzearen kasuetan, jarduketa babestuen titularra izango da gauzatu gabeko birgaitze jarduketak egiteko eskumena duen Administrazio agintariak izendatutakoa, izan pertsona publikoa izan pribatua.

III. KAPITULUA FINANTZA NEURRIAK

77. artikulua. Finantza neurrien motak.

1. Indarrean dagoen araudiak aitortutako zerga onurei kalte egin gabe, birgaitzeko jarduketa babestuetarako finantza neurriak ondoko motakoak izan daitezke:
 - a. Interes tasari kualifikatutako finantzaketa.
 - b. Laguntza ekonomiko zuzenak. Honako hauek izan daitezke: diru laguntzak eta jarduketak finantzatzeko maileguen interes tasaren sorospen partziala.
 - c. Udalek, birgaitzeko eta hiri berritzeko hirigintza sozietateek, edo Eusko Jaurlaritzak –etxebizitza gaian eskumena duen sailburuaren Agindu bidez– ezarritako beste edozein.
2. Elementu pribatiboak birgaitzeko zuzeneko laguntzen kasuan, laguntzen onuradunak jasotako kopuruak itzuli beharko ditu –itzultzeko egunean eguneratuak– edozein *intervivos* tituluaren bidez aipatu laguntzen araubideak ezarritako epea igaro baino lehen –ezin izango da bost urtekoa baino laburragoa izan–, laguntzen xede den etxebizitzaren jabetza edo beste edozein eskubide eskualdatuz gero.

78. artikulua. Laguntzak eskuratzeko baldintzak.

1. Etxebizitza izatea erabilera nagusi duten eraikinen inguruko birgaitzeko jarduketak soilik ondoko baldintzak betetzen direnean joko dira jarduketa babestuzat:
 - a. Eraikinak hamar urte baino gehiago izatea, honako hauetan izan ezik: etxebizitzak ahalmen urriko pertsonak erabiltzeko egokitzean, bai elementu komunetan, bai pribatiboetan, etxebizitzaren biziegokitasun baldintzak xede duten sareak instalatzeko obrak egitean, edota obrak instalazioak indarrean dagoen araudi tekniko berrira egokitzeko beharrezkoak direnean.
 - b. Etxebizitza erabilera nagusi izanda, hirigintzara egokituta ez dauden eraikinen kasuan, edo egiturari edo eraikuntzari dagokionez egokituta ez dauden eraikinen kasuan, ez dira babestuko aipatutako baldintzak lortzeko beharrezko lanak barne hartzen ez dituzten obrak, hondatzeko zorian edo antolamendutik kanpo dauden eraikinetarako hirigintza araudiak ezarritakoari kalte egin gabe.
 - c. Hirigintzara egokitzea edo eraikinen egitura eta eraikuntza egokitzea helburu duten birgaitzeko jarduketetan, eta etxebizitzek garapen araudian aipatutako biziegokitasun baldintzak betetzen ez dituztenean, eraikinak biziegokitasun egoera bermatuko duten antolamendu espaziala eta eraikuntza ezaugarriak izatea eskatuko da. Biziegokitasun baldintza gisa ezarriko den gutxieneko azalera erabilgarria, ez da oztopo izango birgaitzeko jarduketa babestuzat jotzeko azalera handitzeko aukera ez dagoen eraikinetan, bai kultura interesarengatik, edo ezaugarri tipologiko zein eraikuntzakoen ondorioz ezinezkoa den beste zerbaitengatik. Halakoetan, zehatz-mehatz azaldu beharko dira ezaugarri horiek espedientean eta adierazi beharko dira birgaitzeko laguntzak ebatziko dituen administrazio egintzan.
 - d. Eraikinak, bertan birgaitzeko jarduketak egin ondoren, gutxienez guztizko azalera erabilgarriaren bi heren izatea etxebizitza bezala erabiltzeko. Baldintza hau soilik exijituko da elementu komunak birgaitzeko jarduketetarako.
 - e. Eraikina hondatzeko zorian, antolamendutik kanpo edo partzialki erautsita edo barnealdea hustuta ez egotea, edo birgaitzeko lanek fatxaden eraispena edo erabateko hustuketa barne hartzea. Dena dela, landa inguruneako eraikuntza tradizionalari erantzuten dion eraikuntza tipologia duten landa eremuko etxebizitzaren kasuan, edo gremioei lotutako herri arkitekturako tipologiari erantzuten dioten eraikuntzen kasuan, baita bere interes kulturalarengatik babestuta dauden kasuan ere, eraikina birgaitzeko jarduketa babestuzat jo ahal izango da, betiere, aipatu higiezinaren jatorrizko bolumetria ezagutzeko modukoa bada eta aipatu

jarduketaren helburua eraikinaren birgaitze hutsa bada, bere jatorrizko bolumetria aldatu gabe.

- f. Birgaitzeko esku-hartzeak aginduzko udal baimena izatea eta horiek egin ondoren lortuko diren etxebizitzek betetzea garapen araudian aurreikusitako bizi-gokitasun baldintza guztiak eta haien azalera erabilgarria dagokion araudi babesleak ezartzen duen m² kopurua baino gehiago ez izatea.
2. Terrazak ixteko jarduketak ez dira babes daitezkeen birgaitzeko jarduketatzat hartuko. Salbuespenak dira esku-hartze hori lizentzia batek baimenduta egotea eta, gainera, horren helburua bada etxebizitzaren azalera erabilgarria handitzea, gutxienezko bizi-gokitasun baldintzak betetzeko.
3. Birgaitzeko jarduketa babestuen multzoak hirigintza plangintzak jarduketa bakoitzari dagokionez ezartzen dituen bereizgarriak bete beharko ditu.

IV. KAPITULUA BIRGAITZE AREETAKO ARAUBIDE JURIDIKOA

1. ATALA. Birgaitze Integratuko Areen eta Area Degradatuen Araubide juridikoa

79. artikulua. Birgaitze Integratuko areak.

1. Birgaitze integratuko areatzat jo ahal izango dira beren ezaugarri arkitektoniko edo hirigintzako balio nabarmena edo ondare urbanizatu edo eraikiaren degradazio-egoera direla eta babestera, zaintzera edo hobetzera bideratutako Administrazioaren ekintza bereziak behar dituzten hiri- edo landa-multzoak.
2. Era berean, birgaitze integratutako area deklaratu ahal izango dira beren ezaugarri arkitektoniko eta hirigintzako balio nabarmenekoak ez izan arren, areako degradazio-egoera dela eta hala eskatzen duten orain gutxi sortutako egoitzarako hiri-multzoak. Area degradatutzat jotzea, gizarte, ekonomia, hirigintza eta arkitekturaren alderdiei erreparatuta arautuko diren baldintzen arabera izango da.
3. Arautuko dira bai Udalek Eusko Jaurlaritzaren aurrean egin beharreko haste prozedura, erregelamendu bidez, bai Eusko Jaurlaritzak jotzea hiri-multzoak birgaitze integratuko areatzat jotzea, beren ondorioak barne.
4. Hiri-multzo bat birgaitze integratuko areatzat deklaratzeko kontuan hartu beharko da Eusko Jaurlaritzak sustapen neurriak ezartzeko orduan, bai birgaitzeko jarduketei, bai hiri berritzeko jarduketei dagokienez. Horrela jotako areak, halaber, kontuan hartu ahal izango dira etxebizitza eskuratzea sustatzeko beste neurri batzuk ezartzeko orduan.

80. artikulua. Hiri birgaitzeko eta berritzeko plan bereziak.

1. Birgaitze integratuko area deklaraturako multzoetako Administrazioaren ekintza bereziak barne hartuko ditu bertako hiri-ehuna zaintzea, birgaitzea eta hobetzea ondorio izango duten birgaitzeko jarduketak. Jarduketa horien joera izango da dagoen biztanleriari eustea, euren bizi-baldintzak eta batez ere etxebizitzaren kalitatea hobetzea eta ekipamendu komunitarioak eta aipaturako helburuekin bat datozen ekonomia-jarduerak mantendu eta sustatzea.
2. Birgaitze integratuko areetan Administrazio Publikoek egingo dituen birgaitzeko jarduketak zehazteko plangintza-figurak izango dira hirigintza araudietan jasotako

edozein plan berezi, batez ere, birgaitzeko, babesteko eta zaintzeko plan bereziak eta hiri berrikuntzarako planak.

3. Plan bereziek, bere zehaztasunen artean, izan beharko dituzte, gutxienez, artikuluko honetako baldintzak aintzat harturik Administrazioen egintza berezia burutzea eta planifikatzea ahalbidetuko dituzten neurriak, hirigintza araudiarekin eta Lege honekin zein hau garatzeko araudiarekin bat.
4. Birgaitzea edo hiri berrikuntza helburu izango duten plan bereziek barne izango dute, gutxienez, ondorengo dokumentu hauek –araubidez garatuko dira euren edukiak–.
 - a. Gizarte eta hirigintza alderdien gaineko azterketa
 - b. Deskribatzeko eta justifikatzeko memoria
 - c. Hirigintzako araudia
 - d. Ekonomia eta finantza alderdien gaineko azterketa
 - e. Jarduketa programa, aurreikusitako inbertsio publiko zein pribatuak adierazita, eta lana egiteko epeak eta lehentasunak zehaztuta.
 - f. Babestekoak diren ondasunen katalogoa, birgaitzeko jarduketaren kasuan.

2. ATALA. Birgaitzeko eta/edo hiri berrikuntzarako hirigintza sozietateak

81. artikulua. Birgaitzeko eta/edo hiri berrikuntzarako hirigintza sozietateak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Erkidego honetako toki administrazioak birgaitzeko eta/edo hiri berrikuntzarako hirigintza sozietateak osatu ahal izango dituzte, elkarrekin edo banaka, zeinek bere plan berezien zehaztasunak gauzatzeko.
2. Administrazio Publikoek zuzenean plangintza bereziari dagokion kudeaketa osoaren edo zati baten emakida administratiboa eman ahal izango diete beren birgaitzeko eta/edo hiri berrikuntzarako hirigintza sozietateei.
3. Emakida administratiboaren ondorioz, sozietate horiek desjabetzearen onuradunak izango dira eta eragiketa materialak gauzatzeko Administrazioak dituen ahalmenak ordezkatzen hartuko dituzte.
4. Birgaitzeko eta/edo hiri berrikuntzarako hirigintza sozietateen xede sozialak hauetako helbururen bat edo gehiago izango ditu:
 - a. Gizarte eta hirigintza mailako azterketak eta horien jarraipena egitea.
 - b. Hirigintzako planak eta proiektuak formulatzea, zorren eta irabazien banaketena barne, baita, hirigintzako legeriaren arabera, hori izapidetzeko eta onartzeko ekimena ere.
 - c. Eraikuntza mota guztietako birgaitzeko proiektuak idaztea.
 - d. Urbanizatzeko berriko jarduketa isolatuak edo integratuak osatzen dituzten obrak egitea –edo dagoen urbanizazio zein eraikinen erreforma edo hobetzea–, baita plan bereziak burutzeko den beste edozein obra ere.
 - e. Plan Berezien zehaztasunak betetze aldera, lurzorua prestatzeko eta programatzeko sustapena, ondasun eta eskubideen gaineko lehentasunak erosteko eta atzera egiteko eskubideak gauzatzeko barne, hauek hirigintza araudiaren arabera egokiak direnean.
 - f. Desjabetze espedienteak idazten eta horien kudeaketa egiten laguntzea, onuradun ez denean.
 - g. Plan bereziak egitetik sor daitezkeen mota guztietako ondasun, obra eta zerbitzuen kudeaketa, ustiapena eta zaintza, baita birgaitze integratuko areetan barne hartzen direnena ere.

- h. Udalak delegatuta, eta toki erregimeneko legeriak exijitutako baldintzetan, lizentziak banatzeko eta hirigintza diziplinako arloan dagozkion eskumenak egitea, betiere aipatu Plan Bereziek eragingo duten esparruetara egokituta.
 - i. Sozietateak edo Administrazioak beren ahalmenak garatzeko behar duten beste edozein agiri tekniko edo juridiko egitea.
 - j. Aurretik aipatu diren helburuekin zuzenean edo zeharka zerikusia duen beste edozein helburu.
5. Birgaitzeko hirigintza sozietateek birgaitze integratuko area batean baino gehiagotan bete ahal izango dute beren xede soziala. Area horiek, gainera, udalerrri batekoak nahiz zenbatekoak izan daitezke, edo udalerrri osokoak.

82. artikulua. Birgaitzeko hirigintza sozietateen eginkizunak.

Aurreko artikuluan aipatutakotik erator daitezkeenez gain, besteak beste, honako eginkizunak izan ditzakete birgaitzeko hirigintza sozietateek, beren helburuak hobeki betetzeko:

1. Birgaitzeko edo hiri berrikuntzarako jarduketa publikoei dagokienez:
 - a) Lehen mailako ekipamendu komunitarioa handitzeko eta hobetzeko eta urbanizazioko esku-hartzeak gauzatzeko inbertsiorako berariazko planak egitea.
 - b) Lankidetzaz hitzarmenak sinatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin, toki administrazioekin eta Autonomia Erkidegoko beste edozein erakunde publikorekin.
 - c) Erakunde publikoen baliabideak eta esku-hartzeak koordinatzea eta bideratzea.
2. Birgaitzeko edo hiri berrikuntzarako jarduketa pribatuei dagokienez:
 - a) Erostea ahalmena urria duten etxebizitzaren erabiltzaileekin hitzarmenak egitea, sozietateari emanez etxebizitza horiek birgaitzeko ahalmena. Nolanahi ere, aipatutako hitzarmen horretan itundutako baldintza ekonomikoak Lege honetan eta bere garapen araudian aipatutakoak baino onuragarriagoak izango dira zaharberritu beharreko etxebizitzaren erabiltzaileentzat.
 - b) Birgaitzeko edo hiri berrikuntzarako jarduketarako ekimen pribatuari eman beharreko laguntzen planak egitea.
 - c) Birgaitzeko laguntzen eskaerak jaso eta egiaztatzea, eta gero dagokion erakundeari bidaltzea.
 - d) Jarduketa pribatuen kontrola, sustapena, kudeaketa, aholkularitza, informazioa eta koordinazioa.
 - e) Birgaitzeko obrak egiten diren bitartean obren eraginpean dauden pertsonentzako behin-behineko ostatua emateko planak prestatzea.
 - f) Ekimen pribatuarekin elkarlanean aritzea Plan Bereziak zehaztutakoaren ondorioz desagertutako diren etxebizitzaren erabiltzaileekin hitzarmenak ezartzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera beste bizileku bat errazteko asmotan.

V. IDAZPURUA

ETXEBIZITZA MULTZOAREN KALITATEA ETA INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

I. KAPITULUA

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO ESKA DAITEZKEEN KALITATEA ETA BALDINTZAK

83. artikulua. Kalitatearen kontzeptua etxebizitza batean

1. Etxebizitza baten kalitatetzat hartzen da etxebizitzaren erabiltzaileen beharrak asetzeko behar dituen ezaugarriak biltzen dituena, baita une bakoitzari segurtasun eta konfort estandarrei asetzeko egokituta daudenak ere.
2. Etxebizitzek oinarrizko betebeharrak bete behar dituzte, legediak eta araudiak ezarritakoak, funtzionaltasunari, segurtasunari, bizi-egokitasunari, irisgarritasunari eta iraunkortasunari dagozkienak. Eraikin antolamenduaren legeriak eta eraikinaren kode teknikoek ezartzen dituzte gai horretako oinarrizko betebeharrak.
3. Erregelamenduz garatuko dira etxebizitzek kalitateko betebeharrak jakin batzuk dituztela egiaztatzen dituzten moduak eta baldintzak. Halaber, organismo edo erakunde egiaztatzaileek bete behar dituzten baldintzak arautuko dira.

84. artikulua. Ingurumen iraunkortasunaren gutxieneko estandarrak egoitza eraikinetan.

1. Energia aurrezteko betebeharrak dagokienez
 - Etxebizitzak eraikitzean, zaintzean eta birgaitzean erabilgarri dauden baliabideen optimizazioa bermatu beharko da, eta jarduketaren ingurumen iraunkortasuna.
 - Etxebizitzak eraikitze prozeduraren edozein fasetan esku hartzen duten guztiak: proiektu egileek, sustatzaileek, eraikitzaileek eta etxebizitzaren erabiltzaileek zainduko dute beren jarduketak eraginkorra izateko, energia aurrezteko eta, oro har, ingurumenarekiko begirunea izateko.
 - Erregelamenduz garatuko da eraikitze fase bakoitzean zehaztuko den balorazio kodea: hiri plangintza, materialen ezaugarriak, fabrikazioa eta garraioa, eraikitzea, etxebizitzaren erabilera eta eraisteko fasea; etxebizitzari ingurumen iraunkortasunaren arloan dagokion ziurtagiria emateko baloratuko diren jokabide egokiak.
2. Eguzkiaren gutxieneko ekarpena sanitate-ur beroan

Sanitate-ur beroaren eskaririk eratorritako energia termikoaren beharrak aseko dira etxebizitzetan jarriz tenperatura gutxi-eguzki-energia hartzeko, biltzeko eta erabiltzeko sistema, egokituta lekuko eguzki erradiazio globalera eta eraikinean dagoen ur beroaren eskaria osora.
3. Gutxieneko ekarpena fotoboltaikoa energia elektrikoan

Gaian oinarrizko legeria teknikoan ezarrita dagoen eraikinetan, eguzki-energia prozedura fotoboltaiko bidez energia elektriko bihurtzeko sistemak sartuko dira, norberak erabiltzeko edo sarea hornitzeko.

85. Irisgarritasuna etxebizitzan

Eraikitzeakoak diren etxebizitza guztiak, baita beren erantsiak ere, irisgarriak izan beharko dira Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Legeak zein hau garatzeko araudiak zehaztutako irizpideekin bat. Udalek baieztatuko dute, obren lizentzia eman baino lehen, proiektatutako eraikin guztiek betetzen dutela aipatu araudia.

II. KAPITULUA ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO KONTROL NEURRIAK

86. artikulua. Eraikinaren liburua

1. Eraikinaren liburutzat dokumentu oso bat hartzen da, bere baitan informazioa biltzen duena, eta eraikinaren zehaztasun teknikoa eta fisikoak ez ezik, bere araubide juridikoa ere ezagutzeko bidea ematen duena. Dokumentu honetan bildu behar dira honako hauei buruzko informazioa: ezaugarri teknikoak, instalazioak, planoak, erabiltzeko jarraibideak, mantentze-lanak eta larrialdiak. Modu horretan erabiltzaileek beren betebeharrak ezagutuko dituzte, eraikinetako biziegokitasun eta segurtasun mailak gal ez daitezen.
2. Egitekoak diren eta etxebizitza izatea helburu duten eraikin guztietan Eraikinaren liburua formalizatuko da, araubidean agertutako betebeharrekin bat eta zehaztutako moduan, eraikinaren datu nagusiak bilduz.
3. Sustatzaileak, jabetza eskualdatzeko ekitaldian, Eraikinaren liburua eman beharko dio eskuratzaileri, eraikina eskuratzen duena jabe bakarra den kasuetan. Jabetza horizontala baldin bada, jabe-erkidegoa eratzen denean, bere presidenteari eman beharko dio eta honek hartu duela sinatuko du. Betiere, kasu guztietan, argi gelditu beharko da salerosketaren eskrituraren gorputzean Eraikinaren liburua badagoela. Eraikinaren liburua emateko orduan, bere formalizazioak guztiz eguneratua egon beharko du.
4. Eraikinaren liburuan egongo dira, halaber, etxebizitzetako eskuliburuak, hau da, eraikina osatzen duten etxebizitza bakoitzaren jabe bakoitzak jasoko dituen dokumentuak, araudian zehazten diren atalak izan beharko dituztenak.
5. Eusko Jaurlaritzak, etxebizitza gaian eskumena duen Sailaren bidez, dagokion administrazio jarraipena egingo du, eta ikuskapenak egin ahal izango ditu betetzen ote den egiaztatzeko. Administrazio jarraipen honen ikuskapenak Eraikinaren liburuan bertan idatziko dira.

87. artikulua. Eraikinaren azterketa teknikoa.

1. Etxebizitzetako eraikinen jabeak edo erabiltzaileak behartuta daude helburuarekin bat egin behar duten erabilerak eta mantentzeak egitera, eta betiere funtzionaltasun, segurtasun eta biziegokitasun baldintzak bermatu behar dituzte, indarrean dagoen legeriak exijitutakoak.
2. Etxebizitzetako eraikinen jabeek, etxeak 50 urte izan eta handik aurrera –lehen erabileraren baimenaren datatik aurrera zenbatzen hasita, edo posible ez bada, obraren azken ziurtagiriaren datatik aurrera–, eta, geroago, hamar urtetik hamar urtera, eraikinaren azterketa tekniko bat egin beharko dute eskumena duen teknikari baten bitartez. Teknikari horrek ziurtatuko du eraikina, oro har, nola mantendu den eta, bereziki, egiturazko egonkortasunaren, estankotasunaren eta fatxadako zein estalkiko itxituren egonkortasunaren inguruko alderdiak, instalazioak erabiltzeko segurtasuna eta biziegokitasunaren gutxieneko baldintzak, arautuko den moduan eta baldintzetan.

3. Eraikinaren azterketa teknikoak ziurtatzen badu egituran, fatxadako elementuetan, estalkietan edo kanalizazioetan akats larriak daudela, eraikinaren eta/edo pertsonen segurtasunerako arriskua izan daitezkeenak, berehalakoan hartu beharko diren neurriak zehaztuko ditu aipatu segurtasuna bermatzeko eta horiek egiteko epea. Eraikin horien jabeak behartuta daude horiek egitera, zehaztutako epearen barnean.
4. Azterketa teknikoa egin beharko da 1. atalean zehaztutako aldiak bukatzen diren dataren hurrengo hamabi hilabeteetako aldian.
5. Artikulu honetako 2. atalean zehaztutako beharrak ez betetzearen ondorioz, eskumena duen toki administrazioak esku har lezake, horri buruzko araudian ageri diren tresna hertsagarrien bidez eta betearazte subsidiarioaren bitartez.

III. KAPITULUA ETXEBIZITZAREN KALITATEARI, IRAUNKORTASUNARI ETA BERRIKUNTZARI BURUZKO KONTSEILUA

88. artikulua.- Etxebizitzaren Kalitateari, Iraunkortasunari eta Berrikuntzari buruzko Kontseilua

1. Aurreko artikuluetan bildutako planteamenduen garapen eraginkorra bermatzeko, araubidez eratuko da Etxebizitzaren Kalitateari, Iraunkortasunari eta Berrikuntzari buruzko Kontseilua. Hau kontsultatzeko organoa izango da alor teknikoan, eta aipatutako gaietan proposamenak egingo dizkio Administrazioari, eta honako aholkularitza-funtzio hauek izango ditu: etxebizitzarekin eta hau osatzen duten elementu materialekin lotutako arkitektura kalitatea hobetzeko funtzio teknikoak.
2. Osaketa eta funtzionamendua Eusko Jaurlaritzan Etxebizitzaren gaian eskumena duen sailburuak zehaztuko ditu, eta, gutxienez, honako hauek egongo dira ordezkatuta: Eusko Jaurlaritza, profesionalen eta enpresen elkargoak eta elkarteak, teknologia zentroak, unibertsitatea, mugimendu ekologista eta beste entitate batzuk, etxebizitzak eraikitzearekin erlazionatutakoak.
3. Kontseiluak horretarako propio sortuko diren batzorde espezifikoeetan lan egin ahal izango du, eta haietako bat izango da egungo "Eraikinaren Kalitatearen Batzordea", Kontseilu honen zati pasatzera igaroko dena.

VI. IDAZPURUA
ETXEBIZITZA MULTZOAREN ERABILPEN ANTISOZIALA

I. KAPITULUA
ETXEBIZITZA HUTSA

89. artikulua. Definizioa

1. Etxebizitzak luze hutsik egoteak berekin dakar jabetzaren erabilpen antisoziala eta, ingurumenari dagokionez, iraunkorra ez izatea.
2. Etxebizitza bat erabiltzen ez dela edo beti hutsik egoten dela zehazteko, Administrazioak kontuan hartuko ditu, besteak beste, honako hauek:
 - a) Biztanleen erroldaren datuak eta egoiliarren edo erabiltzaileen beste erregistro publikoen datuak
 - b) Ohikoak ez diren kontsumo oso baxuak, ura, gasa eta argindarrarenak, esaterako
 - c) Posta eta jakinarazpenak beste leku batean jasotzea
 - d) Normalean beste leku batzuk erabiltzea telefono edo informatika komunikazioak egiteko
 - e) Etxebizitzaren titularraren adierazpenak edo egintzak
 - f) Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen adierazpenak eta egiaztapenak, etxebizitza gaian ikuskapenaren lanak egiteko ardura badute, baita agintaritzako agenteenak ere.
 - g) Hurbileko bizilagunen adierazpenak
 - h) Etxebizitzaren titularrak ezezkoa ematea, arrazoi sendorik gabe, Administrazioak egoera egiaztatu nahi duenean, hori egiteko oinarri gisa sinesteko moduko arrazoiren bat ez badago eta, gainera, etxea erabili gabe dagoela agertzen duten bestelako zantzuak daudenean

90. artikulua. Sustapeneko politika publikoak, etxeen erabilpena bermatzeari zuzenduta.

Ingurumena babestea eta baliabide fisikoak eta egoitzakoak sozialki arrazionalizatzea helburu izanik, euskal Administrazio Publikoek erabili gabe dauden etxebizitzak merkaturatzea sustatzeko politikak bultzatuko dituzte, lehentasunez, alokatzeko erregimenean.

91. artikulua. Erabili gabe dauden etxebizitzei buruzko kanona edo ariela, zerga izaera ez duena.

1. Hutsik dauden etxebizitzei buruzko kanona sortzen da, zerga izaera ez duen ariela, baizik eta gizarte eta ekologia izaera. Jabetzaren eginkizun soziala eta hiri zein landa ingurumena bermatzera bideratuta dago.
2. Kanona aplikatu beharrekoa izango da euskal udalek hutsik deklaraturako etxebizitzetarako.

92. artikulua. Sortzapena

Kanonaren sortzapena gertatuko da etxea erabili gabe dagoela adierazten duen Administrazio adierazpena egiten den unean. Lege honetako 91.2 artikuluan aipatzen da Administrazio adierazpen hori.

93. artikulua. Zergapeko egintza

1. Zergapeko egintza eratzen dute, eta, beraz, Lege honetako 91.2 artikuluan aipatzen den Administrazio adierazpena sortuko dute, honako etxebizitza hauek: Euskal autonomia Erkidegoan egonik, urtebetean hirurehun eta berrogeita hamar egun baino gehiagoan pertsona bat ere bizi izan ez den etxeak, baldin eta hurrengo artikuluan aipatzen diren salbuespenak ez badira gertatzen.
2. Etxebizitza hutsik dagoela joko da, honako hauek gertatzen direnean:
 - a) Biztanleen udal erroldan erregistratuta dauden biztanlerik gabe egotea, aurreko zenbakian ezarritako aldiaren, zerga-ekitaldiaren barruan.
 - b) Aipatu egoera hori egiaztatzea, bai etxebizitzara bisitak eginda agintaritza agenteek egindako txostenen bidez, bai egoera hori salatzen duten ur, argindar eta halako kontsumoengatik ondorioztatutako datuen bidez. Honi dagokionez, etxea erabili gabe dagoela joko da etxeak ur edo elektrizitate horniketakarako kontraturik ez badu edota aurreko paragrafoan zehaztutako aldiaren etxea erabiliz gero izango liratekeen kontsumoak ez baditu izaten. Pertsona eta urte bakoitzeko batez bestea oinarri hartuta kalkulatuko dira kontsumo horiek. Balio horiek udalerrian zerbitzua ematen duten hornidura konpainiek emango dituzte. Halere, informazio zehatzagoa lortu ezean, etxea erabili gabe dagoela joko da ur kontsumoa 2,25 metro kubo baino txikiagoa bada pertsona eta urte bakoitzeko, eta/edo argindarraren kontsumoa 80/kilowatio/ordu baino txikiagoa pertsona eta urte bakoitzeko, edo gas kontsumoa 6 metro kubo pertsona eta urte bakoitzeko.
 - c) Aurreko letran zehaztutako kontsumoak erregelamendu bidez aldatu ahal izango dira.

94. artikulua. Salbuespenak

Kanonari dagokionez, salbuetsita gelditzen dira, kasu guztietan:

- a) titularrek aldi batez etxetik kanpo bizi behar duten etxebizitzak; lan, osasun edo bestelako arrazoiak izan daitezke tartean, baina betiere dokumentuen bidez ziurtatu beharko dira.
- b) alokatuta dauden etxeak; betiere, egoera hori dokumentuen bidez ziurtatu beharko da.
- c) bigarren etxebizitzak, betiere, egoera hori dokumentuen bidez ziurtatu beharko da.

95. artikulua. Subjektu pasiboak

1. Hutsik dauden etxebizitzaren gaineko kanonaren subjektu pasiboak izango dira Ondasun higiezinaren zergaren subjektu pasiboak, hutsik dauden etxebizitzaren titularrak badira.
2. Aipatu subjektu pasibo horiek behartuta daude etxea hutsik dagoela adieraztera, hori gertatu eta hilabeteko epean.

96. artikulua. Zerga-oinarria

Zergaren zerga-oinarria izango da etxebizitza hutsik egon den egun kopurua. Administrazioak zehaztuko du kopuru hori, eta kanpoan gelditzen dira hasierako hirurehun eta berrogeita hamar egunak, etxea hutsik dagoela adierazteko balio dutenak.

97. artikulua. Zerga karga eta kuota mota

1. Aplikatuko den zerga karga honela ezarrita dago:
 - a. bederatzi euro hutsik dauden egun bakoitzeko, sortzen den lehen urtean
 - b. hamabi euro hutsik dauden egun bakoitzeko, sortzen den bigarren urtean
 - c. hamabost euro hortik aurrera hutsik dagoen egun bakoitzeko.
2. Aurreko kopuruak handitu ahal izango dira pertsona bakar bat hutsik jotako bi etxebizitza edo gehiagoren titularra baldin bada.
3. Zerga kuota lortzen da zerga kargaren mota zerga oinarriari aplikatuta

98. artikulua. Kudeaketa

1. Hutsik dauden etxebizitzaren gaineko kanona udalei dagokie. Zuzenean etxebizitzaren titularrak diren pertsona edo entitateengandik jasoko dituzte.
2. Kanona kobratzeagatik lortutako diru-sarrerak banatuko dira –%50 bakoitzak– Eusko Jaurlaritzaren eta udalen artean, zerga kudeatzeagatik udalek izan dituzten gastuak kendu eta gero.
3. Kanona kudeatzean udalek egindako kudeaketa, likidazio eta ikuskapen egintzak lotuta geldituko dira, lege honek aurreikusten ez dituen kontuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko zerga araudi orokorrari.

99. artikulua. Hutsik dauden etxebizitzaren erregistroa

Udalek sortu eta mantendu beharko dute hutsik dauden etxebizitzaren erregistro bat udalerrira bakoitzean, eta informazio hori agregatu eta koordinatuko du Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren gaian eskumena duen Sailak.

100. artikulua. Preskripzioa

Lege honek arautzen duen kanona kudeatzeko, likidatzeko eta ikuskatzeko egintzen preskripzioaren erregimen juridikoa Zergen Lege Nagusiaren 66. eta 70. artikuluen bitartekoetan aurreikusitakoaren arabera egingo da.

101. artikulua. Kanonaren xedea

Hutsik dagoen etxebizitzaren gaineko kanona etxebizitza politika publikoen helburuak lortzearen eraginpean geldituko da.

102. artikulua. Etxebizitza kontserbatzeko beharra ez betetzea

Udalek ere lagundu ahal izango dute hutsik dauden etxebizitzak antzematen. Izan ere, bere udalerraren barruan jabetzak duen funtzio sozialaren kontrakoa da. Laguntza hori, aurreko artikuluetan aipatutako kanona kobratzearen bidez, edo, baita ere, etxebizitza kontserbatzeko beharra ez betetzeagatik jarritzako isunen bidez egin ahalko da.

II. KAPITULUA NEURRIZ GAINEKO OKUPAZIOA

103. artikulua. Definizioa

1. Etxebizitza bat neurritz kanpo dagoela okupatuta jotzen da bertan egiten den alojamendua gehiegizkoa bada, etxebizitzaren azalerari eta zerbitzuei erreparatuta.

2. Etxebizitza baten gehiegizko okupazioa zehazteko, kontuan har daitezke, besteak beste, honako faktore hauek.
 - a) Biztanleen eroldaren datuak eta egoiliarren edo erabiltzaileen beste erregistro publikoen datuak.
 - b) Alojamentuaren truke prezioa ordaintzea.
 - c) Ohikoak ez diren kontsumo oso altuak, ura, gasa eta argindarra, esaterako
 - d) Posta eta jakinarazpenak jasotzea.
 - e) Etxebizitza normalean erabiltzea telefono edo informatika bidezko komunikazioak egiteko.
 - f) Etxebizitzaren titularraren edo erabiltzaileen adierazpenak edo egintzak
 - g) Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen adierazpenak eta egiaztapenak, etxebizitzaren gaian ikuskapenaren lanak egiteko ardura badute, baita, oro har, agintaritzako agenteenak ere.
 - h) Hurbileko bizilagunen adierazpenak
 - i) Etxebizitzaren titularrak ezezkoa ematea, arrazoi sendorik gabe, Administrazioak egoera egiaztatu nahi duenean, hori egiteko oinarri gisa sinesteko moduko arrazoiren bat ez badago eta, gainera, etxea gehiegi okupatuta dagoela agertzen duten bestelako zantzuak daudenean.
3. Udalek izango dute etxebizitza bat gehiegizko okupazioa duela administratiboki zehazteko eskumena.
4. Nolanahi ere, gainokupaziotzat joko da etxebizitza batean izatez erabiltzaile den pertsona bakoitzeko 10 metro koadro baino gutxiago dagoenean.

104. artikulua. Politika publikoak, etxebizitzen gehiegizko okupazioa saihestekoak.

1. Udalek etxebizitzen gehiegizko okupazioa saihesteko beharra dute, kontrol, ikuskapen eta zigor politiken bidez.
2. Ondorio horietarako, udalek Lege honetako 170.27 artikuluan aurreikusitako zehapenak ezarri ahalko dituzte, eta, halaber, muturreko kasuetan jabetzaren funtzio soziala ez betetzeagatik, desjabetze espedientea abiarazi ahalko du, Lege honetako 153. artikuluekin bat.

VII. IDAZPURUA ETXEBIZITZA ARLOAN KONTSUMITZAILEEK ETA ERABILTZAILEEK DITUZTEN BERMEAK

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

105. artikulua. Berdintasuna, etxea eskuratzean eta okupatzean

1. Pertsona guztiek izan behar dute etxebizitza bat eskuratzeko eta okupatzeko eskubidea, bere erlazio juridiko zehatzari dagozkion lege- eta kontratu-betebeharrak betez, eta diskriminaziorik pairatu gabe, ez zuzena, ez zeharkakoa, ezta esesterik ere. Agindu hau betetze aldera, Administrazio Publikoek egokiak diren neurriak hartuko dituzte, pertsona eta agente guztiei aplikagarriak, nahiz sektore publikoan nahiz sektore pribatuan.
2. Neurriak honako hauek izan daitezke: egoera ahulean dauden kolektiboen zein

pertsonen aldeko ekintzak, jokamolde diskriminatzaileak debekatzea eta etxebizitzarako eskubidea gauzatzeko dauden oztopoak eta murrizketak deuseztatzea, baita eskubide hori bermatzeko arrazoizko egokitze lanak egitea ere.

3. Aurreko ataletan aipatutako ekintza babeslearen helburu espezifikoak dira ondorengo egoera eta jarduketak hauek:

- a) Diskriminazio zuzena. Hau gertatuko da pertsona bat modu ezberdinean tratatzen denean, etxebizitzari dagokion alderdiren batean, egoera berdinean dagoen beste pertsona baten tratamenduekin alderatuz gero, tratamendu ezberdin hau helburu zilegi baten alde modu objektiboan edo arrazoizkoan ezin justifika daitekeenean eta helburu horretarako bitartekoak egokiak eta beharrezkoak direnean.
- a) Zeharkako diskriminazioa. Hau gertatuko da, etxebizitza bat eskuratzeko duen eskubidean, pertsona bati desabantaila partikularra eragiten zaionean, itxuraz neutroak diren honako hauetako edozeinen bidez: xedapen arautzailea, plana, klausula arrunta edo kontratuzkoa, hitzarmen indibiduala, alde bakarreko erabakia, irizpide bat edo praktika bat. Ez dago zeharkako diskriminaziorik ekintzak helburu zilegi baten alde modu objektiboan edo arrazoizkoan ezin justifika daitezkeenean, eta helburu horretarako bitartekoak egokiak eta beharrezkoak direnean.
- b) Esestea gertatuko da, ekintzen bidez edo egin ezaren bidez –nahiz eta hauek legalki babestuak izan–, pertsona batek bere etxebizitza modu baketsuan erabiltzea galarazten denean aurkako ingurua sortuta. Izan daiteke alderdi materialean, sozialean edo pertsonalean, eta azken helburua da bere okupazioa babesten duen eskubidearen gainean nahi ez duen erabakia hartzea. Esestea diskriminazioa da Lege honen ondorioetarako.
- c) Arrazoizko egokitzeak dira pertsona zehatz batzuen behar bereziak asetzea bideratutako egokitze neurriak. Horien gizarteratzea erraztea izango dute helburu, neurritz kanpoko karga bat ezarri gabe, baita gainerako pertsonen duten baldintza berdinetan etxebizitza eskuratzeko eskubidea gozatzea erraztea ere. Karga bat neurritz kanpoko den edo ez den ezartzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: bere kostua, hura ez gauzatzeko ekarriko lituzkeen diskriminazio efektuak, abian jarri behar duen pertsonaren, entitatearen edo erakundearen ezaugarriak eta finantzaketa ofiziala edo beste edozein laguntza lortzeko aukera. Eskumena duten Administrazio Publikoek laguntza publikoen erregimen bat ezar dezakete arrazoizko egokitzeak egiteagatik eratorritako gastuei laguntzeko

106. artikulua. Frogaren karga

Alde salatzaileak edo eskatzaileak, etxebizitzarako eskubideari dagokionez, diskriminazioa ustez egon daitekeela adierazten duten egitateak alegatzen dituen prozeduretan, eskumena duen organoak, egitateak aintzat hartu eta gero, eta kontuan hartuta aldeen berdintasun printzipioa eta alde bakoitzari dagokion erabilgarritasuna eta erraztasun frogatzailea, exijituko dio, salatuari edo auzipetuari, justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa, bere egitean edo egite ezean berdintasunerako eskubidea begirunez zaindu duela frogatzeko.

II. KAPITULUA ETXEBIZITZARI LOTUTAKO AGENTEAK

1. atala: Etxebizitzak eraikitzean eta birgaitzean parte hartzen duten agenteak

107. artikulua. Agenteak eta araubide juridikoa

1. Etxebizitzak eraikitzean eta birgaitzean parte hartzen duten agenteak dira eraikinaren antolamendu araudian aurreikusitakoak, nahiz eta, Lege honen ondorioetarako, araudia agente sustatzaileira eta eraikitzaileira mugatzen den. Bi-
biak Lege honetan ezartzen den araubide juridikora eta beharretara lotuak gelditzen dira, aipatu sektore-araudi espezifikoak zehazten duenari kalte egin gabe.
2. Sustatzaile edo eraikitzailearen batek bateragarri egiten baditu bere jarduera eta higiezinaren transakzioa, higiezinaren transakzioaren agentetzat ere joko da Lege honen ondorioetarako.

108. artikulua. Sustatzailea

1. Etxebizitzen sustatzailea honako hau da: pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa zein pribatua, modu indibiduallean edo kolektiboan, etxebizitzak eraikitzeko eta birgaitzeko obrak erabakitzen, bultzatzen, programatzen edo finantzatzen dituena, nahiz eta aldi behin baino ez izan, eta bere baliabideen bidez edo beste batzuen baliabideen bidez eginda ere. Halaber, berak erabiltzeko izan daiteke, edo gero hirugarrenei eskualdatzeko, emateko edo lagatzeko, edozein tituluren bidez.
2. Sustatzailearen betebeharrak honako hauek dira:
 - a. Eraikitzeko orubeari edo birgaitzeko etxebizitzari dagokienez, egitekoak diren obrak burutzeko eskubidearen titularrak izatea.
 - b. Lortzea eraikitzeko behar diren lizentziak eta administrazio baimenak, eta izatea obraren proiektu teknikoa.
 - c. Eskuratu duenari exijitzekoak diren dokumentazioa eta informazioa ematea, Lege honek zehaztutako baldintzekin bat. Autosustatzailearen kasuan, behar hori eraikitzaileari dagokio.
 - d. Legalki ezarritako aseguruak eta bermeak izenpetzea. Behar hori ez zaio exijituko berak erabiltzeko familiabakarreko etxebizitza bat eraiki duen autosustatzaile indibidualari, baina, etxebizitza hori 10 urteko epean bizidunen artean eskualdatzen bada, autosustatzailea behartuta egongo da aseguruak eta bermeak kontratatzerara 10 urte horiek betetzeko falta den aldirako, etxebizitza eskuratzen duenak horretatik espresuki salbuesten duenean izan ezik.
 - e. Aseguru poliza edo bermea izenpetzea. Horrek hitzartutako prezio osotik kontura jaso diren zenbatekoak itzultzea bermatuko du –horiek erresak, seinale, erreserba edo beste edozein izen edukita ere, helburu bera baldin badute–. Modu horretan, zenbateko horiek itzuli ahal izango dira etxea hitzartutako baldintzetan ez bada ematen, eta, oso bereziki, adostutako epean obrak hasten edo bukatzen ez direnean, biziegokitasun zedula ez bada lortzen eta, salmenta bikoitza gertatuz gero, hirugarren bati eskualdatu bazaio erregistro-publizitatearen bitartez. Itzulketak ez du soilik kontura emandako zenbatekoa hartuko, baizik eta zenbatekoak ordaindu zirenetik itzultzea gauzatu arte ziurta daitezkeen berandutza interesak ere, kalte egin gabe saltzaileak hitzartutakoa ez betetzeagatik eskuratzailak jaso ditzakeen ordainsariei.
 - f. Sustapenak legalki eraturako jabe-erkidego edo elkarte kooperatibo baten erregimenpekoak badira, bermatu beharko da etxebizitzak egongo diren lurzorua eskuratzeko helburu zuten zenbatekoak, dagokion komunitatea edo

elkartea osatzen duten pertsona fisikoengandik jasotakoak.

109. artikulua. Sustatzaile soziala

Lege honen ondorioetarako, sustatzaile sozialtzat joko dira irabazi asmorik gabeko sustatzaileak, aurreko artikuluan ezarritako betebeharez gain, honako sustapen hauek burutzen dituztenak: euskal Administrazio Publikoen etxebizitza planetan babestutako etxebizitzaren obra berriak edo birgaitzeak, Babes Publikoko Etxebizitzaren eskaintza handitzera bideratutakoak, modu nagusian, ohikoan, denboran egonkorrean eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailarekin hitzartuta.

110. artikulua. Eraikitzailea

1. Eraikitzailea da eraikitze edo birgaitze lanak egiten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, bere edo beste baten baliabide humano eta materialen bidez. Sustatzailearen eta eraikitzailearen lanak pertsona bakar batek egin ditzake, fisikoa edo juridikoa izan.
2. Eraikitzailearen betebeharrak honako hauek dira:
 - a. Obra honako hauei lotuta egitea, proiektuan exijitutako kalitatea lortze aldera: proiektuari, legeria aplikagarriari eta zuzendaritza teknikoaren eta fakultatiboaren jarraibideei
 - b. Izendatzea obran eraikitzailearen ordezkaritza teknikoa bereganatzen duen pertsona. Pertsona hori, bere titulua edo esperientziarengatik, gaitasun egokia izan beharko du obraren ezaugarriekin eta konplexutasunarekin bat.
 - c. Obrara bideratzea behar diren baliabide humanoak eta materialak, bere garrantziaren arabera.
 - d. Zuinketa edo hastearen akta sinatzea, baita obra jaso dela adierazten duen akta ere.
 - e. Helaraztea obraren zuzendariari egindako obraren dokumentazioa egiteko behar diren datuak.
 - f. Legalki aurreikusitako aseguruak eta bermeak izenpetzea.
 - g. Sustatzailearen aurrean, zuzenean, erantzutea obra proiektuari zein kontratuari egokitzeari buruzko kontuetan, zati edo instalazio jakin batzuk egiteko azpikontrata egiten den pertsona fisiko zein juridikoei dagokienez.

2. atala: Higiezin zerbitzuak ematean esku hartzen duten agenteak

111. artikulua. Agenteak eta araubide juridikoa

Lege honen ondorioetarako, higiezin zerbitzuak ematean esku hartzen duten agentetzat joko dira finka administratzailea eta higiezin agentea. Bi-biak Lege honetan ezartzen den araubide juridikora eta beharretara lotuak gelditzen dira, sektore-araudi espezifikoak zehazten duenari kalte egin gabe.

112. artikulua. Finka administratzailea

1. Finka administratzailea honako hau da: normalean eta ordainsari baten truke higiezin titularrei eta jabe-erkidegoei administrazio eta aholkularitza zerbitzuak ematen dizkien pertsona fisikoa. Halaber, finka administratzailetzat jo ahal izango dira Korporazioak eta bestelako pertsona juridikoak, antolamendu juridikoak ezarritako baldintza eta edukiekin bat.
2. Finka administratzailearen jarduera egin ahal izateko, beharrezkoa da gaitasun profesionala izatea eta exijitzekoak diren legezko baldintzak betetzea. Eskatutako gaitasuna eta prestakuntza dutela ulertuko da dagozkien elkargo profesionalen kide badira, baldin eta horiek eskatutako betebeharrak eskatzen badituzte eta Eusko

Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailean ziurtatzen bada bere kidesuna indarrean dagoela, eta ez bertan behera utzita.

3. Finka administratzaileak bateragarri egiten baditu bere jarduera eta higiezin transakzioa, higiezin transakzioaren agentetzat ere joko da Lege honen ondorioetarako.

113. artikulua. Finka administratzailearen betebeharrak

1. Finka administratzaileak eraginkortasunez, diligentzia profesionalaz, arduraz eta indarrean dagoen legeriarekin eta sektorean ezarritako kode etikoekin bat aritu beharko du, independentziaz eta kontsumitzaileen eskubideak bereziki zainduz, Titulu honekin bat.
2. Kontsumitzaileen eskubideak bermatze aldera, finka administratzaileak erantzukizun zibileko aseguru batek estalita egon beharko du. Elkargo profesionalen bidez era daiteke aseguru hori.

114. artikulua. Higiezin agentea

1. Higiezin agentea honako hau da: normalean eta ordainsari baten truke higiezin transakzioetan bitartekaritza zerbitzuak ematen dituen pertsona fisikoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barnean. Zerbitzu horiek ondasun higiezin salerosketa, alokairu, truke edo lagatzeari dagozkie, baita horiei buruzko eskubideei ere, eraketa barne.
2. Higiezin agentearen jarduera egin ahal izateko, beharrezkoa da gaitasun profesionala izatea eta exijitzekoak diren legezko baldintzak betetzea. Eskatutako gaitasuna eta prestakuntza dutela ulertuko da dagozkien elkargo profesionalen kide badira, baldin eta horiek eskatutako betebeharrak eskatzen badituzte eta Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailean ziurtatzen bada bere kidesuna indarrean dagoela, eta ez bertan behera utzita.

3. Higiezin agentearen jarduera egiteko, hauek bete beharko dira:

- a. Jarduera egiteko, jendeari zabalik dagoen establezimendu bat izatea.
- b. Legalki exijitzen den gaitasun profesionala izatea.
- c. Eratzea, eta beti indarrean mantentzea, berme bat jarduera garatzeko dituen merkatu izen bakoitzeko. Horrek, agenteak hitzartutako prezio osoari dagokionez jaso dituen konturako zenbatekoak itzultzea bermatuko du –horiek erresak, seinale, erreserba edo beste edozein izen edukita ere, helburu bera baldin badute–. Bermeak, besteak beste, honako hauek estali beharko ditu: etxebizitza hitzartutako baldintzetan ez ematea, eta, oso bereziki, adostutako epean obrak ez hastea edo bukatzea, biziegokitasun zedula ez lortzea eta, salmenta bikoitza gertatuz gero, hirugarren bati eskualdatzea, erregistro publizitatearen bitartez. Erregelamendu bidez zehaztu ahal izango dira berme honek estaliko duen arriskua finkatzeko modalitateak zein irizpideak.
- d. Eratzea eta beti indarrean mantentzea, erantzukizun zibileko poliza bat garatzen duen bitartekaritza jarduerarengatik erantzuteko. Poliza bat eratu beharko da jarduera garatzeko erabiltzen dituen merkatu izen bakoitzeko. Erregelamendu bidez zehaztu ahal izango dira erantzukizun poliza honek estaliko duen arriskua finkatzeko modalitateak zein irizpideak.

115. artikulua. Higiezin agentearen betebeharrak

Honako hauek dira higiezin agentearen betebeharrak:

- a. Transakzioa diligentzia profesionalaz, arduraz eta indarrean dagoen legeriarekin eta sektorean ezarritako kode etikoekin bat egin beharko du,

independentziaz eta etxebizitzaren kontsumitzaileen eskubideak bereziki zainduz,

- b. Higiezinaren eskaintza egin baino lehen, agentea behartuta dago transakzioa enkargatu dion jabearekin enkargu-ohar bat izenpetzera. Ohar horrek ahalbidetuko dio publizitatea eta eskaintzea, kontura zenbatekoak jasotzea edo edozein aurrekontratu edo hirugarrenetik kontratu formalizatzea. Ezin izango dira eskaini edo publizitatu hirugarrenen higiezinak, enkargu-oharra ez badute. Enkargu-oharrean ezinbestez agertu behar dira datuak, eta horiek ziurtatzen dituen dokumentazioa egon beharko du, honako hauek dira:
 - i. Agentearen nortasuna eta Euskadiko higiezinaren agenteak homologatzeko erregistroan, edo dagokien elkargo profesionalean, duen inskripzio zenbakia, agentea izena emanda badago eta exijitzekoak diren betebeharrak betetzen badira.
 - ii. Higiezinaren jabearen nortasuna edo, bestela, ordezkartzan aritzen denarena.
 - iii. Enkarguak irauteko epea.
 - iv. Eskatutako eragiketaren deskribapena.
 - v. Finkaren edo finken identifikazioa, erregistro datuak, kargak, zergak eta/edo edozein izaeratako afektazioak, eta etxebizitzaren babes erregimena, bere kasuan, eta eskaintzaren prezioa. Transakzioa enkargatzen duen bezeroak adierazi behar du, bere erantzukizunpean, garrantzi bereziko beste edozein alderdi juridiko, bereziki epai prozedurak egiteke izatea, higiezinari lotutako kontuengatik.
 - vi. Higiezinaren agentearen ordainsaria eta ordaintzeko bidea. Inolaz ere, ezin da ordainsaria jaso, eragiketa bakar batengatik, transakzioaren bi alderdietatik.
 - vii. Alderdien eskubideak eta betebeharrak, agenteari emandako ahalmenak zehaztuta.

3. atala: Etxebizitzari lotutako agenteak homologatzeko erregistroak

116 artikulua. Erregistroen izaera

1. Etxebizitzari lotutako agenteak homologatzeko Erregistroak sortu ahal izango dira.
2. Homologazio Erregistroak administrazio erregistroak dira, izaera boluntario edo beharrezkoak, eta helburu dute Idazpuru honen II. kapituluaren aipatzen diren agenteak inskribatzea. Erregistroak Eusko Jurlaritzan etxebizitza gaian eskumena duen Sailaren mende egongo dira, eta agenteen tipologiari erantzungo diote.
3. Agenteak Erregistroan inskribatzea araubidez onartzen diren baldintzekin bat eta onartzen den prozeduraren arabera egingo da. Inskripziorako baldintza da Lege honetan eta erregelamenduz zehazten diren betebeharrak eta kualifikazioak betetzen direla ziurtatzea.
4. Inskripzioa boluntarioa edo halabeharrezkoa izango da, erregelamenduz zehaztutakoaren arabera.
5. Homologazio Erregistroetan ez inskribatzeak ez du eraginik izango kontratuen baliozkotasunean, ezta, etxebizitzari dagokionez, agenteak esku hartu duen bestelako egintzetan ere.
6. Erregistroen araudiak zehaztuko ditu finkatzeak egiaztatzeke baldintzak eta prozedura, bere berritzea, ebazpena, eta gainerako funtzionamendu alderdiak.

117. artikulua. Inskripzio ezaugarria Erregistroetan

Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaien eskumena duen Sailak formatu eta berezitasun espezifikoak dituen bereizgarri eta plaka bat sortuko du. Bereizgarri hori jendeak ikusteko moduan jarri beharko da inskribatutako agentearen egoitza bakoitzean, baita agenteen merkatu paperean eta publizitatean ere. Barne eramango du agenteak dagokion Erregistroan duen inskripzio zenbakia.

III. KAPITULUA **ETXEBIZITZARI BURUZKO PUBLIZITATEA**

118. artikulua. Publizitatea eta horrek duen bete beharreko izaera

1. Higiezin zerbitzuak eraikitzen, birgaitzen eta ematen esku hartzen duten agente guztiek egin behar diete men legez kontrako publizitatea debekatzen duen araudiari eta, bereziki, lege honetan, publizitatea dela eta, ezartzen diren arau erregulatuzaileei.
2. Publizitatetzat hartzen da kontsumitzaileei edo herritarrei, oro har, zuzendutako komunikazio modu oro, zuzenean edo zeharka, kostu bidez etxebizitzak eskualdatzea, errentan ematea edo uzteko beste edozein modu sustatzea helburu izanik.
3. Egiatasun eta askitasun printzipioei egokitu behar zaie publizitatea, eta ezin du izan hartzaileak okerrera eramango dituen edo eraman ahal dituen informaziorik.
4. Bai etxebizitzaren ezaugarriak, horien eranskinenak, zerbitzuenak eta instalazio komunenak, bai eta bukatu dauden edo proiektu edo eraikitze fasean dauden adierazten duten espezifikazioak ere, egindako publizitatean eskainiak, galdatu ahal izango ditu geroago erosleak, eskualdatze kontratuan horien berariazko aipamena egin ez bada ere.

119. artikulua. Nahitaezko aipamenak

Publizitate orotan, agenteak nahitaez honako hauek agerrarazi behar ditu:

- a) Etxebizitzaren kokalekua.
- b) Eskaintako etxebizitzaren egoera; hain zuzen ere, bukatua dagoen, eraikitzen ari diren edo, besterik gabe, proiektatua dagoen.
- c) Azalera erabilgarria. Eranskinen kasuan, horien azalera modu berezian adierazi beharko da.
- d) Sustapenaren arduraduna nor den. Harremanetarako helbidea eta telefono zenbakia ere jarri behar dira.

IV. KAPITULUA **ETXEBIZITZAREN ESKAINTZA**

120. artikulua. Lehen eskualdatzean saltzeko eskaintza

1. Higiezin eraikuntzan, birgaitzean eta transakzioan esku hartzen duten agente guztiek egin behar diete men, eskaintza dela eta, lege honetan ezartzen diren arau erregulatuzaileei.

2. Etxebizitza berria eskuratzeko interesa duenak eskaintzen zaionaren funtsezko baldintzen gaineko informazio nahikoa jaso behar du. Azken prezioaren edozein kopuru kontura jaso aurretik eman behar da informazio hori, baldin eta eskualdatzerako ezarri den prezioaren ehuneko bat baino handiagoa bada kopuru hori. Partezko ordainketa txikiagoek betebeharrak eragingo dute, denak batuta, ehuneko bat hori adinakoak edo handiagoak badira.
3. Eskaintzak gutxienez izan behar duen informazioak honako alderdi hauei egin behar die erreferentzia:
 - a) Etxebizitzaren identifikazioa eta funtsezko ezaugarrien deskribapena, besteak beste, etxebizitzaren azalera erabilgarria eta horren eranskinena –modu berezian adierazi behar da–; eraikitze erabili diren materialak; norabide nagusia; isolamendu termikoaren eta akustikoaren maila; energia aurrezteko neurriak; eta dituen zerbitzuak eta instalazioak, bai banakakoak, bai eta komunak ere, eraikinarenak edo dagoen higiezin gunearenak.
 - b) Finkaren erregistro identifikazioa, dituen kargei, zergei edo/eta edozein izaeratako afektaziori erreferentzia egiten diela. Egokia bada, higiezinaren balio osoari dagokionez, dagokion partaide-kuota.
 - c) Komunitate gastuen zenbatekoa, etxebizitza jabetza horizontalaren araubidearen pean badago.
 - d) Eskualdatzearen prezio osoa, bai etxebizitza zergapetzen duten eta legez erosleari dagozkion zergak adierazita, bai eta egozgarri zaizkion eta kontratuari berezkoak zaizkion beste gastu batzuk ere.
 - e) Eskualdatzearen ekonomia eta finantza baldintzak: ordaintzeko modua eta epeak, erreferentzia eginez hasierako diru sarrera egin behar den edo ez; abonatu behar diren interesak eta horiek aplikatzeko modua.
4. Proiektuan dagoen edo eraikitzen ari den etxebizitza baten eskualdatze eskaintza bada, aipatu diren baldintza horiez gain, lanak hasteko eta etxebizitza emateko epeak jaso behar dira idatziz.

121. artikulua. Bigarren eta ondorengo eskualdatzeetan saltzeko eskaintza

Bigarren edo ondorengo eskualdatzeetan eskaintzen diren etxebizitzaren kasuan, honako datu hauek eman behar dira:

- a) Eraikinaren antzintasuna; kontserbazio-egoera; dituen zerbitzuak eta instalazioak, bai banakakoak, bai eta komunak ere.
- b) Ordaintzeko dauden komunitate gastuak, etxebizitza jabetza horizontalaren araubidearen pean badago.
- c) Etxebizitzaren okupazio egoera.

122. artikulua. Errentan emateko eskaintza

1. Errentan emateko eskaintzan, etxebizitzaren funtsezko baldintzen gaineko informazio nahikoa, bai baldintza fisikoena, bai baldintza juridikoena ere, eta kontratuaren oinarriko baldintzen gainekoa ere eman behar zaio hartzaileari. Kontura edozein kopuru jaso aurretik eman behar da informazio hori guztia.
2. Hain zuzen ere, gutxienez eman behar den informazioak honako alderdi hauei egin behar die erreferentzia:
 - a) Etxebizitzaren deskribapena, horren azalera erabilgarria adierazita, eta bai horren zerbitzuen, instalazioen eta hornikuntzen deskribapena ere.

- b) Errentaren prezio osoa, bereizita eta zehaztuta zerbitzu osagarrien prezioa eta errentariak onartzen dituen beste kopuru batzuk. Gainera, identifikatu behar da likidazioaren periodizitatea.
- c) Errentan hartzearen epea.
- d) Errentaren prezioa eguneratzeko modua, errentan hartzeak irauten duen epean.
- e) Errentariari exijitzen zaizkion bermea eta beste garantia batzuk.

123. artikulua. Biziegokitasun baldintzak egiaztatzea

Kapitulu honetan araututako hipotesietan, etxebizitzaren baldintza fisikoen gaineko baliozko informaziotzat eta informazio nahikotzat joko da biziegokitasuneko sinestamenduan dagoena, etxebizitza babestuen kasuan behin betiko kalifikazioan dagoena, edo egoki akreditatuta dagoen Administrazioaren entitate laguntzaile batek, biziegokitasuneko baldintzak betetzearen kontrola dela eta, emandako ziurtagirian dagoena.

V. KAPITULUA **ETXEBIZITZA ESQUALDATZEA ETA ERRENTAN EMATEA**

124. artikulua. Etxebizitzak eskualdatzeko eta errentan emateko kontratuen oinarriak

1. Jabegoa eskualdatzeko edo erabilera uzteko kontratu orotan, enpresa edo lanbide jarduera baten esparruan formalizatutako kontratuetan, klausulek honako baldintza hauek bete behar dituzte:
 - a) Zehaztasunez, argi eta erraz idatzita egotea, zuzenean ulertzeko moduan eta kontratua formalizatu aurretik edo formalizatzeko une berean eman ez diren beste testu edo dokumentu batzuei erreferentziarik egiten ez dietela.
 - b) Fede ona eta bidezko oreka izatea aldean eskubideen eta betebeharren artean. Horrek kanpo uzten du abusuzko klausulak erabiltzea, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako lege nagusiak, 26/1984 Legeak, uztailearen 19koak, biltzen duen definizioaren arabera. Hartara, abusuzkotzat hartuko dira, negoziatu gabe eta fede onaren aurka, aldean eskubideen eta betebeharren artean desoreka garrantzitsuak eragiten dituzten xedapenak, kontsumitzailearen kalterako, kontratua enpresaburuaren edo profesionalaren nahiari besterik lotzen ez dioten klausulak, kontsumitzailearen oinarritzko eskubideak kentzea dakartenak eta elkarrekikotasunik ez egotea esan nahi dutenak.
 - c) Klausula baten esanahiaren gaineko zalantza badago, kontsumitzaileari mesedegarriena zaion interpretazioa nagusi gertatuko da.
2. Agindu hau betetzea biziegokitasuneko sinestamenduaren bidez dokumentatuko da, etxebizitza babestuen kasuan behin betiko kalifikazioaren bidez edo egoki akreditatuta dagoen Administrazioaren entitate laguntzaile batek, biziegokitasuneko baldintzak betetzearen kontrola dela eta, emandako ziurtagiriaren bidez.

125. artikulua. Eraikitzen ari diren etxebizitzak eskualdatzeko edo konturako kopuruak jasotzeko baldintzak

Eraikitzen ari den etxebizitza baten eskualdatze kontratua egiteko edo konturako edozein kopuru jasotzeko aurretiazko baldintzak dira honako hauek:

- a) Eskualdatzearen helburu den higieztina deskribatzen duen eraikitze-lizentzia izatea.
- b) Finkaren gaineko eskubide baten titulartasuna izatea, bertan eraikitzeko edo

birgaitzeko eta eskualdatzeko ahalmena ematen duena. Berriaz aipatu behar dira bai etxebizitzari bai eta etxebizitza dagoen eraikinaren elementu komunei eragiten dieten kargak eta zergak.

- c) Legez galdatu ahal diren bermeak eta aseguruak emanak izatea.
- d) Erregistroko finka bakoitzerako hipoteka kreditua bereiztea, bere kasuan.

126. artikulua. Etxebizitza berri bukatuak eskualdatzeko edo konturako kopuruak jasotzeko baldintzak

Bukatua dagoen etxebizitza berri baten eskualdatze kontratua egiteko edo konturako edozein kopuru jasotzeko aurretiazko baldintzak dira honako hauek:

- a) Eskualdatzearen helburu den higiezina etxebizitza gisa deskribatzen duen eraikitze-lizentzia izatea.
- b) Eraikineko etxebizitza bakoitzerako modu bana-banakotuan sarean aurreikusitako hornikuntzen zerbitzu nagusiaren konexioa izatea, hornikuntza motak horretarako bidea ematen badu, indarrean dagoen legediarekin batera.
- c) Eskumena duten teknikariek, materialen egokitasuna eta zerbitzuen sareen egokitasuna dela eta, emandako ziurtagiriak edukitzea.
- d) Administrazioaren baimenak eta etxebizitza okupatzeko beharrezkoak diren dokumentuak edukitzea.
- e) Legez galdatu ahal diren bermeak eta aseguruak emanak izatea.
- f) Dagokion eraikinaren liburua formalizatua izatea.
- g) Hipoteka kreditua zatitua izatea, egokia bada, higiezinaren erregistro erakunde desberdinen artean.

127. artikulua. Eskuratzailerari eman behar zaizkion dokumentuak

1. Etxebizitza berriak eskualdatzeko egintzetan eta kontratuetan, emaileak honako dokumentu hauek eman behar dizkio eskuratzailerari:
 - a) Eraikinaren kokapen planoak.
 - b) Etxebizitzaren azaleraren planoak, eskumena duen teknikariak egiaztatutako neurketa duena. Eranskinik badago, neurketa bereizia egin behar da.
 - c) Kalitateen txostena.
 - d) Biziegokitasuneko sinestamendua, edo, babes ofizialeko etxebizitza bada, behin betiko kalifikazioaren sinestamendua.
 - e) Jabego Erregistroaren ohar soil informatiboa, eguneratua.
 - f) Etxebizitzaren garantiei dagozkien dokumentuak; bermatzailea, garantiaren titularrak, titularraren eskubideak eta iraupenaren epea zehaztuta dituzten dokumentuak.
 - g) Hipotekari dagozkion dokumentuak, hipotekarik badago.
 - h) Egokia bada, lan berriaren eta zatiketa horizontalaren adierazpen agiria, eta etxejabeen komunitatea arautuko duten estatutuen agiria, jada emanak badaude.
 - i) Etxebizitzaren zerbitzuak eta hornikuntzak kontratatzeko beharrezkoak diren dokumentuak.
2. Bigarren edo ondorengo eskualdatzeetan etxebizitzak eskualdatzeko egintzetan eta kontratuetan, aurreko atalean aipatu diren dokumentuei honako hauek gehitu behar zaizkie. Batetik, etxejabeen komunitateko idazkariak etxebizitzaren zorrei buruz emandako ziurtagiriak, jabetza horizontalaren araubidearen pean dagoen etxebizitza bat. Ziurtagiri horrek eraikinean egiturazko elementuak konpontzeko lanak egin diren espezifikatu behar du, dena den, adierazi behar du aurreikusita ote dagoen onartutako edo onartzeko zain dagoen lanik egitea. Eta bestetik, baita biziegokitasuneko baldintzak

betetzea kontrolatzeko ziurtagiriak ere.

3. Aipatu diren dokumentu horiek lortzeko dakartzan gastuak ez ditu ordaindu behar etxebizitzaren eskuratzailerak.

128. artikulua. Etxebizitzak errentan emateko baldintzak

1. Errentan emateko eskaintza batean eskatzen den informazioa egiaztatzeko dokumentuak ematea, lege honen 122. artikulua aurreikusten duenez, kontratua izenpetzeko baldintza da. Etxebizitzaren azalera neurketen planoaren bidez egiaztatu behar da; eskumena duen teknikari batek sinatutako plano baten bidez, hain zuzen.
2. Kontratua izenpetzearekin batera, biziogokitasuneko sinestamendua edo horren baliokide den sinestamendua hartzeko eskubidea du bizilagunak.
3. Hiri finkak alokatzeko kontratuak formalizatzean, nahitaezkoa da hiri-errentamenduei buruzko legedian ezarrita dauden baldintzen arabera berme bat jartzea. Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailean jarri beharko da berme hori.

VI. KAPITULUA

ETXEBIZITZA LIBREA ESKURATZEKO LAGUNTZA PUBLIKOAK JASOTZEAREN ONDORIOZ, EDUKITZEAK DITUEN MUGAK

129. artikulua. Edukitzearen muga

1. Euskal administrazio publiko batek etxebizitza libre bat eskuratzeko eman dituen diru laguntza zuzenak jaso diren kasuetan, etxebizitza horiek ezin izango dira eskualdatu 10 urteren epean, agiri publikoan salmenta formalizatu den datatik aurrera zenbatzen hasita edo errentan emateko kontratuaren datatik aurrera zenbatzen hasita, jaso den laguntza gehi horri dagokion legezko interesa ez badira itzuli lehenbizi. Edukitzearen muga hori Jabego Erregistroan adierazi eta idatzi beharko da.
2. Ez da eskualdatzetzat hartuko, helburu hauetarako, etxebizitza osoa titularkideetako bati esleitzea ezkontza banantzeen, dibortzioen, ezkontza baliogabetzeen edo 2/2003 Legearen pean dagoen izatezko bikotea haustearen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroan izena ematea baliogabetu bada aurretik.

VIII. IDAZPURUA
ETXEBIZITZA BABESTUEN KOPURUAREN GIZARTE
ERABILERA EGOKIAREN GARANTIA JURIDIKOAK

I. KAPITULUA
APLIKAZIO EREMUA

130. artikulua. Aplikazio eremua

1. Lege honen 57.1 artikuluko prozeduraren bidez, Eusko Jaurlaritzak esleitutako babes publikoko etxebizitzak, lege hau indarrean sartzen den unetik aurrera, nahitaezko salmentaren helburu izango dira bigarrenengo eta ondorengo eskualdatzeetan.
2. Eroslehentasun sistema eta atzera eskuratzeko sistema bigarrenengo eta ondorengo eskualdatzeetan erabiliko da babes publikoko etxebizitza hauetan:
 - a. 7/1998 Legea, jorrailaren 15ekoa, agintaritza-babespeko etxebizitzaren jabe-aldaketetan Euskadiko Autonomia-Elkarteko Ardularitzak duen erosteko lehentasun-eskubideari buruzkoa, indarrean jarri eta gero eta lege hau indarrean jarri baino lehenago kalifikatu direnak, esleitzeko erabili den prozedura gorabehera.
 - b. lege honen 57. artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakietako prozeduren bidez, udalek eta sustatzaile pribatuek, kooperatibek eta beste agente batzuek esleitutakoak, lege hau indarrean jarri eta gero.
 - c. oro har eta denbora guztian, epaitegien aldetik ondarezko betearazte prozeduren helburu direnak.

II. KAPITULUA
LEHENESPENEZ ESKURATZEKO ESKUBIDEA

131. artikulua. Kontzeptua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eroslehentasun eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango ditu babes publikoko etxebizitzetarako diren lurzoruen, lur sailen edo orubeen eta babes publikoko etxebizitza guztien lehen eta ondorengo eskualdatzeetan.

132. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehenespenez eskuratzeko duen eskubidearen jarduteko eremua

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehenespenez eskuratzeko eskubide hau du babes publikoko etxebizitzetarako diren lurzoruen, lur sailen eta orubeen kostu bidezko eskualdatze guztien kasuetan.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehenespenez eskuratzeko eskubide hau du babes publikoko etxebizitza guztien eta horien eranskinen gainean, "inter vivos", doako edo kostu bidezko, borondatezko edo ondarezko betearazte baten prozeduraren ondoriozko eskualdatze kasu guztietan, lehen auzialdiko eta auzialdi bakarreko autonomia araudia duten etxebizitzaren kasuan, eta udal araudia duten etxebizitzaren kasuan, udalek eskubide hori betetzen ez badute.
3. Eroslehentasun eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea salbuetsi behar da "inter vivos" doako eskualdatzeetan, ondorengoan, lehenagokoen, ezkontideen edo izatezko

bikotekideen aldekoak badira. Senar-emazteen edo izatezko bikotearen irabazpidezko sozietateari etxebizitza eta horren eranskinak uztea eta irabazpidezko sozietatea desegin delako senar-emazteetako edo izatezko bikotekideetako bati esleitzea etxebizitza eta eranskinak ez dira eskualdatzetzat joko, lehenespenez eskuratzeko eskubidearen helburuetarako.

133. artikulua. Eskubidearen iraupen epea

Eroslehentasun eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea izango du Administrazioak lurzorua etxebizitza babestuak egiteko kalifikatuta dauden bitartean eta etxebizitza eta eranskinak babes publikoko etxebizitzaren erregimenaren barnean dauden bitartean.

134. artikulua. Eskuratzeko prezioa

1. Babes publikoko etxebizitzarako diruen lurzoruen, lur sailen edo orubeen kostu bidezko eskualdatzeetan, Administrazioak eskuratzeko prezioa lege honen 26 bis artikuluan ezarritako prezioaren gehieneko muga izango da.
2. Dohain bidezko eskualdatzeetan, Administrazioak eskuratzeko prezioa etxebizitzaren eta eranskinen legezko balio handienarena izango da.
3. Kostu bidezko eskualdatzeetan, bai borondatezkoetan bai eta ondarezko betearazte baten prozeduratik eratorritakoetan, babes publikoko etxebizitzaren eta horri lotuta dauden eranskinen prezioa eroslehentasun edo atzera eskuratzeko helburua duen eskualdatzearena izango da, ondasun horien legezko prezio handiena baino txikiagoa bada prezio hori, eta lehenespenez eskuratzeko eskubidea gauzatzea jakinarazteko unean babes publikoko etxebizitzari eta eranskinei dagokien legezko prezio handiena, hura handiagoa bada.

135. artikulua. Prozedura

1. Babes publikoko etxebizitzetarako diren lurzoruen, lur sailen edo orubeen jabeek Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailari ezin gezurtatuzko moduan jakinarazi beharko diote besterentzeko duten asmoa. Gainera, prezioa, ordaintzeko modua eta eskualdatzearen baldintzak zehaztu beharko dituzte.
2. Babes publikoko etxebizitzen jabeek Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailari ezin gezurtatuzko moduan jakinarazi beharko diote besterentzeko duten asmoa. Gainera, kostu bidezko eskualdatzeetan, eskuratzeko interesa duen pertsonaren nortasuna, prezioa, ordaintzeko modua eta eskualdatzearen funtsezko baldintzak zehaztu beharko dituzte. Dohain bidezko eskualdatzeetan, jakinarazpenak alderdi berberak hartuko ditu; prezioaren orde, ordea, etxebizitzaren eta horri lotutako eranskinen legezko balioa zehaztu beharko da.
3. Ezin gezurtatuzko jakinarazpen osoa egin eta handik aurrerako 60 egunen epearen barnean ez bada gauzatzen atzera eskuratzeko eskubidea Eusko Jaurlaritzak, jakinarazitako eskualdatzearen gaineko eskubidea iraungiko da.
4. Ez bada jakinarazpenik egiten, akastuna edo osatugabea bada jakinarazpena, atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko epea iraungi aurretik egiten bada eskualdatzea, edo jakinarazitako baldintzetan ez bada egiten, Administrazioak atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du eskualdatzea jakinarazi eta handik 60 eguneko epean, edozein kasutan egin beharko baita jakinarazpena, edo ondasuna eskualdatu dela dakien unetik beretik.
5. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehenespenez eskuratzeko eskubidea gauzatzea Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailburuaren aginduaren bidez hitzartuko da. Agindu horretan, era berean, erabaki ahal izango da lurzorua edo etxebizitza sail horri atxikita dagoen sozietate publiko batek eskuratuko

duela, Eusko Jaurlaritzari lotutako erakunde batek, udal batek, edo udal administrazioari lotutako sozietate publiko batek edo erakunde batek, aurretiaz adostuta.

136. artikulua. Salmenta eskaintza Administrazioari

1. Babes publikoko etxebizitzetarako diren lurzoruen, lur sailen edo orubeen jabeek eta babes publikoko etxebizitzaren jabeek, horiek besterendu nahi badituzte, saltzeko asmo horren berri eman ahal izango diote Administrazioari.
2. Kasu horietan, nahikoa izango da Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailari jakinaraztea lurzorua, lur saila edo orubea edo etxebizitza eta horren eranskinak Administrazioari saltzeko asmoa dagoela. Titularra nor den eta higiezinaren identifikazioa zein den adierazi beharko da.

137. artikulua. Kontratuen oniritzia

Babes publikoko etxebizitzetarako diren lurzoruak eskualdatzeko kontratu guztiak edo babes publikoko etxebizitzak eta horien eranskinak eskualdatzeko kontratuak edo esleitzeko dokumentuak Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailean aurkeztu beharko dira, eta han, oniritzi moduan, baimena lortu ahal izatea eskatu beharko da.

138. artikulua. Enkante publikoa

1. Babes publikoko etxebizitzetarako lurzoruei edo babes publikoko etxebizitzari eragiten dieten ondarezko betearazte prozedurek, kasu guztietan, lurzoru horiei edo etxebizitzari horiei eragiten dien legezko erregimena errespetatu beharko dute.
2. Administrazioari jakinarazi beharko zaio enkantea egin behar dela argudiatzeak aurkezteko epe nahikoarekin edo, bere kasuan, bertan agertzeko epe nahikoarekin.
3. Enkantearen deialdian argi eta garbi adierazi beharko da ondasuna babes publikoko etxebizitzaren erregimenari lotua dagoela eta, berariazko moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehenespenez eskuratzeko eskubidea duela eta gauzatzeko unean ondasunak duen legezko prezio handiena zein den. Gaineratu beharko da, hori izango dela ondasunak enkantean izan dezakeen prezio handiena.
4. Enkantearen agiria Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailera bidali beharko zaio, eta bertan adierazi beharko da lortu den prezioa zein den eta eskuratzailaren nortasuna zein den. Komunikazio horrek jakinarazpen balioa izango du lehenespenez eskuratzeko eskubidearen eraginetarako.
5. Administrazioak lehenespenez eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du lege honen 134. artikuluan adierazitako prezioan.

139. artikulua. Notarioen eta erregistratzaileen kontrola

1. Lurzoruak edo babes publikoko etxebizitzak eta horien eranskinak esleitzeko edozein kontratu edo dokumentu agiri publikoan formalizatzeari ezezkoa emango diote notarioek, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak ez badu egoki baimendu oniritzi bidez edo, bere kasuan, egiaztatzen bada jakinaraztea eta Administrazioak lehenespenez eskuratzeko duen eskubidea gauzatzeko iraingitze epea amaitu dela.
2. Lurzoruak edo babes publikoko etxebizitzak eta horien eranskinak eskuratzeko edozein tituluren izena emateari ezezkoa emango diote jabetza erregistratzaileek, ez bada egoki egiaztatzen Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duena sailak eman beharreko baimena, berariazkoa, edo iraingitze epea igaro delako.

140. artikulua. Eroslehentasun eskubidea gauzatzea

1. Etxebizitza babesturako diren lurzoruen jabeek Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailari horiek besterentzeko asmoa jakinarazi beharko diote lege honen 135. artikuluaaren baldintzetan.
2. Jakinarazpen horren eraginak handik bi hilabetetara iraungiko dira. Honenbestez, epe hori igaro eta gero egindako edozein eskualdatze, besteak beste, atzera eskuratzeko eskubidearen helburuetarako jakinarazpenik gabekotzat joko da.
3. Egin nahi den besterentzea ondarezko betearazte prozedura baten ondorioz egiten bada, esleitzea egiten duen erakundeak Administrazioari jakinarazi beharko dio hiru eguneko epean. Prezioa adierazi beharko du eta bai esleipendunaren nortasuna ere. Gero, esleipendunari jakinarazpen horren berri emango zaio.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eroslehentasun eskubidea gauzatu ahal izango du jakinarazpena jaso eta hurrengo 60 egun naturalen epean. Eskubide hori gauzatzeari uko egiten diola ere epe horretan jakinarazi ahal izango du. Ezarritako epearen barnean ez bada gauzatzen, eskubide hori iraungi egingo da.
5. Eroslehentasun eskubidea gauzatzeko, ezin gezurtatuzko jakinarazpena egin beharko zaio emaileari edo esleitzea egin duen erakundeari. Ezin gezurtatuzko jakinarazpentzat hartuko da administrazio prozedura arautzen duen legediak horren gainean ezarrita duenaren arabera egiten dena.
6. Araudiaren arabera erabakiko da ordaintzeko modua eta epea. Hain zuzen ere, epe hori ezin izango da izan lau hilabetekoa baino handiagoa, atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzeko jakinarazten denetik aurrera zenbatuta, baldin eta ez badute aldeek epe luzeago bat hitzartzen.

141. artikulua. Atzera eskuratzeko eskubidea gauzatzea

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du honako hipotesi hauetan:
 - a) Babes publikoko etxebizitzetarako lurzorua edo babes publikoko etxebizitza eta horren eranskinak eskualdatzea jakinarazi ez den kasuetan.
 - b) Administrazioak duen eroslehentasun eskubidea gauzatzeko epearen barnean gertatzen denean eskualdatzea.
 - c) Administrazioari egindako jakinarazpenaren iraungitze epea igaro eta gero egiten denean eskualdatzea.
 - d) Administrazioari jakinarazi zaizkion baldintzak ez direnetan egiten denean eskualdatzea.
2. Administrazioak atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du, babes publikoko etxebizitza eta horren eranskinak eskualdatuko diren berri duen unetik aurrera zenbatuta, 60 egun naturaleko epean.
3. Notarioek eta jabetza erregistratzaileek Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailari jakinarazi beharko diote babes publikoko etxebizitzetarako lurzoruak eta babes publikoko etxebizitzak eta horien eranskinak eskualdatzea agiri publikoan formalizatzeko edo erregistroan izena emateko edozein ahalegin, baldin eta aipatu den sail horren baimen egokirik ez badute.

142. artikulua. Eskuratutako etxebizitzak eta eranskinak esleitzea

1. Lehenespenez eskuratzeko eskubideak gauzatzearen ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratutako babes publikoko etxebizitzek eta horien

eranskinek kalifikatu zirenean eman zitzaizen legezko araubideari eutsiko diote, eta Eusko Jaurlaritzak, kalifikazio epearen mende dagoen babes publikoko etxebizitzaren kasuan, kalifikazio hori mugagabetzat jo ahal izango du.

2. Etxebizitza horiek eta horiei lotutako eranskinak esleitzeko, oro har, Etxebizitza Babestuaren Esleipen Euskal Zerbitzua – Etxebide izenekoa izena emanda dauden eskatzaileen zerrenda baliatuko da.
3. Nolanahi ere, etxebizitza horien esleipendunek babes publikoko etxebizitza baten onuradun izateko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, lege honen baldintzetan.
4. Babes publikoko etxebizitzak eta horren eranskinek duten erabilera eta edukitze erregimena Administrazioak eroslehetasun eta atzera eskuratzeko eskubideak gauzatzetik eskuratutako etxebizitzak zuen erregimen berbera izango da.
5. Administrazioak hitzartzen duenean eskubide horiek gauzatzea aipatutako sail horri atxikita dagoen sozietate publiko baten, Eusko Jaurlaritzari lotutako erakunde baten, udal baten, udal administrazioari lotutako sozietate publiko baten edo erakunde baten onurarako, horiek bere gain hartuko dituzte bai eskuratzeko gastuak, bai eta emaitzari prezioa ordaintzea ere. Gero, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak adierazitako pertsonari etxebizitza eta horren eranskinak besterenduko zaizkio; artikulua honetan ezarrita dagoenaren arabera hautatutako pertsonari, hain zuzen.

II. KAPITULUA MAIZTER-BOTATZE ADMINISTRATIBOA

143. artikulua. Arrazoiak

Egokia izango da maizter-botatze administratiboa gauzatzea babes publikoko etxebizitzaren edo horiei lotutako eranskinen, gune komunen, lokalen eta eraikin osagarrien titulurik gabeko errentarien, prekaristen edo bizilagunen aurka, titulartasun publikokoak izan edo ez, honako arrazoi hauetako bat eragiten den kasuetan:

- a) Ez ordaintzea errentan emateko kontratuan ezarri diren errentak sei hilabeteko epea baino luzeagoan, edo ez ordaintzea kontratua berrikusi eta eguneratzearen ondorioz ezarritako errentak.
- b) Zerbitzu komunak direla eta, edo indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen beste batzuk direla eta, galdatzen ahal diren kopuruak ez ordaintzea sei hilabeteko epea baino luzeagoan, alokatzeko araubidearen barnean dauden gizarte etxebizitzaren kasuan.
- c) Lege honetan arau-hauste larri edo oso larri gisa sailkatutako baten baten ondorioz zigortua izatea, administrazio bidean gora jotzerik gabeko erabaki baten bidez.
- d) Etxebizitza ez erabiltzea ohiko bizileku iraunkor moduan, uzteko aginduzko administrazio baimena ez bada lortu aurretik.
- e) Etxebizitza edo horri lotutako eranskina osorik edo zati batean uztea, edozein tituluren pean.
- f) Behar ez bezalako edo baimendu gabeko erabilera ematea etxebizitzari.
- g) Etxebizitza baten bizitzea horretarako legezko titulurik eduki gabe.

144. artikulua. Eraginak

1. Kapitulu honetan ezarritakoa betetzearen ondorioz botatutako maizterrak ez du izango maizter-botatze administratiboaren helburu den etxebizitza gaitzeari inolako ordainik. Era berean, bota duten unean bitartean ordaindu dituen kopuruak berreskuratzeko eskubiderik ere ez du izango.

2. Maizter-botatze administratiboaren helburu den etxebizitzak titulartasun publikoa duenean, Administrazioak horren jabetza osoa berreskuratuko du eta berriro esleituko du, Eusko Jaurlaritzaren, horren enpresa publikoen edo horren erakunde administrazioaren edo udal baten, horren enpresa publikoen edo horren erakunde administrazioaren titulartasuna duen gorabehera, babes publikoko etxebizitzak esleitzeko ezarritako prozeduren arabera, hurrenez hurren, lege honen 57.1 eta 57.2 artikuluetan.
3. Maizter-botatze administratiboaren helburu den etxebizitza alokatzeko erregimeneko sustapen pribatu batetik datorren kasuan, titulartasun publikokoa izatera igaroko da, titularrari prezioa ordaindu eta gero, baldin eta sustatzaileak ez badu aukeratzen etxebizitzaren eta horren eranskinen jabetzari eustea. Izan ere, kasu horretan errentan eman beharko du hilabete bateko epean, lege honen 57.3 artikuluan ezarrita dagoen esleitze prozedurari jarraituta.

145. artikulua. Eskumena

1. Maizter-botatze administratiboa gauzatzeko eskumena, titulartasun publikoko etxebizitzaren kasuan, maizter-botatzearen helburu den etxebizitzaren titulartasuna duen administrazioari dagokio.
2. Maizter-botatze administratiboa gauzatzeko eskumena, sustapen pribatuko babes publikoko etxebizitzaren kasuan, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailari dagokio beti.

146. artikulua. Prozedura

Araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak arautuko du kapitulu honetan kontuan hartu den maizter-botatze administratiboaren prozedura.

147. artikulua. Badaezpada zigilatzea

Maizter-botatzeak oinarri duenean lege honen 143 e) artikuluan aurreikusitako arrazoa, erabakitze eskumena duen organoak hitzartu ahal izango du, erresalbu zko neurri gisa, helburu den etxebizitza zigilatzea, egokitzen ahal zaion erabakiaren eraginkortasuna ziurtatzeko helburuz.

III. KAPITULUA NAHITAEZKO SALMENTA

148. artikulua. Arrazoa

Egokia izango da babes publikoko etxebizitzaren edo horiei lotutako eranskinen, gune komunen, lokalen eta eraikin osagarrien nahitaezko salmenta, titulartasun publikokoak izan edo ez, lege hau indarrean jarri eta gero Eusko Jaurlaritzak esleitutako babes publikoko etxebizitzaren bigarrenengo eta ondorengo eskualdatze guztietan.

149. artikulua. Gaitzen duen titulua

Nahitaezko salmenta gaitzen duen titulua administrazio bidean gora jotzerik gabeko erabakia izango da, eta lege honetan arau-hauste larri eta oso larri gisa sailkatutakoa egiteagatik jarri beharreko zigorra hitzartu beharko da. Beharrezkoa izango da ebazpen zigortzaileak berariaz hitzartzea nahitaezko salmenta neurri osagarri moduan.

150. artikulua. Eraginak

1. Nahitaez saltzen diren babes publikoko etxebizitzaren jabetza osoko eskubidearen titularrek eta lurrazal-eskubidearen titularrek etxebizitzaren eta horri lotutako eranskinen balioa jasotzeko eskubidea izango dute; hain zuzen ere, babes publikoko etxebizitza hori den motaren arabera duen balioa ken ebazpen zigortzailean ezarri den zigor ekonomikoaren zenbatekoa eta jaso diren diru laguntzak, bere kasuan.
2. Geroraturako prezioa duen sustapen publikokoa bada etxebizitza honakoa izango da kalte-ordaina: ordaindu diren kopuruen zenbatekoa ken ebazpen zigortzailean ezarri den zigor ekonomikoaren zenbatekoa eta jaso diren diru laguntzak, bere kasuan.

151. artikulua. Eskumena

Nahitaezko salmenta hertsatuki eskatzeko eskumena, bai eta egokiak direnean erresalbazko neurriak hitzartzekoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio beti.

152. artikulua. Prozedura

1. Araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak arautuko du kapitulu honetan kontuan hartu den nahitaezko salmentaren prozedura.
2. Behin amaitu denean nahitaezko salmentaren prozedura, etxebizitza berriro esleituko du Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak, lege honen 57.1 artikuluan ezarrita dagoen prozedurari jarraituta.

IV. KAPITULUA NAHITAEZKO DESJABETZEA

153. artikulua. Arrazoiak

1. Babes publikoko etxebizitzaren edo horiei lotutako eranskinen, gune komunen, lokalen eta eraikin osagarrien jabetza osoko eskubidea duten titularren eta lurrazal-eskubidea duten titularren aurka nahitaezko desjabetzea egitea egokia izango da, titulartasun publikokoak izan edo ez, honako arrazoi hauetako bat eragiten denean:
 - a) Etxebizitza ez erabiltzea ohiko bizileku iraunkor moduan, administrazioaren aginduzko baimena ez bada jaso.
 - b) Etxebizitza hutsik izatea, bidezko arrazoirik gabe, sei hilabeteko epea baino luzeagoan.
 - c) Etxebizitzaren eskualdatzea egiten bada baimenik gabe.
2. Etxebizitza librearen jabetza osoko eskubidea duten titularren aurkako nahitaezko desjabetzea egitea egokia izango da honako arrazoi hauetako bat eragiten denean:
 - a) Lege honen 103. artikuluan aipatzen diren gainokupazio kasuetan.

154. artikulua. Desjabetze titulua

1. Egokiak diren zigorrak alde batera utzirik, nahitaez desjabetzeko arrazoia egongo da jabetzaren gizarte funtzioa ez betetzeagatik, babes publikoko etxebizitzari dagokienez, aurreko artikuluan adierazitako kasuetan.
2. Desjabetzea gaitzen duen eta nahitaezko desjabetzerako arrazoia dagoela erabakitzen duen titulua administrazio bidean gora jotzerik gabeko erabakia izango da, eta lege honetan arau-hauste larri edo oso larri moduan sailkatuta dagoena egiteagatik zigorra erabakiko da. Beharrezkoa izango da ebazpen zigortzaileak berariaz hitzartzea desjabetzea neurri osagarri gisa.

155. artikulua. Eraginak

1. Desjabetu den pertsonak etxebizitzaren eta horri lotutako eranskinen balioa duen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du; hain zuzen ere, babes publikoko etxebizitza hori den motaren arabera duen balioa ken ebazpen zigortzailean ezarri den zigor ekonomikoaren zenbatekoa eta jaso diren diru laguntzak, bere kasuan.
2. Geroratatuko prezioa duen sustapen publikokoa bada etxebizitza honakoa izango da kalte-ordaina: ordaindu diren kopuruen zenbatekoa ken ebazpen zigortzailean ezarri den zigor ekonomikoaren zenbatekoa eta jaso diren diru laguntzak, bere kasuan.

156. artikulua. Eskumena

Nahitaezko salmenta hertsatuki eskatzeko eskumena, bai eta egokiak direnean erresalzubuko neurriak hitzartzekoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio beti.

157. artikulua. Prozedura

1. Araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak arautuko du kapitulu honetan kontuan hartu den nahitaezko desjabetzearen prozedura.
2. Behin amaitu denean nahitaezko desjabetzearen prozedura, etxebizitza berriro esleituko du Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak, lege honen 59.3 artikuluan ezarrita dagoen prozedurari jarraituta.

V. KAPITULUA ETXEBIZITZA BABESTUA IKUSKATZEA

158. artikulua. Eskumenak

Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak gauzatuko du babes publikoko etxebizitza guztiak ikuskatzeko ahalmena, alde batera utzirik udal arautegiko babes publikoko etxebizitzaren gainean udalek duten eskumena.

159. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Publikoko Etxebizitzaren Ikuskatzaileen Taldea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Publikoko Etxebizitzaren Ikuskatzaileen Taldea Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailaren barnean egongo da.
2. Kapitulu honen helburuetarako, etxebizitza ikuskatzailetzat hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Babes Publikoko Etxebizitzaren Ikuskatzaileen Taldearen barnean dagoen funtzionario publikoa.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Publikoko Etxebizitzaren Ikuskatzaileetan Taldea Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Publikoko Etxebizitza ikuskatzaile nagusiak zuzenduko du.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Publikoko Etxebizitzaren Ikuskatzaileen Taldearen zerbitzuari, ikuskatzaile nagusiaz gain, giza baliabide eta baliabide material nahikoak atxikiko zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko babes publikoko etxebizitza kopuru osoa ikuskatu eta zigoritu ahal izateko.
5. Talde hori eratu bitartean, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak ahalmenak bete eta eginkizunak gauzatu ahal izango ditu, Administrazioaren zerbitzura dagoen pertsonaren bidez. Hain zuzen, pertsona horren kontratu harremanak berekin

ekarri beharko ditu alderdikeriarik ezaren berme antzekoak eta talde barnean egongo diren ikuskatzaileen antzeko prestakuntza. Gainera, bere eginkizunen artean etxebizitzak ikuskatzea egongo da.

160. artikulua. Ahalmenak

1. Etxebizitza ikuskatzaileak agintaritzaren agentetzat hartzen dira; hartara, dagokien eskumen esparruan, beste edozein agintaritzaren laguntza eskatu ahal dute, bereziki, Ertzaintzarena eta Tokiko Poliziena. Gainera, edozein unetan, higiezinetan, eraikuntzetan eta beren ikuskatze lanaren barnean dauden gainerako lekuetan sartzeko eta bertan libreki egoteko baimena dute, edozein kasutan, banakoaren eta familiaren intimitatea eta interesatuen egoitzaren bortxa ezintasuna errespetatuta. Nolanahi ere, dagokien sinestamenduaren bidez, egiaztatu egin beharko dute ikuskatzaileak direla.
2. Ikuskatzaile eginkizunak egiteko beharrezkoa denean etxebizitza batean sartzeari, epailearen baimen egokia eskatuko da, ikuskatzea dagokionak horretarako baimena ematen badu izan ezik.
3. Epailearen baimena beharrezkoa denean, baimenaren eskaeran ahalik eta modu zehatzenean identifikatu beharko da ikuskatu nahi den lokala edo esparrua. Administrazio arau-haustea gertatu delako susmoa izatea eragiten duten zantzuak justifikatu beharko dira, eta ikuskatzea zuzenduko duen funtzionarioa identifikatu beharko da, bai eta lagunduko dion pertsona kopurua ere. Behin ikuskatzea egin denean, egindako jarduketan gainerako akta egingo da eta benetako kopia zuzenduko zaio bertan sartzeko baimena eman duen epaile organoari.
4. Etxebizitza ikuskatzaileek eskatu ahal izango dute interesdunaren edo edozein erakunde publiko edo pribaturen eskuetan dagoen dokumentazioa erakusteko, beren ikuskatze lana egoki egin ahal izateko. Beren aldetik, ikuskatze lanaren mende dauden finka, eraikuntza eta gainerako tokien titularrak, legezko ordezkariak edo arduradunak behartuta daude etxebizitza ikuskatzaileei barneak aztertzen uztera eta ikuskatze lanari dagokion edozein dokumentu aztertzen uztera.
5. Etxebizitza ikuskatzaileek erakunde pribatuei beharrezkoa zaien laguntza eskatu ahal izango diete, bereziki, hornikuntza konpainiei, babes publikoko etxebizitzaren kopuruaren erabilera okerraren zantzuak dokumentatu ahal izateko.

161. artikulua. Eginkizunak

1. Etxebizitza ikuskatzaileei honako eginkizun hauek betetzea dagokie:
 - a) Lege hau, bera garatzeko xedapenak eta, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko babes publikoko etxebizitzaren gainerako araudia betetzen dela ikertzea eta egiaztatzea. Helburu horretarako, beharrezkoak diren neurketak eta probak egin beharko dituzte.
 - b) Indarrean dagoen legedia betetzen dela ziurtatzeko beharrezkoak diren behin-behineko eta behin betiko neurriak hartzea proposatzea, legezketasuna babesteko eta lehengoratzeko neurriak barne.
 - c) Txosten zigortzaile egokiak eta legezketasuna babesteko eta lehengoratzeko neurri egokiak abiaraztea proposatzea.
 - d) Atzera eskuratzeko eskubidea betetzea proposatzea, beren ustez, egokia denean.
2. Ikuskatze eginkizunek ezin izango dute berekin ekarri, indarrean dagoen legediaren arabera, interesdunei dagozkien betebeharrak murriztea.

162. artikulua. Ikuskatze agiriak

1. Etxebizitza ikuskatzaileek idatzitako agiriek eta zuzemenek agiri publikoen izaera dute eta horiek formalizatzea eragiten duten gertakarien froga dira, aurkakoa egiaztatzen bada izan ezik.
2. Ikuskatze agirietan, gutxienez, honako hauek idatzi beharko dira: ikuskatzearen tokia, data eta ordua; ustezko arau-hausteen deskribapen zehatza eta horiei behatu zitzaientzeko egoera; ikuskatzean parte hartu duen Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioaren edo funtzionarioen nortasuna; eta, ikuskatzailearen iritziz, presente dauden pertsonak identifikatzeko garrantzitsua izan daitekeen beste edozein egiazko gorabehera.
3. Ikuskatzailearen iritzia araberak, beste hauek ere idatzi ahal izango dira: ustezko arau-haustearen edo arau-hausteen behin-behineko kalifikazio juridikoa, ustez hautsi den legezko edo arauzko agindua adierazita, eta legezotasuna babesteko komenigarriak izan litezkeen behin-behineko edo behin betiko neurriak proposatzea.
4. Baldintza formal nabarmenik, administrazio-prozedura erkidearekin bat datorrenik, ez duten agiriak edo fede publikoa duen etxebizitza ikuskatzaile edo funtzionario batek egin ez dituen agiriak salaketatzat hartuko dira eta dagozkien jarduerak eragingo dituzte.

163. artikulua. Ikuskatze lana eragozte

Ikuskatze lana oztopatetzat hartuko dira honako hauek, eta oztopatze horrek izan ditzakeen legezko ondorioez ohartaraziko du ikuskatzaileak eta, beharrezkoa bada, dagokion agiria idatziko du:

- a) Sinestamendu egokia duen ikuskatzaileari sartzen ez uztea justifikaziorik gabe, epailearen baimena galdatzen ahal den kasuetan eta hori lortu ez denetan izan ezik.
- b) Aurreko atalean aipatu diren dokumentuak erakutsi nahi ez izatea.
- c) Ikuskatze helburuetarako, ikuskatzaileek adierazitako tokian eta egunean ez agertzea justifikaziorik gabe.
- d) Erakunde pribatuak, bereziki hornidura konpainiek, informaziorik ez ematea, babes publikoko etxebizitzaren kopuruaren erabilera okerra dokumentatzeko helburuetarako.

V. KAPITULUA ZEHAPEN ERREGIMENA

1. atala. Xedapen orokorrak

164. artikulua. Aplikazio eremua

Lege honetan ezarritako zehapen erregimenaren pean geldituko dira izenburu honetan deskribatzen diren pertsonen jokoerak eta honako hauen gainean egiten direnak:

1. Babes publikoko etxebizitza izateko helbururako kalifikatzen den lurzoru, lur sail edo orube oro, hirigintzari dagokionez.
2. Babes publikoko etxebizitza guztiak eta horiei lotutako eranskinak.
3. Birgaitzeko, alokairu babestura mugiarazteko edo lege honen I. izenburuko I. kapituluaren dauden plangintza eta programatze tresnen barnean daudenean duten beste edozein helburu publikoko etxebizitza eta lokal guztiak, babestuak eta libreak.

165. artikulua. Eskumena

Eusko Jaurlaritzan etxebizitza gaietan eskumena duen sailak beteko du ahalmen zigortzailea babes publikoko etxebizitza guztien kasuan, alde batera utzirik, udal erregimen juridikoko babes publikoko etxebizitzaren alorrean, udalek duten eskumen zigortzailea.

166. artikulua. Erantzukizuna

1. Lege honetan sailkatutako administrazio arau-haustetzat hartutako ekintzen ondorioz, soilik zigortu ahal izango dira horien erantzule diren pertsona fisikoak edo juridikoak, legea ez gordetze huts gisa.
2. Administrazio arau-haustea pertsona juridiko bati egotzi ahal zaionean, horren zuzendaritza erakundeak osatzen dituzten pertsona fisikoak jo ahal izango dira erantzuletzat, beren nortzeko moduan dituzten xedapenetan ezarrita dutenaren arabera.

2. atala. Arau-hausteak

167. artikulua. Arau-hausteak

1. Babes publikoko etxebizitzaren gaian, administrazio arau-hausteak izango dira lege honetan bilduta dauden egintzak edo egin ezak.
2. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izango dira, hautsitako betebeharraren izaeraren arabera eta kalte hartutako ondasun juridikoaren entitatearen arabera, lege honetan ezarritakoaren arabera.

168. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arintzat hartuko dira honako hauek:

1. Etxebizitzak eraikitzen diren bitartean, ikusgai dagoen toki batean ez erakustea, eredu ofizialaren arabera, etxebizitza horien sustapena babes publikoko etxebizitzaren erregimenaren barnean dagoela adierazten duen kartela.
2. Babes publikoko etxebizitzaren erregimenaren barnean dagoela frogatzen duen plaka higiezinan ikusgai dagoen toki batean ez jartzea, plaken eredu ofizialaren arabera.
3. Babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko lanetan agindu eta bisita libururik ez izatea.
4. Babes publikoko etxebizitzak okupatzea, eskumena duen administrazioak aurretik eman behar duen baimena gabe, behin betiko kalifikazioa lortu baino lehen.
5. Lege honetan sailkatuta dauden ustezko arau-hausteak salatzean, ausarkeriaz jokatzeko.
6. Babes publikoko etxebizitzaren legedian arauak hausteagatik egiten diren jarduketetan ez agertzea, justifikaziorik gabe, salatzaile edo salatu gisa.
7. Babes publikoko etxebizitzaren titularrak, justifikaziorik gabe, eragozteko eskumena duen administrazioak inposatutako konpontze lanak egitea.
8. Eskumena duen administrazioaren aurrean bermea jartzeko betebeharra ez betetzea, errentan emateko araudiaren barnean dauden babes publikoko etxebizitzaren kasuan.

9. Eskumena duen administrazioari ez jakinaraztea etxebizitzaren eta horrekin lotutako eranskinen titulartasunarekin lotutako edozein aldaketa.

169. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larritzat hartuko dira honako hauek:

1. Laguntzeko eta sustatzeko finantza neurriak eskuratu ahal izateko ezarrita dauden baldintzak ez betetzea.
2. Araudian nahitaezkotzat jotzen diren klausulak ez sartzea babes publikoko etxebizitzaren salmenta eta errentamendu kontratuetan.
3. Oniritzia lortzeko, babes publikoko etxebizitzak eskualdatzeko kontratuak ez aurkeztea, edozein tituluren bidez.
4. Oniritzia edo baimena lortzeko, babes publikoko etxebizitzetarako den lurzoruauren kostu bidezko eskualdatze kontratuak ez aurkeztea.
5. Babes publikoko etxebizitza bat baino gehiago erabiltzea.
6. Babes publikoko etxebizitzan lanak egitea, eskumena duen administrazioaren erakundeak aurretiaz horretarako baimenik eman ez badu.
7. Administrazioak aurretiaz horretarako baimenik eman gabe, proiektuan aurreikusita ez dagoen eraikuntza lanak egitea terrazetan edo higiezinak duen edozein elementu komunetan, behin betiko kalifikazioa lortu eta gero.
